



Bergarako pilotalekua betetzea du helburu Libre ekimenak | 17

Agintaldi osoa baldintzatuta Elgetan, aparejadorearen auzia dela eta | 24

GABONEI BURUZKO GEHIGARRIA
Etxera bueltan, ohiturak... | Barruan



Debagoiengan ere eros daiteke Aldundiaren bonuekin | 29



Neguko azoka egingo dute lehen aldiz Aretxabaletan | 19

Rafael Kortabarria eta Mikel Etxezarreta, Zubikoa kiroldegi aurreko aparkalekuan.

Bakoitzari berea

Trauti elkarteak zailtasunak dituztenendako aparkalekuak aldarrikatuko ditu | 8



JAGOBA DOMINGO

Ziklo-krosa eta Santamas Krosa, biak ala biak domekan egingo dituzte

Horrela gertatzea saihesten aha- legindu diren arren, ez da posible izan eta etzi, domeka, bi krosek bat egingo dut Arrasaten: 12:30ean hasiko da Santamas Krosa eta 13:00etan, berriz, Arrasateko ziklo-krosa. Eta hori gutxi balitz, ordu berean egingo dute Bergaran Mushing Txapelketa. | **26 eta 27**

SINADURAK

Pozik edo triste | 6
AGURNE JULDAIN

15 | Ez da berdina...
AINHOA NEGERUELA

Herri mailako eraldaketa beharra | 16
MIGUEL LAZPIUR

20 | Erabagixaren arua hasi da!
NURIA FERNANDEZ DE ARROJABE

Gune librea frontoian | 36
AGURNE BARRUSO



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Ino Galparsoro, 04/08 auziaz
- Boluntarioak dira arima

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

"Erantzukizun ariketa bat izan da, ez zegoen ezetz esaterik"



Elena Lete "buru-belarri" ibiliko da alkate lanetan Bergaran urtarrilean | 16

Touran berria

Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Jose Antonio Agirrebeña | Bergarako elikagai bankua

"Jenero piloa dugu sailkatzeko, eta batutako guztia iritsi barik dago"

Batutakoa zenbatu barik ere, kopurua ikusita, badakite iazko 190.000 kiloak gaindituko dituztela

UBANE MADERA | BERGARA

Goizez eta arratsaldez etengabe lanean dihardute handik eta hemendik etorritako boluntarioek Bergarako Elikagaien Bankuan, orain dela bi asteburu batutako guztia sailkatzen. "Eguneroko banaketak-eta egiten segitu behar da, gehi kanpaina berezian egindako batuketa sailkatu", azpimarratu du Jose Antonio Agirrebeña, bertako ordezkaririk.

Zein da panorama?

Erdia baino gehiago etorrita dago, eta horko zati bat sailkatuta eta behean jenero piloa sailkatzeko dugu. Behin hori eginda, pisatu,

paletak goiko pisura ekarri, inbentarioa ordenagailuan sartu eta guztia banatzeko gertu utzi behar da. Baina hemendik kilometro eskasera lagun baten pabilioian 62 edukiontzi ditugu eta Elorrion (Eroskin) ditugu bi trailer handi oraindik etortzeko. Egun batzuetan jende asko dator, beste batzuetan gutxiago... eta poliki-poliki bagoaz neurria hartzen.

Egoera horretan, oraindik jakina, ez da kontatu jasotako guztia, baina ikusten da iaz baino gehiago izan dela, ala?

Bai. Euskal Herri guztian egindako gutxi gorabeherako konta-



Jose Antonio Agirrebeña, Bergarako Elikagaien Bankuan, eguaztenean. | U.M.

ketan, Gipuzkoan 630.000 kilo batu direla uste da, iaz 570.000 izan ziren. Iaz, gure esparruan 190.000 kilo batu ziren eta aurten gehiago batu dela segurua da. Zenbat? Hori jakingo dugu hemendik hila-betera. Aurten, gainera, beste ekimen berezi bat egin dugu: Eros-

"Supermerkatu batzuetan 14.000 euro saldu da bonuen bitartez"

kiko supermerkatuetan bonu laguntza erosteko aukera. Eta leku batzuetan oso-oso erantzun ona jaso du. Pentsa, supermerkatu batzuetan 14.000 euroko salmenta egin dute bonuen bitartez. Bonu horiei esker, geratzen zaigu diru-kopuru bat gure alde, eta beharra dugunean, zerbaiten falta dugunean, eskatzen dugu behar dugun produktu hori, gure alde dagoen aurrekontutik murriztuta. **Zifra potoloak mugitzen dira zuen bueltan: 190.000 kilo batu, 4.000 familiari laguntzen diezue; 14.000 euro batu bonutan... baina hori guztia nahikoa da gaur egungo errealitateari erantzuteko? Zein da oraingo erretratua?**

Eskatzera etortzen direnen kopurua jaitsi egin da apur bat. Horietako batzuk euren herrialdeetara bueltatu dira, hemengo krisiak eraginda. Eta bestalde, orain arte guk bakarrik egiten genuen banaketa bat iaztik hona Gurutze Gorriarekin batera egiten dugu; eta horren eraginez, Gipuzkoako Elikagaien Bankuetara eskaera gutxitxoago dator. Zifratan begiratuta, 24.000 lagunetik gora banatzen genuen iaz Gipuzkoan, eta aurten gaude 22.000 inguruan. Hilabeteetan zehar, poliki-poliki murrizten joan da eskatzaile kopurua. Guk 4.000 lagun ingururi banatzen segitzen dugu gure esparruan.

Oraingo sasoi bereziari begira banaketa berezirik egiten duzue?

Urte osoko martxa jarraitzen dugu, baina garai honetan Gabontako elikagai bereziak etortzen dira: turroiak, pastak, gailetak... eta horiek hartu eta hilero ematen dugunaz gainera, horiek ere ematen ditugu. Eta, adibidez, badira garai batzuk esne aldetik nahiko justu ibiltzen garela, eta eskaera handia izaten dugu. Eta orain, berriz, esnea daukagu berritetik irtetzen. Eta kontsumitzeko epe motza duenez, ba, orain banatuko dugu normalean baino hiruzpalau bider gehiago.

Hemen lan handia egiten duzuela begi-bistakoa da, baina orain, gainera, aitortza esanguratsua jaso duzue, ezta?

Bai, XXI. Gipuzkoako boluntarioen saria. Eta berezia da; izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundian jaso arren, Gipuzkoan dauden gobernuz kanpoko elkarteek eurek erabaki dute elikagaien bankuetan lanean dihardutenak saritu behar direla. Hau ez da bankuei eman zaien saria, baizik eta boluntarioei eurei ematen dietena. Eta bada bultzatzaileak lanean segitzeko.

Beste mezuren bat nahi baduzu helarazi...

Eskerrak ematen gabilta etengabe, eta horretarako aprobeztatuko dut: Mutrikutik Gatagaraino dauden laguntzaile guztiei eskerrak emateko. Dena den, lana ez da sekula bukatzen eta bagabiltza esaten elikagaiak hartzera datozen laguntzera ere etor daitezten. Zein da boluntarioen lana izanda, ba atzo goizean, adibidez, Arrasatetik bertatik zortzi lagun etorri ziren, baita sei mutil gazte jator ere... baina batzuetan jendeak ezin izaten du etorri, nahiz eta etortzeko asmoa adierazi... Beraz, bai, ahal duena ahal denean etor dadila laguntzera hau guztia sailkatzen, eskertuko dugu, eta alde aurretik abisatzen badu, hobeto. Izan ere, ez da komeni ezer jakiteke hemen jende piloa batzea. Baina hamar bat laguneko taldeak ondo hartzen ditugu egunero-egunero.

Ez da medikua, baina gure osasuna zaintzen du.

Ez da ingeniaria, baina gure paisaia zaintzen du.

Ez da irakaslea, baina gure kultura zaintzen du.

Hori da geurea

Horrelakoak dira gure ekoizleak

Profesional handiak, guretzat elikagai osasungarri, samur eta naturalak ekoizteaz gain, gure osasuna, paisaia eta kultura zaintzen dutenak.

Horregatik, elikagai hauek kontsumitzea **ona da denontzat.**

Goi mailako kalitatea eta jatorri deitua duten elikagaiak

hazi

EUSKO JAURRIARITZA GOBIERNO VASCO

Elkartasunaren eta elikagaien kalitatearen alde

Euskarazko komunikabideen balio soziala aztergai, MUn

Goiena Komunikazio Taldean eta *Berria*-n egindako ikerketa pilotuen emaitzak aztertuko dira

U.M. | DEBAGOIENA

Euskarazko komunikabideen balio sozialaren gaineko ikerketa proiektuaren lehen emaitzak aurkeztuko ditu Mondragon Unibertsitateko Hezikom ikerketa taldeak datorren abenduaren 16an, eguaztana, Mondragon Unibertsitatearen Aretxabaletako campusean. 2014an eta 2015ean Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetza babesle nagusi dela egindako ikerketaren emaitzak dira, Goiena Komunikazio Taldean eta *Berria*-n egindako ikerketa pilotuan oinarritutakoak.

Horrekin batera, gai beraren inguruko ikuspegi orokorraren berri emango du Marti Petit iker-

tzaile katalanak, eta euskarazko komunikabideen balio sozialaren pertzepzio ezberdinak agertuko dituzte beste zenbait eragilek; batzuk aipatzearen, Iban Arantzabalek, Goienako zuzendari nagusiak, berba egingo du euskarazko herri ekimeneko komunikabideen pertzepzioaren gainean, Andoni Aranburu EITBK Estrategia eta Komunikazio zuzendariak EITBK duen pertzepzioa azalduko du eta Jose Luis Retolazak, Deustuko Unibertsitateko ordezkaririk erakundearen balio sozialak kuantifikatzeko metodologiak jardungo du.

Jardunaldiak 09:00etan hasi eta 13:45ean bukatuko dira.

'Benetako altxorak' daude aukeran Emaus-en IX. enkantean

Abenduaren 14ra arte (astelehena) egin daitezke eskaintzak, saltokietan

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Eskaintza onenak egiten dituztenek "benetako altxorak" eskuratzeko aukera izango dute Emaus-ek abenduaren 16ra (eguztana) bitartean abian duen IX. enkantean: "40 edo 50eko hamarkadetakako litografiatutako latorrizko hegazkin zein tiobibo bana, mahai-gaineko Nintendo bideokontsola bat ederki dabilena edo, bestelako jostailuen artean, *Mari Carmen* y *Sus Muñecos*-en imintzioa egiten duen panpina bat (mini *Doña Rogelia* besoa duena)", horiek dira batzuk, adibidez.

Ia 200 aukera

Guztira, 194 objektu osatzen dute enkantea. Bi eurotan eskura daitezke horietako merkeenak (Naranjitoren itsulapikoaren irteerako prezioa da hori, kasu) eta, gehienez jota, 80 euroko prezioa izango dute aukeran jarri-

tako objektuek (Ama Birjina bat da, adibidez, 80 eurogatik eskaintzan atera dena).

Edozein modutan, produktu gehienak 3, 5, 10, 15 eta 20 euroko prezioa dute enkanteko abiapuntu. Eta "benetako altxorrez" gainera, denetarik aurki daiteke Emaus-ek kudeatzen dituen Gipuzkoako hiru saltokietan enkante-atera ateratzen diren objektuen artean: Arrasateko EkoCenterren, Irungoan zein Donostiako EkoShop-ean, hain zuzen ere.

Hiru saltokietako aukeran

Izan ere, eta nahiz eta Emausen saltokiak Gipuzkoako hiru lekutan izan, edozeinek egin ditzake eskaintzak hiru saltokietako edozein produktu eskuratzeko.

Hori bai, eskaintzak gutxieneko formaltasuna jarraituta aurkeztu behar dira: idatziz eta gutun-azal baten bidez.

Hautetsontziak jarri dituzte horretarako Arrasaten, Irunen zein Donostian, notario batek lakratutakoak. Hiru hautetsontziak abenduaren 16an egingo duten erakusketara eramango dira, eta notario baten aurrean zabaldu, eta eskaintzarik onenak egin dituztenek eskuratuko dituzte eurek aukeratutako objektuak.

Arrasateko katalogoa

Arrasateko EkoCenterri dago-kionez, bertan aukeran jarri dituzten objektuen artean Erdi Aroko ezpata bat bada, antzinako krisiluak, golf karrotxo *vintage*-a, antzinako telefonoak, panpinak, eskulturatxo erlijiosoak... guztien artean objekturik garestiena liburuxka bat da, ornamentu metalikoak dituen loreen gaineko liburu bat, hain justu; 30 eurotan jarri dute. Eta, aldiz, objekturik merkeenak hiru eurotan jarri dituzte



Arrasateko katalogoan dauden objektuetako batzuk. | EMAUS

saltzen: hiru LP, paseatzera joateko eguzkitakoa eta konpasa gordetzeko kutxatila bat.

Jendea hasi da euren eskaintzak eramaten Arrasateko EkoCenterrean, Bidekurtzeta kalera. Oraingo astean iragarri denez

enkantea, asteburuan espero dute jende gehien, Jon Barkerok, Arrasateko EkoCenterreko arduradunak esandako moduan, "dena den, lehen egunean bertan (eguztana, abenduaren 9) ere etorri zen jendea", gaineratu du.

Debagoieneko gaztetxeak jardunaldiak egiten dabilta

Eguaztenean hasi ziren eta domekan bukatuko dira, liburu aurkezpen batekin

U.M. | OÑATI

Siriako egoera, sexu askapena, erabakitze eskubidea eta beste hizpide izan dituzte eta izango dituzte domekara bitartean Oñatiko Antixena gaztetxean, Debagoieneko VII. jardunaldien baitan. Hain justu, gaur, egubakoitza, Kitzika gazte taldearen eskutik landuko dute sexu askapenaren gaia -18:00etan- eta 22:00etan, berriz, Muskizko Marak kantaldia egingo du. Bihar, zapatua, berriz, *Erabakitze eskubidearen nondik norakoak* hitzaldia egingo du Unai Apaolazak, 11:00etan; eta 17:30erako gaztetxeen gaineko tailerra iragarri dute.

Datorren urtean

Etzi, domeka, bukatuko dituzte jardunaldiak, liburu baten aurkezpenarekin: Igor Meltxor idazlearen *Caso Bidegi, ¿a dónde ha ido a parar el dinero?*, Larraitz Ugarteren, Bide Azpiegituretako diputatu ohiaren, hitzaurrea duena -liburu bera aurkeztuko du Meltxorrek eguztenean Eskoriatzako Zaldibar aretoan, 19:00etan; baita bigarren bat ere: *Gestión a la Vasca*-

Bestalde, Oñatiko Antixena gaztetxeak antolatuta, Euskal Herriko gaztetxe eta gazte asanbladen topaketa Oñatin egingo da datorren urteko otsailean. Iaz Laudion egin zuten.

Eneko Atxaren eta Alberto Iñurategiren hitzaldia, Fagor CNAren eskutik

Bihar, zapatua, *Erronka* izenburu duen hitzaldian parte hartuko dute Eneko Atxa sukaldariak, Fagor CNA markaren enbaxadore moduan, eta Alberto Iñurategik, WOPeak proiektuaren enbaxadore moduan. 11:30ean da hitzordua, BBKn. Era berean, besteak beste, Fagorrek babes-tutako *2T on Chamlang* filma estreinatuko da; Iñurategik, Vallejok eta Zabalzak (WOPeak) egindako azken bidaia kontatzen du.

Mondragon Linguak AEBetako Global Word Inc. enpresa erosi du

AEBetako merkatuan behar besteko merkatu ahalmena izateko, Mondragon Linguak Global Word Inc. erosi du, New Jerseyko itzulpen-zerbitzuetako enpresa, zeinak Johnson & Johnson eta Liberty Mutual bezalako bezero garrantzitsuak dituen. Eragiketa honen bitartez nazioarteko ezarpenaren alde egin du kooperatibak, eta zerbitzu globalagoa eskaintzeko ahalmena indartu du.

HERRIKO DENDAK HERRIKO JENDEARENAK

Iratxeren
altzari-denda

Josebaren
gimnasioa

Aitorren
okindegia

Elsaren
fruta-denda

Lauraren
zapata-denda



Herriko dendak herriko jendearenak dira; jende langilea, lana sortu eta gure kaleak bizirik mantentzen dituena.

HERRIKO DENEK ZURE LAGUNTZA BEHAR DUTE, EZ HUTS EGIN

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIKORTASUN SAIA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO Y COMPETITIVIDAD

Ordezkaritza kurdua hemengo esperientzia ezagutzen izan da egunotan

Sei hizkuntza aktibistak Goiena, Durangoko Azoka, Emun, Arizmendi Ikastola eta beste ezagutu dituzte

U.M. | DEBAGOIENA

Kurduak oso sakabanatuta daude munduan, diaspora handia dute. Horrexegatik daude jabetuta Goiena Komunikazio Taldea moduko hedabide bat zein garrantzitsua den euren moduko egoera bizi duen herri baten kohe-siorako, zein hizkuntzaren eta kulturaren biziraupenerako. Eta hori abiapuntu, hainbat hizkuntza aktibista kurdu Debagoienean euskarazko komunikazioa lantzen duen kooperatiba bisitatzen izan ziren astelehenean. Besteak beste, zeregin hori betetzeko ze egitura eta ze finantzazio erabiltzen den ezagutzeko helburuarekin egin zuten bisita. Hizkuntzarekin ez ezik, hezkuntzarekin ere lotura duten ordezkariak dira Debagoieneko eta Euskal Herriko hainbat proiektu ezagutzen ibili direnak.



Kurduak Goienako erredakzioan, astelehenean. | JOKIN BEREZIARTUA

Euskara, euskal kultura...

Esperientzien elkartrukea oinarri duen Garabide kultura elkar-teak gonbidatuta etorri zen ordezkariak kurdua joan den zapatuan (abenduaren 5ean) Euskal Herrira, gaur arte (egubakoitza) etorri ere. Goiena tal-

dea bisitatzeaz gainera, Arantzazun ere izan dira, Durangoko Azoka ezagutu dute, Gipuzkoako Foru Aldundiko euskara plangintza, Emun, Huhezi, Kilmetroak ekimena, eta, bestelakoan artean, baita Arizmendi Ikastola ere.



Douglass idazlea erdian, Elustondoren hitzak entzuten. | MAITE TXINTXURRETA

Euskal diaspora, haren eraldaketa eta beste berbagai

'Amerikanuak. 40 urte' jardunaldia egin dute Huheziko campusean, diasporako adituekin

MAITE TXINTXURRETA | ARETXABALETA

Jon Bilbaorekin batera *Amerikanuak* liburua idatzi zuen William Douglass estatubatuarra Aretxabaletan izan zen herenegun, eguaztena, Huheziren campusean. Harekin batera, hainbat unibertsitateko ikerlariak eta diasporako ordezkariak hartu zuten parte *Amerikanuak. 40 urte* izeneko jardunaldietan; izenburu bera duen liburua "gizarteratzea" eta euskal diasporari buruz gehiago ikasteko helburuarekin antolatutako jardunaldietan, alegia.

Antropologo estatubatuarra emigrazioei buruzko tesi doktorea

egitera etorri zen lehen aldiz Euskal Herrira, eta, azaldu duenez, ia kasualitatez hasi zen euskal diasporari buruz ikertzen. Orain, berriz, gaian aditua da, eta *Amerikanuak* lana mugarririk bihurtu da diasporari buruzko lanen artean.

Aldaketa handia

Hain zuzen, 1975ean argitaratu zuten liburua. Orduetik hona AEBetan, eta bereziki Douglassen estatu, Nevada, asko aldatu da euskal gizarteak. Hark azaldu duenez, jada pasatu zen euskal artzainen aroa AEBetan, eta gaur egun oso gutxi gelditzen dira.

Tucson berria 18.900 €tik aurrera.

Aldaketa gure bizitzari lotuta dago. Berari esker sentazio berriak ezagutzen ditugu eta une beteak gozaten, gure irudimenaren motorra baita. Jarrera hori esker jaino da Hyundai Tucson auto berria. Bere itxura eta berrikuntza teknologikoez zure gidatzeko era aldatzen lagunduko dizute. Saia zaitze aldaketaren indarra ezagutzen: www.hyundai.es-en.

Hyundai Tucson Gama: CO₂ (gr/km) emisioak: 119-175. Kontsumo mixtoa (L/100km): 4,6-7,5.

OARSO CAR
GIPUZKOAN DEALER BAKARRA
www.oarsocar.com

HYUNDAI NEW THINKING.
NEW POSSIBILITIES.

OIARTZUN
943 49 48 30
Lintzirin poligonoa 1
(Leroy Merlin ondoan)

BEASAIN
943 80 40 54
Errepide nagusia
(Hotel Castillo ondoan)

ELGOIBAR
943 74 14 80
Olaso poligonoa 17

IRUN
943 63 97 69
Behobia zubia



Joseba Agirretxeak, Kongresurako EAJren hautagaiak, Garaia Berrikuntza Gunean jardungo du goizean

Gaurko, egubakoitza, egin du hitzordua EAJk Debagoienean. Jeltzaleek Arrasate bisitatuko dute lehenengo, 11:30ean Fagor Elektronikaren kanpoko aldean izango dira eta. Besteak beste, Diputatuen Kongresurako EAJren hautagai Joseba Agirretxea ondarrutarrak enpresaren gainean jardungo du. Horren ondoren, hauteskundeetarako prestatutako programaren banaketa egingo dute Arrasaten eta Aretxabaletan eguerdi partean, eta arratsaldean gauza bera egingo dute Eskoriatzan.

'Bildu independentziara' leloarekin Arrasaten egin du hitzordua datorren martitzenerako EH Bilduk

Gotzon Elizburu, Ander Rodriguez eta Amaia Larrañaga Arrasateko Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan izango dira abenduaren 15ean, *Bildu independentziara* leloarekin. EH Bilduren Gipuzkoako zerrendako kide dira, Diputatuen Kongresurako. Bestalde, joan den astean, besteak beste, Marian Beitialarrangoitia Kongresurako zerrendaburua Aretxabaletan eta Bergaran izan zen (kanpaina bezperan, azken horretan).

Odon Elortza hautagai sozialistak Arrasaten salatu zuen PPK pentsioen aurrezkietan egin duen "lapurreta"

PSE-EEko ordezkariak kanpainaren lehen egunean (joan den barikuan) bertan Arrasaten izan ziren, Kongresurako Gipuzkoako zerrendaburu Odon Elortza tarteko. Hark gogor kritikatu zuen Rajoiren gobernuaren lau urteotako lana, eta pentsioen gainean jarri zuen arreta. Gaurko, barikua, Arrasateko azoka txikian hitzordua egin dute, besteak beste, Senaturako Gipuzkoako hautagai Miren Gallastegik eta Arrasateko zinegotzi sozialistek.



Odon Elortza Arrasaten | GOIENA

ALBERTO GASTON • EMAUS-EKO ARDURADUNA

"Bigarren eskua 'fashion' da"

Idatzi diozu gutuna Olentzerori? Emaus Gizarte Fundazioko ordezkariak opari solidario eta sostengarriak eskatu dizkiote. Arrasateko eta Irungo EkoCenterretan eta Donostiako EkoShopean horrelako opariak egiteko ideiak lor ditzakegu. Abenduaren 9tik 16ra arte, enkantea egingo dute Arrasateko EkoCenterrean eta Gipuzkoako beste bi zentroetan. Baina horretan parte hartzen ez dutenek ere EkoCenterrean joateko arrazoi asko dituzte. Emaus Gizarte Fundazioko Ekonomia Solidarioko zuzendariak, Alberto Gastonek, azalduko ditu arrazoi horiek.

Zer aurkituko dugu Arrasateko EkoCenterren?

la denetik. Askotariko produktuak ditugu: arropa, altzariak, liburuak... eta bildumagileendako moduko artikulua ere bai; antzinako gauzak, dekorazioa...

Nola bizi du Debagoieneko jendeak bigarren eskuko gauzak erostea?

Igarri dugu bereziki Arrasaten aurreiritziak daudela bigarren eskuko erosketaren inguruan, lehen jendeak premiarengatik jotzen zuelako horretara. Donostian, aldiz, orain boladan dagoena, *fashion* dena, bigarren eskutik erostea da. Beraz, badago oraindik lan bat egiteko; izan ere, Arrasateko EkoCenterrean saltzen ditugu kalitate handieneko gauzak. Batzuetan, ia berriak dira; beste batzuetan, berri-berriak, stockean zeudenak eta erakunderen batek eman dizkigunak. Edozein kasutan, guztiz baleko produktuak dira. Banan-banan begiratzen ditugu, gainera; aparailu elektrikoak, alde batetik, garantia behar dutelako, baina baita bestelako produktu guztiak ere: altzariak, arropak... Erabiltzeko gutxieneko maila bat ematen dutela ziurtatzen dugu.

Norendako da Arrasateko EkoCenterra?

Guztiendako. Debagoienari ematen dio zerbitzua; beraz, bailarako herri guztietara dago zuzendua. Hori bai, antzeman dugu batez ere Arrasateko jendea etortzen dela bertako EkoCenterrean.

Berez, Foru Aldundiaren hondakinak kudeatzeko planean dago EkoCenterra, eta eskualde bakoitzeko bat egon behar litzateke, onura publikoko espazio bat delako.

Gure espazioek duten gauza ederra hau da: elkarbizitza polita dagoela horietan. Hala, alde batetik, benetako premia duen jendea aurkitu dezakezu; baita bildumagileak, antikuariak eta kontsumo arduratsua egin nahi duten gazteak ere.

Zergatik joan beharko genuke EkoCenterrean eta ez, esaterako, merkataritza-gune handi batera?

EkoCenterrean zoazenean, alde batetik, produktuen bizitza baliagarria luzatzen duzula; ia artikulua guztiak bigarren eskukoak direnez, dena erabili eta botatzeko-tzat duen gizarte kontsumistaren salaketa egiten ari zara.

Bestetik, ingurumen-balioa sortzen ari zara.

Horrez gain, txertaketa-enpresa bat da Emaus, eta gure langileetako batzuek enplegua aurkitzeko zailtasunak dituzte; beraz, balio soziala ere sortzen da. Eta, azkenik, aukera: oso prezio onetan eta lehiakorretan gauzak erosteko aukera.

Herritar batek edozein produktu Emausi ematen dionetik, ze pauso jarraitzen dira?

Bi kasuistika gerta daitezke: batetik, EkoCenterrean herritarra bera dator produktuarekin, ez duelako gehiago erabiliko, baina ez duelako bota nahi. Garrantzitsua da azpi-

Askotariko Produktuak jendeak banaka erabiltzen du begiratzen EkoCenterrean dituzte



Alberto Gaston, Emauseko Ekonomia Solidarioko zuzendaria.

marratzea ondo dauden produktuak hartzen ditugula, ez daudela botatzeko moduan. Hortaz, pertsona horrek EkoCenterrean gauzak uzteko aukerakun lekura ekartzen digu produktua. Gero, selekzioa egiteko gunea pasatzen da, eta langile batzuek begiratu egiten dute eta ikusten dute ea garbi dagoen, ea altzariak pieza guztiak dituzten, etxetresna elektrikoak probatu egiten dira... Balioztatzea eta gero, salgai ipintzen dira.

Hori izango litzateke aukera bat. Bestea da guri deitzea horretarako aukerakun kamioiarekin bultoa jasotzera joan gaitzen. Hori erosoagoa da norberak autoan eraman ezin ditzakeen gauzen kasuan, altzariak, adibidez. Horretarako, telefonoz dei diezaguke edo www.emaus.com webgunearen bitartez gurekin kontaktuan ipini.

Jasotzen duzun guztia jartzen da gero salmentan?

Ez. Artikulu batzuk ez daude salgai ipintzeko moduan; adibidez, zikina dagoen arropa edo ondo ez dagoen edozer gauza. Ahal denean, artikulua horiek ere kudeatzen ditugu, prozesuen balio-katean sartu daitezke. Badaude baimendutako kudeatzaile batzuk, produktua banandu eta

balioa ateratzen diotenak. Saiatzen gara zirkulua itxi dadin. Hala ere, kasu batzuetan, botatzea beste irtenbiderik ez da egoten.

Beste zer aurkituko du jendeak EkoCenterrean?

EkoCenterrean, definizioz eta hondakinak prebenitzeko planaren arabera, espazio berezia kontsideratzen da. Izan ere, eraikin berean, alde batetik, salmentaren gunea dago, gune ikusgarriena, sartu eta berehala ikusten dena; baina gero, hondakinak sailkatzeko lana egiten dugu, eta kamioiak deskargatzeko lekua ere badago.

Horrez gain, sentsibilizazio ekintzak ere egiten ditugu. Arrasaten, urtarrilean, ehunezko artikulua berrerabiltzearen inguruko ikastaroak emango ditugu. Arrasateko EkoCenterrean orain dela gutxi ireki genuenez, oraindik ez du ibilbide luzea, baina Donostiako zentroan kontzertuak, ekintza kulturalak, erakusketak... antolatzen ditugu.

Gure helburua da jendea etor dadila ez bakarrik gauzak erosteko, baizik eta baita kulturarekin, artearekin, hezkuntzarekin eta sentsibilizazioarekin lotutako gauzak gertatu direlako ere.



Emaus

Batzeetarako telefonoa: 943 77 18 71

ZABALIK

**AGURNE
JULDAIN**
goiena.eus/
komunitatea/



Pozik edo triste

Baditugu egunak pozik gaudenak eta beste batzuetan, aldiz, triste. Sentimendu hauek eguneroko sentimenduak dira. Gertaeren arabera modu batean edo bestean senti gaitetze. Baina guk ere egin dezakegu egun batean alaiago edo tristeago sentitzea.

Orokorrean, esan dezakegu gehienontzat Gabonak garai tristeak direla, batez ere adin batetik aurrera. Niretzat ez. Bizitza gogorra da, bai, baina, askotan, guk gogorrerago egiten dugula uste dut.

Gertuko norbait hiltzen bazaigu Gabon garai inguruan, batez ere Gabonak heldu baino apur bat lehentxeago, orduan, Gabonak tristeak izango dira, baina maiatzean, otsailan, urrian... hiltzen bazaigu, orduan, Gabonak, agian, ez zaizkigu hain tristeak egingo. Edota etxean haur txikien irribarrea izaten badugu, orduan, Gabonak pozik pasatzeko aukera gehiago izango ditugu.

Ba, nire kasuan ez. Niri ere gertukoak hil zaizkit, Gabon garaitik gertu eta urrun, baina nik Gabonak pozik pasatzea aukeratu nuen orain dela urte batzuk. Gogorra da Gabonak maite dituzun horiekin ezin pasa izana, baina joandakoek zu triste egotea nahi dutela uste duzu? Ni ziur nago ezetz!

Norberaren aukeran zati handi bat dago pozik edo triste egoteko egun batean edo bestean, eta, bizitza gogorra izanda ere, norberak topa dezake pozik egoteko aitzakia, haur baten irribarrea izan gabe. Norberak egin diezaiokie irribarre bizitzari; zentzuz, baina irri.

Ez al da polita Gabon egun hauetan herritik pasean joan eta ditugun argi politikak ikusi eta kantu alaiak entzutea? Egin irribarre eta sentitu pozik, bizitza bakarra dugu eta; tristetia da dugun bizitza bakarra izanik triste bizitzea. Ala ez?

'Ezustean' iritzi zutabeari buruz

Leire Etxeberria
(Goienaren irakurle bat)
Oñati

Aintzane Oiarbidek dio ezustean harrapatu duela Goienako Erredakzio Batzordeak hartutako erabakiak. Ni ez, eta txalotzen dut erabaki hori, arazoizkoa iruditzen zaidalako.

Irudipena neukan Oiarbidek zaborren eta hondakinen gaia behin eta berriz jorratu duela *Azken berba* zutabeetan. Baina objektiboa izan nahian, hemerrotekara jo dut. Eta gai horrekin lotutako idatzien kopurua uste nuena baino handiagoa da: Oiarbide, gutxienez, 19 iritzi artikulutan aritu da atez atekoaren kontra, 2011tik hona. Ezin esan Goienak ez dionik gai horri buruz duen iritzia emateko lekurik eskaini.

Badut, gainera, sentsazioa Oiarbidek zutabea alderdikieriaz erabili duela askotan; bereziki zaborren gaiarekin, baina baita beste gai batzuekin lotuta ere. Zer da alderdikieria? "Alderdi jakin baten iritziekin bat egitea edo haiei men egitea, interes orokorra aintzat izan gabe". Beste era batera esanda: alderdi jakin baten ideiak interes orokorreko gisa aurkeztea. Propaganda egitea, alegia. Hori ere adierazpen askatasunaren parte izango da, baina komunikabide publiko batean iritzi zutabe bat alderdikieriaz erabiltzea ez da etikoa, nire ustetan. Hori ez al da "marra gorria gainditzea"?

Oiarbidek 2012ko apirilean idatzitako zutabe batean honela zioen: "Iritzi desberdinak errespetuz eta baldintza berdinetan adieraziz, edozeinek du aukera esaten dena egia, gezurra edo erlatiboa den epaitzeko". Eta "baldintza berdinetan adieraztea", horixe da Goienatik eskatu diotena. Ez besterik. Izan ere, guztiok ez daukagu hilabetero zutabe batean gure iritzia emateko aukerarik.

Baliteke nire iritzia bakarrik izatea, baina herritar xume bezala –ez naiz politikaria, ez nago inongo alderdi politikarekin lerrotatuta– asper-asper eginda

GUTUNAK

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta telefona. Gutuna helarazteko bideak dira:
Otalora Lizenziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

nago gai serioekin egiten den erabilera politikoaz. Goienako zutabeetan iritziak irakurri nahi ditut, alderdien sigletatik harago, eta ez alderdien arteko tirabirak.

Gu ere Inorekin gaude

Oihana Aranburu, Yolanda Perez de Arenza, Izadi Mondragon, Juan Mari Sampedro eta Arkaitz Biain
Arrasate

Abenduarekin etorri da zoritxarrez ohituak gauden beste *makrosumorario* baten epaiketa.

Bertan gure herrikidea den Ino Galparsoro izango da epaitua. Aski ezaguna da Ino Arrasaten, egunerokoan nahiz garai ezberdinetan senide, lagun, herritar, lankide, militante, zinegotzi edota alkate bezala. Eta azken eginbeharrak honetan, 2008an, arrasatearron harridura eta saminerako, kartzelaratua izan zen.

Arrasaten eta oro har Euskal Herrian, gaur egungoarekin alderatuz, eta itxura baten, garai zailagoak ziren, ikuspegi batetik gatazkatsuagoak, eta Inoren kartzelaratze horrekin Espainiako Estatuaren ahultasun eta mendeku gosea ikusi ahal izan genuen.

Beste askorentzat bezala eta beste bizipen batzuk gutxiesteko asmorik gabe, Inorekin batera Arrasateko Udaleko gobernu taldeko kide izan ginenontzat kolpe benetan gogorra izan zen.

Politikoki nahiz emozionalki muturreko egoera baten aurkitu ginen, pertsona, lagun, alkate eta lankide bezala

suposatzen zuen guztiagatik. Hiru hilabetez, bizi genuen gatazkaren trukeko txanpon mediatiko eta morala izan zen Ino.

Horrelako mugimenduekin lasaitu eta lasaitzen jarraitzen ditu Espainiako Estatuak bere tresneria polizial, judizial eta, azken finean, politikoen bitartez, euskal gatazkaren alde bateko kaltetu, edozein aurrerapenen aurrean aztoratzen diren gatazkaren onuradun makur, edota dagoeneko besterik ikusteko itsutuegi dauden zenbait norbanako eta kolektibo.

Eta parez pare datorkigun epaiketa berri honekin 2008an gauden sentsazioa datorkigu, duela hilabete batzuk Euskal Herriko tabernek iritzi edota azken asteotan Askapenaren aurkako epaiketarekin bizi izan dugun bezala.

Aurretik esandakoarekin jarraituz, duela urte batzuk garai ilunagoa bizi genuen, baina, egia esan, epaiketa hauek eta, oro har, Espainiako Estatuak euskal gatazkaren konponbidearen aurka egiten dituen mugimenduek askatzeke daukagun korapiloa bere horretan uzteko interesa baduenik frogatzen dute. Euskal Herrikeri etorri dira azken urteotan konponbiderra begirako jarrera eta urratsak, baina Espainiatik, tamalez, atzerapauso eta soka tenkatze saiakerak besterik ez.

Hala ere, laino ilunak eta ekaitza nahiago dituztenei hobekien dakigunarekin erantzuteko dei egin nahi diogu Arrasateko herriari: abuztuan zoritxarrez joan zitzaigun Patxi Arburua taldekide eta lagunaren izaeraren isla fidela den inurri-lanarekin, eta maite ditugunak zainduz. Hauek dira

2008an Inok jasotako babesaren osagaiak, eta hauek dira gaur egun ere korapiloa askatzeko beharrezko lanabesak.

Zaborra

Jon Errasti Iriarte
Eskoriatza

Eguerdian, ETBn entzun dut bazkalosterako Eskoriatzako boto-emateen erdiak-edo berea emanda zeukala. Ni ez naiz joan, ez dut botorik eman, galdeketa hau aginteko eta oposizio taldeen inkompetenziaren zurrutza baino ez delako eta botoa emateak edozein gai bataila bihurtzen duen lehia politikaren konplize egiten gaituelako.

Parisen eragiten dugun desastreaki konponbidea jarri nahian bilduko dira astelehenetik aurrera; susmoa daukat han ere ez dela ezer ganorazkorik erabakiko. Gu, berriz, hondakinak nola batu bozkatzan, gaizta ezaupiderik gabe erabat teknika dena erabakitzen. Hiritarrok hondakinak bereizita aterata behar ditugu bai ala bai, gure obligazioa da, aitzakiarik gabe, eta zein den hori batzeko modurik efizienteena ez da iritzi kontua, irizpide tekniko eta datu kontua baizik, eta, horretarako, badira adituak, badira esperientziak, eta horiek entzunda erabakia hartzea politikarien, guztien, eginbeharra da, eta baita, helburuak bete ezean, sistemari zuzenketak ezartzea. Hiritarroki dagokiguna erabakioi betetzea da, ez sistemarik egokiena hautatzea jolastea, sistemaren egokitasuna ez baita aukera kontua. Egokiena bat da, eta punto. Nola da posible iturri beretik datu diferentek aurkeztea? Zer ezkututzen da "sistema erosoaren" argudiopean? Hondakinak biltzeko sistema *inposatu* zaion horri, noiz galdetu diote, ontzi berdea jarri zenean? Horiarekin, akaso? Sistema ahalik eta erosoena izan behar da, jakina, baina, hori baino gehiago, eraginkorra izan behar da, ahalik eta tarte txikiena utziaz zabarkeriak bilketari eragin diezaiokkeen kalteari.

Nik honen guztiaren atzean arerioaren lana oztopatzeko

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizenziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagirre
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailtetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Inaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetzatzailea Marta Leturia.
Administratzailea Agurtzane Gaintzarain, Ane Berrebar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizenziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizenziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizenziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

Legue Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Difusioa: 18.507 ale

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza
diruz lagundutako
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Jon Gonzalez | Hampton Osagarriak dendan jabea

"Osagarri eksklusiboak prezio ezin hobean ditugu"

Bitxiak, erlojuak, poltsak eta beste dituzte Jon Gonzalez arrasatearrak eta Ane Fernandez de Retana emazteak; orain dela bi urte zabaldu zuten lehenengo denda Durangon, eta orain dela hiru hilabete, bigarrena, Gasteizen

Ondo baino hobeto eza-gutzen dute osagarrien mundua Jon Gonzalez eta Ane Fernandez de Retana senar-emazteek. Zer da Hampton?

Produktu eksklusiboak dituzten dendak dira eta han eskura daitezke zilarrezko bitxiak, erlojuak, poltsak, eskularruak... hau da, era guztietako osagarriak. Indar handiko irudia dute komertzioek kanpotik, eta barrura sartuta prezio benetan lehiakorrek ditugu. Prezioaren eta kalitatearen arteko harremana asko zaintzen dugu.

Idea zelan sortu zitzaizuen?

Erloju etxe bateko agente komertziala nintzen ni eta emazteak Durangoko bitxi-denda batean egiten zuen lan; hain zuzen, han ezagutu genuen elkar. Denda hura itxi egin zuten eta orduan bururatu zitzaizdan bion jakintzak bateratu eta Hampton zabaltea.

Hortaz, eskarmentu handia duzue.

Familian guztiak dira enpresariak eta nik ere gaztetatik egin dut lan bezeroen aurrean. 18 urterekin bitxi-denda zabaltzeko aukera izan nuen eta lau urte egon nintzen Oñatin; oso pozik egon ere. Madrilgo etxe bateko agente komertzial izateko aukera eskaini zidan, eta, saltsa guztietan sartzea gustuko dudanez, sei urtez ibili nintzen bitxiak eta erlojuak saltzen. Bidaia asko egin ditut, gainera, Italiara, Suitzara... eta badakit zer datorren.

Nondik dator izena?

Denden irudia indartsua izan



Jon Gonzalez arrasatearra Gasteizen duen dendan. | HAMPTON

dadin gura izan dugu beti, eta horrekin lotuta bururatu zitzaizgun. Hampton da estatubatuar aberatsak oporrak pasatzera joaten diren tokia.

Hamptongo osagarrien ezaugarriak zeintzuk dira?

Poltsai dagokienez, ez dira marka ezagunak, baina bai eksklusiboak. Greziako etxe bati erosten dizkiegu, eta hori, Guess, Maichel Kors eta antzekoetan oinarritzen da; horri esker, 60 euroren bueltako produktuak ditugu. Bitxien kasuan, ez dugu bisuteriarik. Italiatik ekartzen dugu asko eta Espainiakoak ere baditugu; Salvatore, esaterako. Erlojuei dagokienez, moda

-modan dauden Daniel Wellington etxeok dauzkagu, eta Mr Boho ere bai. Gabonei begira Albert Pons etxea sartu dugu; garestiagoda, baina merezi du, erabiltzen dituelako zilarra, 18 kilateko urrezko xaflak, turmalinak, diamanteak, errubiak...

Bezeroek zer topatuko dute Hamptonen?

Esklusibotasuna prezio ezin hobean eta tratu pertsonala. Hain zuzen, *personal shopper* ikasketak egiten hasiko naiz laster. Durangoko dendan lekua daukagu, eta bezeroak aholkatu gurako genituzke.

Eta non topatuko ditugu dendak?

Orain dela bi urte zabaldu genuen Durangoko denda, Montevideo kalean dago, gaztetxearen alboan. Eta orain dela hiru hilabete Gasteizen ere bagaude, Ortiz de Zarate kalean, guardiako botikaren alboan. Facebooken ere bagaude; bezeroekin kontaktua zaintzen dugu horrela.

Gabonetarako baduzue kanpainarik?

Dagoeneko abian daukagu. Olenzero egunerako opariak gaur eros ditzakezu eta gero aldatzeko epea oparia emandako egunetik kontatuko dugu, ez erositako egunetik.

Zelakoa da Jon Gonzalez en egun bat?

Errotzeko modukoa! Denda bi ditugu eta sei hilabeteko umea; atera kontuak. Gogorra da, baina abian jarritako proiektuan sinisten dugu, ilusioz gainezka gaude eta indarrak edonondik ateratzen ditugu.

Etorkizunerako desio bat.

Asmo handiak ditugu, baina ez dugu bizkorregi joan nahi; izan ere, oso denbora laburrean zabaldu ditugu bi denda eta umea izan. Aurrera begira hainbat proiektu ditugu, horien artean geure linea sortzea. Hortaz, ate mordera zabalik eta horiekin aurrera egiteko gogo izugarria.



Poltsa eskaintza handia. | HAMPTON



Gasteizko denda barrualdetik. | HAMPTON

"Kalitatea, prezioa eta tratua dira gure oinarriak"

"Proiektu asko ditut; geure linea sortzea, adibidez"

H
HAMPTON
OSAGARRIAK



Ortiz de Zarate 17 • GASTEIZ • 945 03 32 09 / Montevideo 3 • DURANGO • 946 05 62 95
hamptonosagarriak@gmail.com

Santamasetarako egitaraua, 'Sabiñe' txerria bezain potoloa

Herri bazkarirako txartelak salgai, Bengoa, Kajoi, Ederra eta Amaieur tabernetan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Gizendu jaku txarrisa, eta herrixa saltoka ibiltzeko gogotsu dago... Badatoz hainbat arrasatearren dako jairik kutunenak diren santamasak. Komisiñoak, herriko kultura taldeek eta Udalak eguztenean aurkeztu zuten kartela eta egitaraua, ekintza zerrenda luze batekin eta hainbat nobedadekin. Hori bai, aurten ere txerria izango da jaietako ikurra: euskal txerria da, *Sabiñe* du izena eta Udala auzoko Uxarte etxetik dator: "Potolo-potolo dator eta itxura ederrarekin, urtero moduan".

Aurkezpenean, historian atzera egin zuten azokaren jatorria azaltzeko. 1351ko irailaren 20ra egin behar da atzera horretarako: "Egun hartan sinatu ei zuen Gaztela eta Leongo Pedro I.a erregeak, Valladoliden, abenduaren 21ean, 22an eta 23an Arrasateko azoka nagusia egiteko baimena", dio Komisiñoako Oihan Vitoriak.

Alkatearen esker on hitzak

Kultura taldeek eta Komisiñoak antolatutako ekintza gehienak, betiere, Udalaren laguntzarekin. Horregatik, Maria Ubarretxena alkateak eskerrak eman zizkien eragile horiei guztiei. Eta gaine-



Altuna, Vitoria, Ubarretxena eta Mendieta, Portaloian, aurtengo kartelarekin. | J.B.

ratu zuten aurrerantzean herriko jai guztietan Udalak parte-hartze "aktiboagoa" izango duela: "Ekin-tzetan parte hartzea gonbidatu, eta bizikidetzan eta sexu erasorik gabe jai zoriontsuak ospatzera deitzen zaituztet". Komisiñotik ere, antzeko mezua: "Gozatu azokaz, mokaduez, ikuskizunez, dantzez, kantuez, bazkariak eta lagunartean, gertuen falta ditugunak gogoan eta umorea aldean".

Bazkaria eta pilota partidua

Musakolako kiroldegian egingo den herri bazkarirako txartelak atzotik daude salgai, Bengoa, Kajoi, Ederra eta Amaieur tabe-

netan, 18 eurotan. Bestalde, Bengoetxea VI.ak eta Untoriak eta Irribarriak eta Zubietak eskuz binakako txapelketa barruan jokatuko duten partidurako txartelak Monte eta Buenuena tabernetan daude salgai, 20 eurotan.

Jaietarako aurrekontuaren berri ere eman dute egitarauan, gastu bakoitza ondo zehaztuta: ekintza guztietarako 93.545 euroko partida bideratu da.

Egitaraua osorik ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



JOKIN BEREZIARTUA

Zubiaga, 55 urtez erreferente

Zubiaga bitxitegiaren denda berriak abenduaren 3an ireki zituzten ateak. Hainbat arrasatear elkartu ziren 55 urte luzez Maalan kokatuta egon den bitxitegiaren lokal berriaren irekiera egunean. Seber Altube plazan egongo dira aurrerantzean, orain arteko ilusio berberarekin. "Eskerrik asko urteotan gurekin egon zareten guztioi!", diote.

Abandonatutako katuen alde lan egiten duen Kaonbi elkarteak bigarren eskuko azoka egingo du bihar

Kaonbi elkarteak bigarren eskuko elkartasun azoka antolatuko du biharko Biteri plazan, 10:00etatik 14:00etara. Denetarik jarriko dute salgai: jostailuak, liburuak, poltsak, prakak, kamisetak, txaketak, askotariko bitxiak... Azokan lortutako dirua herriko abandonatuta agertzen diren katuak zaintzeko bideratuko da. Gainera, antolatzaileek "asko" eskertzen dute katuendako onuragarriak izan daitezkeen gauzak jasotzea: "Janaria, mantak, botikak, ohetxoak... Dena da ongietorria", adierazi dute.

GABONAK hemen dira

Noiz: Abenduaren 12an eta 19an
Ordua: 11:30-13:30/16:00-19:00
Tokia: Biteri plazan

Noiz: abenduak 31
Ordua: 12:00
Tokia: Ibai-Arteko saltokietan

Banaketa: abenduak 19
Ordua: 13:30
Tokia: Herriko Plaza

Izotz pista Biterin, herriko ekonomiaren pizgarri izan nahian

Abenduaren 23tik urtarrilaren 6ra jarriko dute; ordu erdiko erabilera euro bat kobratuko da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Patinatzeko izotz pista jarriko du Udalak abenduaren 23tik urtarrilaren 7ra –urtarrilaren 1ean itxita egongo da–, Biterin plazan. Ordu erdiko erabilera euro bat kobratuko da. Horrez gain, Udalak herriko ekonomia sustatzeko pizgarri gisa ikusten du izotz pista: "Erdigunean horrelako zerbitzu bat eskaintzeak herriko jendea erakarriko du eta herri barruko jende mugimendua sortuko du, dinamizaziorako motor garrantzitsu bihurtuz. Merkataritzak eta ostalaritzak mugimendu handiagoa eta salmenta gehiago izango ditu. Eta kanpotik etorriko den jendeak herrian erosketak egingo ditu", diote.

Publizitatea jartzeko deia
Pistak 11,8 metro izango ditu zabaleran eta 14,5 metro luzeran, eta 171 metro koadro okupatuko ditu. Udalak dendei eta enpresei dei egin die pistaren hesietan publikitatea jartzeko: "Gabon garaia momentu interesgarria izan daiteke Arrasa-

teko eta inguruko herrietako biztanleei eta bezeroei mezu jakin bat helarazteko, edo jai hauetako erosketak zuenean egitea gogorarazteko, edo urtean zehar izandako leialtasuna txalotzeko". Publizitatea jarri gura dutenek kirola@arrasate.eus helbidera idatzi edo 943 77 16 77 telefono zenbakira dei dezakete.

6.900 txartel inguru saltzea
Izotz pista ekartzeak 21.558 euroko aurrekontua izango du. Gastu horietan sartzen dira pista-aren alokairua, Txatxilipurdiko dinamizatzaileen kontratazioa, Alkideba enpresaren itxitura zein kabinaren alokairua eta Eguzkigrak enpresari txartelak inprimatzeko ordaindu beharrekoa. Hala ere, Udalak gastu horri aurre egiteko kontuan hartu ditu sarreraren salmenta –6.900 txartel inguru salduko direla kalkulatu dute– eta izotz pista inguratuko duten hesietan jarriko den publikitatea; hortik 15.218 euroko sarrera lortzea espero da.



Iaz Bergaran jarritako izotz pistaren oso antzekoa ekarriko dute. | JULEN IRIODON

Bihar ospatuko dugu jostailuen Truke Eguna, Azoka Plazan

KOMUNITATEA GOIENA
TXATXILIPURDI | ARRASATE

Hiru astez jostailuak batzen aritu ostean, bihar egingo dugu Truke Merkatua. Azoka Plazan izango da, 11:00etatik 13:00etara. Pertsona bakoitzak jostailu bat hartu ahaliko du, askotan soberan gelditzen direnak haur txikitxoeren jostailuak izaten direlako eta guraso berriek ez dutelako izaten trukea egiteko aukerarik. Amaieran soberan gertzen diren jostailuak herrian beharra dutenen artean banatuko ditugu. Aurten, nobedade gisa, trukea egiten den momentuan jostailuak sortzeko tailerra ere egingo da.

Ibai-Artek bezeroei opariak eginez ospatu gura ditu Gabonak

Ibai-Arteren Gabonetako kanpainaren barruan, dagoeneko hasi dira Erregeetako loteriarren partaidetzak banatzen –89.169 zenbakia–. Bihar eta hilaren 19an, 11:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, puzgarriak eta jolasak ipiniko dituzte Biterin. Gainera, Gabonetako produktuz osatutako 100 otzara banatuko dituzte Ibai-Arteko txartelarekin erosketak egiten duten bezeroen artean. Abenduaren 19an banatuko dira otzarak Herriko Plazan, 13:30ean. Azkenik, urtea ondo amaitzeko, cava banatuko da doan eguerditik aurrera merkatarien elkarte-komertzioetan.



Aramaio erreka berde kolorez

Goienako erredakziora heldu zen argazkian ikusten denez, "berde fluor kolorez" agertu zen Aramaio erreka astelehen goizean, Maala inguruan: "Ikertzen ari dira nork bota zuen eta zertarako, baina halako koloratzaileak erabiltzen dira azterketak egiteko, adibidez, urguneen edo urtegien ibilbideak jakiteko", jakinarazi du Udalak ohar bidez.

Aurrekontuak lantzeko bilera EH Bilduk deituta

J.B. | ARRASATE
EH Bilduk 2016ko udal aurrekontuak lantzeko bilera irekia deitu du biharko Kulturategi Jokin Zaitegi aretoan (11:00). EH Bildu taldeak herritarrekin batera landu gura du gaia: "Inoiz baino behar handiagoa dugu guztion artean elkartu eta bat eginik herrigintza herritik bultzatzeko. Urtearen amaiera honetan aurrekontuen eztabaidaren atarian gaude. Eta bertan PNVk eta PSOEk garatu nahi dituzten planteamenduak agerian gertatuko direnez, erantzun bateratua osatu nahiko genuke", adierazi dute.

Alejandra Pazos

Pinpilin estetika zentroko arduraduna

"Bezeroa gurekin dagoenean lasai eta gustura egon dadila da nire helburua"

Ederetasuna lantzeko tratamenduz gain, Pinpilinek etxean moduan egoteko aukera eskaintzen dio bezeroari; bere lana maite duen aditu baten gertuko zerbitzua, preziorik onenean

Ile-apaindegietan "aspaldi" hasitako abenturak abuztuan irekitako estetika zentro propioarekin du jarraipena gaur egun. Izen handiko profesionalak izan ditu ondoan orain arteko ibilbide luzean.

Nola amaitu duzu estetikaren munduan? Istorio luzea da. Ile-apaindegietan hasi, estetikarekin jarraitu, eta antzerkiaren munduan bukatu nuen. 14 urterekin Galiziara joan nintzen estilismo ikasketak egitera, bost urtez, eskola profesional batera. Gerora, ospe handiko Andres Muñiz [Urrezko Artazia hainbat urtetan] ezagutu nuen Santiago de Compostelan; harekin hasi nintzen lanean Gali-



Alejandra Pazos, abuztu hasieran ireki zuen Pinpilin estetika zentroan.

“ Lana izugarri gustatzen zait eta maite dut jendearekin egotea. Gainera, prezioak ahalik eta gehien estutzen saiatu naiz; betiere, bezeroengan pentsatzen **”**

ziako telebistan eta Espainiako telebistarako ere egin genituen zenbait lan. Muñizen bidez ere antzerkia ezagutu nuen; hark bultzatu ninduen nire ibilbide propioa abiatzera. Gero, amodio kontuengatik itzuli nintzen Euskal Herrira, eta Aretxabaletako Tximac ile-apaindegian

eta Arrasateko No Más Vellon ibili nintzen. **Pinpilin aspaldiko asmo baten emaitza da, beraz.** Bai. Kosta zitzaidan estetika zentro propioa irekitzeko urratsa egitea, inbertsio handia da eta. Jendearengandik jasotako maitasunak animatu ninduen pausoa ematera.

Abuztuan ireki zenuen. Lehen astean. Lana izugarri gustatzen zait, maite dut jendearekin egotea. Tratamenduz harago, bezeroa gurekin dagoenean lasai eta gustura egotea, egunerokotik deskonektatzea nahi dut. Prezioak ahalik eta gehien estutu ditut, jendearengan pentsatzen.

RPS: 213/15. Ez da osasun zentroa.

Pinpilin Estetika

Tel: 943 08 02 80 - 695 71 88 81
Otalora Lizentziaduna 22 - Arrasate
www.pinpilin.com - info@pinpilin.com

Harreman pertsonalizatua
Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
Argi bidezko depilazio eta tratamenduak
Depilazioa elektrikoa eta anaforesia
Betileen tindatze eta permanentea

Lipolaserra
Vacumterapia
Presoterapia
Kabitazioa
Irrati-frekuentzia



Maria Ubarretxena saria ematen Janne Valkeajoki irabazleari. | IMANOL SORIANO

Arrasate Hiria Akordeoi Lehiaketak "egundoko" izena dauka nazioartean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Joan den aste bukaeran 300 akordeoi jotzaile baino gehiago izan ziren Arrasaten. Akordeoi lehiaketeki eta jaialdiei esker, beste urtebetez akordeoiaren nazioarteko hiriburu bihurtu zen Arrasate asteburu batez. Arrasate Hiria Nazioarteko Lehiaketan hamaika lagunek hartu zuten parte eta Janne Valkeajoki finlandiarra izan zen irabazlea; txapela, garakurra, diploma eta 3.600 euro irabazi zituen. Bigarren saria Txinako Shen Wang-ek irabazi zuen eta hirugarrena Errusiako Arse-

niy Stokovskiy-k: "Urte urte hobea den esatea zaila da baina maila altua izan da aurten ere, oso altua", dio Hauspoz elkarteko Aitor Furundarenak. Antolatzaileak "oso gustura" daude: "Bertakoa zen hasieran eta gero nazioartekoa egin genuen. Gaur egun, kanpoan egundoko izena dauka Arrasateko lehiaketak".

Bestalde, Arrasate Musikaletik Iker San Jeronimo eta Lide Zubia aurkeztu ziren lehiaketara; diplomez gain, urrezko eta zilarrezko dominak irabazi zituzten, hurrenez hurren.

'Vinyl' filma hilaren 17an Amaian, Kooltur ekimenak antolatuta

Kooltur Ostegunak ekimenari esker, *Vinyl* filma ikusi ahalko da abenduaren 17an Amaian (22:00); sarrera, bost euro. Aurretik Last Fair Deal musika taldearen emanaldi akustiko laburra egongo da eta gero filma aurkeztuko dute Marcos Garcia eta Mikel Insausti zuzendariek, Jose Luis Olabeaga, Iñigo Arzallus eta Jose Joaquin Forcada aktoreekin batera. Proposamen interesgarria, zalantza barik.

Txikilandiako hezitzaile bila dabil Txatxilipurdi

Urtarrilaren 2an, 3an eta 4an Uarkapen egongo den Txikilandia Gabonetako parkerako hezitzaile bila dabilta. Arrasatekoa izan behar da eta aintzat hartuko dira aurretik Txatxilipurdi lan egin izana, begirale titulua izatea eta lan esperientzia izatea. Abenduaren 15era arteko epea dago curriculum kultura@txatxilipurdi.com helbidera bidali edo Txatxilipurdiaren bulegoan aurkezteko (943 79 54 46).

Gabonetako argi apaingarriak piztuta, Olentzero noiz etorriko zain daude herriko neska-mutikoak

Udalak ekitaldi berezi batekin piztu zituen Gabonetako argiak abenduaren 4an. Goikobaluko neska-mutikoek Gabonetako zenbait kantu abestu ondoren, Gureak enpresako langileak izan ziren, atzerako kontu baten ostean, argiak pizteko arduradunak. Apaingarrien kostua 20.000 euro ingurukoa da eta urtarrilaren 7ra arte egongo dira piztuta. Udal Gobernu berriaren erabakia izan da Gabonetako argi apaingarriak jartzearena; izan ere, 2007az geroztik ez dela halakorik egiten Arrasaten.



Erdiko kalea Gabonetako argi apaingarriak piztu eta gutxira. | JAGOBA DOMINGO

San Nikolas Eguneko ospakizuna arrakastatsua izan da erdigunean eta herriko zenbait auzotan

Abenduaren 6a egun berezia da; bereziki, ume eta gaztetxoendako. Etxe partikularretan egiten diren boloz harago, badira hainbat urte Udalak Herriko Plazan antolatzen duena bolo nagusia. Baina zenbait auzotan ere aspaldiko ohitura ez da oharkabea pasa: Musakolan eta Urribarrin ere ospatu dute aurten. Gainera, Gorostizako zenbait haurrek eta gurasok baserritar jantzi ospatu dute aurten San Nikolas Eguna: "Eskerrik asko bizilagunei, fruitu lehorrak, polboroiak eta gozokiak banatzearen!", adierazi dute.



Gorostizako auzotar talde bat ohitura berreskuratzen ari da. | MELINA LOPEZ

Santa Eulalia jaiak ospatuko dituzte Bedoñako auzotarrek asteburuan

J.B. | ARRASATE

Aste bukaera berezia dator Bedoñako auzotarrendako; izan ere, Santa Eulalia jaiak ospatuko dituzte gaur iluntzean hasi eta domeka arratsaldera arte. Auzoko elizaren izena hartzen dute festek, eta, urtero moduan, haur, gazte zein helduendako egitarau zabala prestatu du auzoko batzordeak: haurrendako jolasak, Gorriti eta haren animaliak, txokolate eta gaztaina erre jana, kantu-afaria, doke txapelketa...

Portaloikoak kantu afarian

Bihar, zapatua, egingo dute urteroko kantu afaria, Errastiko jatetxean. Portaloiko elkarteko girotuko dute afalostea eta saski ederra zozketatuko dute bertaratutakoen artean.

Domekan, berriz, urtean zehar hildako auzotarren omenezko meza egingo dute; ohitura denez, Garagartzako abesbatzak ere hartuko du parte.

JAIETAKO EGITARUA

ABENDUAK II OSTIRALA

19:00 Jaien hasiera, suziriekin.

19:30 Patata-tortilla eta postre lehiaketa Loramendi elkartean. Sariak hiru onenendako.

ABENDUAK 12 LARUNBATA

11:30 Eskola-etxean, ume eta gazteendako jolasak.

15:30 Gorriti bere animaliekin egongo da Elizondan.

17:00 Eskola-etxean, txokolate eta gaztaina erre jana.

18:00 Mus eta briska txapelketak Loramendi elkartean.

21:00 Kantu-afaria Errastikon.

ABENDUAK 13 IGANDEA

11:30 Doke txapelketa.

12:30 Meza nagusia hildako auzotarren omenez, Garagartzako abesbatzaren partaidetzarekin. Ondoren, Loramendi elkartean, auzoko ogia, gazta, txorizoa, txakolina eta salda beroa dastatzeko aukera egongo da.

carrascaladapt
sukaldeak bainuak armairuak

ZEURE NEURRIRA
ZEURE GUSTURA



Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • ARRASATE • Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com



MIREIA LARRANAGA

Udalarekin euskaraz egitearren

Arrasateko Udalarekin ere euskaraz kanpainaren barruan, Hibi Zabala eta Izaskun Unamuno izan dira azken sarituak. Ibai-Arten gastatzeko 75 euroko bonua eta Goienak argitaratzen duen *Puntu* aldizkariaren urtebeterako bazkidetza irabazi dute. Hilaren 13an amaituko da kanpaina, eta datorren astean jakinaraziko dituzte azken irabazleak.

Harremanen aldeko kontzertua egingo du Goikobaluk gaur

San Frantzisko Xabier elizan izango da emanaldia, 20:00etan hasita

XABIER URZELAI | ARRASATE

"Urteak daramatzagu Harreman gobernuz kanpoko erakundearekin kolaboratzen, eta dakiguna eginez laguntzen diegu, abesten", adierazi du aste barruan Goikobaluk abesbatzako kide Juan Antonio Barriocanalek.

Gaur, egubakoitza, Goikobaluren kontzertu berezia izango da San Frantzisko Xabier elizan (20:00), eta, urtero legez, mimoso prestatu dute hitzordua: "Urriaren Portugalen izan ginen abesten [Pilarreko zubian], Coimbran, eta handik bueltan hasi ginen kontzertu hau prestatzen. Abestuko ditugun hainbat abesti ondo ezagutzen ditugu, eta erreparatu baino ez ditugu egin, baina beste batzuk berriak dira guretako".



Iazko kontzertuko irudia. | GOIENA

Denetariko piezak

Gaurko kontzertuan Goikobalukoekin batera Goikobaluk Txiki-koek ere hartuko dute esku, eta estilo askotako abestiak abestu-

ko dituzte. Nagusiei dagokienez, hauxe izango da errepertorioa: "Benito Lertxundiren *Oi ama Eskual Herri* abestuko dugu, Moçedades-en *Eres tú*, Abba-ren *Chi-*

quitita, Ella Fitzgerald-en *Satin doll*, Carlos Leiteren *Lata d'agua*, Ertzainak taldearen *Aitormena*, Juncal Guerreroren *Mutil txaleko gorri*, eta, azkenik, Goikobaluko emakumezkoek, gazteekin batera abestuko dute *Hator Hator mutil etxera*", zehaztu du Barriocanalek.

Hala, emanaldiaren ostean Harremanekoek prestatutako luntxa izango da.

2016an Bartzelonara

Gaurko kontzertuaz batera Goikobalukoak dagoeneko 2016ra begira daude: "Etxeko hitzorduekin batera urtero lauzpabost bidaiari egiten ditugu kanpora. Aurten, besteak beste, Portugalen eta Segovian izan gara, eta datorren urtera begira Bartzelonara joateko asmoa dugu. Bidaiari hori, berez, aurten egin behar genuen, baina agenda arazoak tarteko datorren urterako utzi genuen. Ea urtarri amaierako lotzen dugun emanaldi hori, eta horrekin batera beste batzuk ere antolatzen ditugun".

Dorletako Amako ziklistak aurrean lokatz artean

X.U. | ARRASATE

Arrasateko ziklo-kros lasterketara (domekan, 10:00etan) indartsu iritsiko dira Arrasateko ziklistak, martitzenean Beasainen jokaturako proban Dorletako Amakoak protagonista izan ziren eta Gipuzkoako Txapelketa zegoen jokoan.

Batetik, kadetetan Andoni Azkarate eta Iñigo Aranburu podiumera igo ziren, bigarren eta hirugarren sailkatuta. Eta bestetik, Zigor Urainek garaipena eskuratu zuen, osteraren ere, master 40 kategorian. Arrasateko lasterketaren ondoren hiru proba geratuko zaizkie denboraldia amaitzeko.



Mikel Uraken bakarlaria, kontzertu batean. | IGOR ZABALBIDEA

Mikel Uraken emanaldiarekin hasiko da Jaizaleko abenduko eskaintza

X.U. | ARRASATE

Jaizale tabernak asteburuan hasiko du abenduko egitarau programa, eta Santutxutik datorren bakarlari batek egingo du estreinaldia, Mikel Urakenek, gaur, egubakoitza (22:30) egingo duen emanaldiarekin.

Asteburu bete izango da Jaizalen, zapatu arratsalderako (18:30)

beste kontzertu bat antolatu dute eta, Criminal Remains taldearena. Eskaintza borobiltzeko, domekan Ain-1 taldeak joko du (19:00).

Datorren egubakoitzean, hilak 18, Lukas Prest taldearen emanaldia izango da (18:30), hilaren 22an santamasak ospatuko dituzte eta hilaren 26an Euskaltzaleon Mus Txapelketa jokatu dute.

Vene Herreroren azken lanaren aurkezpena

X.U. | ARRASATE

Vene Herrero idazle arrasatearra Kulturaten izango da abenduaren 16an, azken lana aurkezten.

Historian eta Antzerkiaren Historian doktore Herrerok *Jose Estruch: el teatro como nexo identitario* izeneko liburua idatzi du, eta, adituen esanetan, Arrasatekoaren lana 1939an erbesteratutako antzerki errepublikarraren bibliografia osoa da. Hala, Herrerok Jose Estruch (Alacant, 1916) antzerki zuzendariaren ibilbidea erreparatzen du. Madrilen hil bazen ere (1990an), Estruch-ek Montevideoan egin zuen ibilbide profesional gehiena.

Juanito Arriarani azken agurra egin zioten herritarrek

X.U. | ARRASATE

Juanito Arriaran hil zen abenduaren 1ean Gasteizen, 81 urte zituela. Arriaran futbol-zale amorratua zen, eta jokalaria moduan Alavesen iritsi zen gailurrera, bigarren mailan jokatu.

Entrenatzaile moduan, berriz, ibilbide oparoa egin zuen. Hainbat alditan zuzendu zuen Logroñes taldea. Lehenago Eibarren egon zen, urtebetez (1973-1974), eta 1981ean Burgosko Mirandes taldea ere zuzendu zuen. Horrekin batera, UDako eta Mondrako entrenatzaile ere izan zen. Goienako kolaboratzaile ere izan zen, kirol saioretan parte hartuta.

ZALDIBAR

EMAITZAK

Betrayer-Elorra	2-1
Abokajarro-Olympiakojos	3-1
Dribling-Rayo Makabro	5-0
Monte Taberna-Lasagabaster	3-2
Aldatz-Sonografos	3-3
Olympiakojos FC-Elorra JMA	4-9

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Monte Taberna	9	3
2 Aldatz	7	3
3 Dribling	6	3
4 Abokajarro	6	3
5 Elorra JMA	4	3
6 Sonografos	4	3
7 Lasagabaster	4	3
8 Betrayer	3	3
9 Olympiakojos FC	0	3
10 Rayo Makabro	0	3

PARTIDUAK

ABENDUAK 12, ZAPATUA

10:30 Dribling-Olympiakojos / Betrayer
11:30 Betrayer-Monte Tab. / Olympiak.
12:30 Abokajarro-Lasagabaster / Monte

ABENDUAK 13, DOMEKA

11:00 Aldatz-Rayo Makabro / Elorra JMA
12:00 Sonografos-Elorra JMA / Rayo Mak.



Abenduan,
ZABALIK
egunero,
25ean izan ezik

HIPER ASIA
Ordutegia 09:30 - 14:00 / 16:30 - 21:00
Gipuzkoa Etorbidea 24 - ARRASATE
Tel.: 622 13 88 86



Igerilari gazteak entrenatzen eguen. | X. INFANTE

Igeriketa Sailaren 30 urteak ospatuko dituzte bihar

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Aloña Mendiko Igeriketa Sailak 30 urte bete ditu eta bihar, zapatua, egingo du urteurren hori ospatzeko ekitaldia. "Ospatu beharrekoa da, dudarik gabe, baina oso ospakizun xumea egingo dugu. "Igerilekuan bertan elkartuko gara. 50 metro igeri egingo dugu bakoitzak eta segidan aldatu eta kalera joango gara; poteatu lehengo eta afaldu egingo dugu gero", azaldu du hasieratik taldeko kide den Artzak, Xabier Infantek.

30 urte hauetan Oñatiko igeri taldean parte hartu duten hama-

sei urtetik gorako guztiak daude gonbidatuta biharko ospakizunera. "Batzuk kanpoan dira, beste batzuk ikasten dabilta... ostegun goizerako 105ek zuten izena emanda", zehaztu du Artzak. 19:00etan elkartuko dira Zubikoan eta ordu horretan itxi egingo dituzte igerilekuak, euren urteurren ospakizunarekin hasteko.

Gorabeherarik ez

Urte hauetan guztietan taldeak ez duela gorabehera handirik izan dio Infante, denetarik emaitzak lortuta, eta egungo egoera ere ona dela.

EAJk hiru lehentasun jarri ditu 2016ra begira

O.E. | OÑATI

Behartsuenei laguntzea, tokiko merkataritza indartzea eta Oñatin kirola sustatzea izan dira EAJren lehentasunak 2016ko aurrekontuak lantzeko orduan. Datorren egunean, hilak 17, eztabaidatuko ditu aurrekontuak udalbatzak abenduko ohiko osoko bilkuran, 19:30ean.

Alderdi jeltzaleak prentsa oharrez jakinarazi duen moduan, lehentasun horiek burutzeko proposamen hauek egin ditu: lekuko merkataritzan kontsumitzeko bonu sozialak eskaintzea, Urrutxu eta San Martin eremuak kirol zerbitzuetara egokitzea eta igerilekua handitzeko eta paddle pistak egiteko ikerketa lanak gauzatzea. Arlo sozioekonomikoan, 'leihatila bakarra' proposatu du oposizioko alderdiak, autonomo eta ekintzaileendako laguntza gisa. Ekintza turistikoa interesgarriak egitea ere proposatu du, herriko ostalaritza eta merkataritza sustatzeko.

Herriko artisauen azoka egingo dute bihar goizean Foruen plazan

O.E. | OÑATI

Herriko artisauak azoka berezia egingo dute bihar, zapatua, goizean Foruen plazan. Materia ezberdinak lantzen dituzten artisauak egongo dira: "bitxigintza egiten dutenak, zeramika, xaboiak, arropa margotzen dutenak edo oihalekin eta hariekin lana egiten dutenak, adibidez", Lavandula Xaboi Ta Kremak etxeko Ainara Beobidek azaldu duen moduan.

Guztira hamahiru artisau egongo dira: Arantxa Madina-beitia, Marije Leibar, Mirari Sagarzazu, Gema Muñoz, Eginetz Bizi, Lanatalan, Iñaki Jauregialtzo, Mikel Jauregialtzo, Edurne Ugarte, ta Puntu, Dor,

Lorea Suarez eta Lavandula artisau xaboiak eta kremak.

Oinaztu aisialdi taldekoek eskulan tailerra egingo dute aldi berean, Gurutze Gorriko jostailu kanpaina kalera ateraz.



Joan den urteko argazkia. | I.S.

Gabonetako erakusleho lehiaketan herriko 33 denda eta komertziok hartuko dute parte

Aurtengo Gabonetako erakusleho lehiaketa martxan dago. Herriko 33 merkatarik hartuko dute parte eta herritarrek dagoeneko aukera dute euren botoa emateko; herritarren saria 500 txantxikoa izango da eta parte hartzen duten herritarren artean 200 txantxi zozketatuko dituzte. Sari banaketa hilaren 19an egingo da udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 13:30ean.

Argia kenduko dute Olabarrietan eta Goribarren eguaztenean, transformadoreetan lana egiteko

Datorren eguaztenean, hilak 16, Olabarrietan eta Goribarren argia kenduko dute transformadoreetan lana egin ahal izateko. Goribarreko 2, 3, 6, 7, 8 eta 15 zenbakietan 09:00etatik 13:00etara kenduko dute eta Olabarrietako 1etik 49ra eta 81, 82, 83, 84, 85, 86, 87, 91, 94, 96 atarrietan, 15:00etatik 17:00etara. Auzo horretan argiteria publikoa ere kenduko dute.

Txaloka ludotekak antolatuta, bihar goizean egingo dute Gabonetako jostailu truke azoka

Aurreko urtean egin zuen bezala, aurten ere antolatu du Txaloka ludotekak jostailu truke azoka. Bihar, zapatua, egingo dute, 10:30etatik 13:30era, ludotekan bertan. Aurrez eramandako jostailuen truke txartel bana jaso dute umeei eta bihar txartel horiek eraman beharko dituzte beraien jostailuaren truke gus-tuko duten beste bat hartzeko.

Bi jostun omenduko dituzte domekan Lagun Leku elkarteak, Santa Lutzia eguna ospatzeko

Domekan, hilak 13, da jostunen zaindariaren eguna, Santa Lutzia eguna, eta Lagun Leku erretiratuen elkarteak omenaldia egingo diete bi jostuni. Eurak izan ziren, gainera, Oñatz dantza taldeko jantzi beltzak josten aritu diren jostunetako bi. 18:00etan hasiko da omenaldia. Pintxoak ere banatuko dituzte eguna ospatzeko.

Kameratoia rallyko bi sari Oñatira heldu dira

O.E. | OÑATI

LPM Eta Lagunak talde oñatiarrak bi sari irabazi ditu Euskaltzaleen Topaguneak Durangoko Azokaren barruan antolatu duen Euskal Herriko ikus-entzunezko

rallyan. Kameratola lanak publikoaren saria eta epaimahaiaren hirugarrena irabazi ditu.

Eusk. aroa gaiari helduta, hamazazpi taldek aurkeztu zituzten beraien lanak emandako 50

orduen barruan. Abenduaren 8an, martitzenean, eman zituzten sariak eta "originaltasuna eta umorea" aipatu eta saritu zituen epaimahaiak. Gainera, lanek erakutsitako maila ere aipatu gura izan zuten epaimahaikideek: "Harrigarria da zelako lan desberdinak egin dituzten denak gai beretik abiatuta, eskertzekoa da halako aniztasuna izatea".

Lehen saria Uda Films taldeak irabazi du *Jorrai* lanarekin eta bigarren saria Sant Antonitarrak taldearen *Irudien aroak* filmak.

Euskal Herriko ikus-entzunezko rallyaren hamaikagarren edizioa izan da eta guztira 67 pertsonak parte hartu dute rally honetan: 25 Bizkaikoak, 24 Gipuzkoakoak, hamaika Arabatikoak eta bat Nafarroakoa.



Oñatiarrak Tokikom-eko Joxe Rojasekin. | TOPAGUNEA

5.000
baietz!

www.domeinuak.eus

.EUS komunitateak erronka berria du: 5.000 domeinuen langa gaitzea. Anima zaitetz eta sortu zure .EUS domeinu-izena!



Abenduan,
.EUS
domeinua
9.95€an
denontzat

eus



Joan den urtean egin zen kontzertuko argazkia. | GOIENA

Bost abesbatza eta Udal Musika Banda Gabonetako kontzertuan

Domekan izango da San Migel parrokian eta Iñaxio Ibarrodok zuzenduko du

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Domekan izango da, 19:00etan, aurtengo Gabonetako kontzertua. Herriko Udal Musika Bandak eta bost abesbatzek parte hartuko dute: Oñatik, parrokiakoak, Gan-

barak, Ganbara Txikik eta Txan-txikuk. "Aurreko urteetako kontzertuen antza izango du domekakoak. Musika bandarekin hasiko gara eta gero abesbatzak entzungo ditugu. Amaieran, elka-

rrekin joko dugu abesti bat", dio emanaldiaren zuzendariak, Iñaxio Ibarrodok.

Haitiko Marbial herriko eskola proiekturako dirua batzeko ontziak jarriko dituzte sarreran.

'Itsasoaren emazteak' ikusteko sarrerak salgai

O.E. | OÑATI

Itsasoaren emazteak ikuskizuna eskainiko dute Oinkari dantza konpainiak eta Hika antzerki taldeak hilaren 18an Santa Anan. Dantza, antzerkia eta musika uzartzen dituen ikuskizuna da eta euskal dantza tradizionala oinarri hartuta, Euskal Herriko kostaldeko arrantzaleen emazteen bizipenak kontatzen ditu. Hirurogei dantzari, lau musikari eta bi aktore bilduko dira taula gainean olatuaren joan-etorrian eta sare artean.

Agurtzane Intxaurreaga da zuzendaria eta baita aktoreetako bat ere; Miren Gojenola da bestea. Musikariak Pello Ramirezek zuzenduko ditu eta dantzariak Villabonako Oinkari taldekoak izango dira.

Udaleko Kultura Sailak antolatu du ikuskizuna eta abenduaren 18an izango da, Santa Ana aretoan, 22:00etan. Sarrerak, baina, salgai daude, dagoeneko, Interneten, hamar eurotan. Hauze da helbidea: <http://bibe.me>.

Amantalen ahotsa lanean egin zuten topo lehen aldiz Oinkarik eta Hikak.

NIRE USTEZ

AINHOA NEGERUELA



Ez da berdina...

Ez da berdina euskaldun berriei diegun miresmena eta espainol-berriei digutena.

Ez da berdina, goizaldera, etxera bidean mutil bat gure aurretik joatea edo gure atzetik etortzea.

Ez da berdina biolentzia matxistak eraildako emakumeen kopuru totala gordin ematea, edo urtea hasi orduko, amorrua baretze aldera, kopurua berriz 0-tik hasia.

Ez da berdina Jainkoa maite dutenez ostia kontsokratuekin pederastia hitza idatzi izanak batzuei sortu dien nazka eta mina (horrela adierazi zuten) eta pederastiak haurrei, beraien senideei eta ingurukoei sortzen diguna.

Ez da berdina Iruñeko erakusketa horrek Jainkoari sortu dion trauma eta haur horiei guztiei pederastiak sortu, eta sortzen, die-na.

Ez da berdina Parisko atentatuan hil den izen eta abizen eta amets eta lagun eta ikasketadun biktima izatea, edo Sirian hildakoa izatea.

Ez da berdina biolentzia, egilearen arabera, terrorismoa denean edo giza eskubideen defentsa denean.

Ez da berdina *hipster* bizardun batek Siriarako txartela erostea, edo txartel berdina jatorri siriarreko gazte belgikarrak erostea.

Ez da berdina, baina onartu egiten dugu.

"Ez da berdina, baina onartu egiten dugu"

Mugi daitezen harriak U-9an!

KOMUNITATEA GOIENA | SARE | OÑATI

Oñatiko sarekideok urtarrilaren 9an Sarek eta Bagoazek antolatutako mobilizazioetan parte hartzeko dei egin nahi dizuegu. Baita abenduaren 26 eguerdian Oñatiko plazan egingo dugun mobilizaziora ere. Mugitu ditzaun harriak guztion artean!

Dispertsioa eta gaixo larrien harrizarrak edo oztopoak trabatik kendu nahi ditugu lehenbizi. Bilbon eta Baionan egun eta ordu berean, bi estatuei mugikortasun ez horretatik irteteko eskatuko diegu. Horretarako guztion aktibazioa izango da beharrezkoa, ideia eta ibilbide ezberdinak ditugun pertsonak bat egitea ezin-

bestekoa dela uste dugu, honela lortuko dugu harriak mugitzea. *Giza eskubideak, konponbidea, bakea* leloak euskal jendartearen gehiengoaren onarpena izan du eta lelo honekin gure asmoak berresten ditugu. Beraz, oñatiar guztiak Bilbora joan daitezen gonbidatzen ditugu, animo eta harriak mugitzera!

Egitaraua

Abenduaren 26an, zapatua, mobilizazioa, 13:00etan: Oñatiko plazan harria mugituko dugu!

Urtarrilaren 9an, Bilbon manifestazioa, 17:00etan. Autobusak jarriko ditugu eta laster komunikatuko dizuegu txartela noiz eta non erosi ahal izango duzun.

Sakanako bertsolariak datoz bihar, Bertso Truk-en baitan

O.E. | OÑATI

Euskal Herriko bertso eskolen arteko harremanak sortzea eta bertsoan haritzea du helburu Bertso Truk ekimenak. 26 bertso eskolak parte hartu dute eta horietako bat da Oñatikoa. Apuntatu diren artean taldeak egin dituzte eta oñatiarrei Sakanako eta Larrabetzu-Mungiako bertsolariekin jardutea tokatu zaie. "Oñatin bi bertso saio antolatuko ditugu. Batera nafarrak etorriko dira eta bestera bizkaitarrak; eta gu bi herri horietara joango gara", dio Oñatiko bertso eskolako Mirari Sagarzazuk.

Saioa egingo den herriko bertsolariak erabakitzen dute nolako egin. Bihar, adibidez, Sakanakoak etorriko dira Oñatira eta etxeokoei proposatutako formatua izango du saioak. Xabier Pascual izango da aurkezlea eta sei bertsolari parte hartuko dute, herri bakoitzeko hiruk, eta ondoren luntxa izango da guztiendako. Antixena gaztetxean izango da, 20:00etan.

Bizkaitarrak noiz etorriko diren eta oñatiarrak Sakanara eta Mungiara noiz joango diren zehazteke dago oraindik; datak adostu gabe dituzte.

www.harremandenda.org

Zergatik aukeratu Bidezko Merkataritzako produktuak?

Produktu bakoitzaren atzean istorio bat dagoelako!

Pobretutako herrialdeen ekoizleen egoeraren ardura daukagu. Eman dezagun benetako pauso bat egoera hau mantentzen duen mekanismoaren aurka, merkataritza konbentzionalaren irizpideak alde batera utziz.

Modu honetan, egiten duten lanagatik soldata duin bat edukiko dute, beraien **duintasuna eta garapena ahalbidetzeko!**



Aukeratu... BIDEZKO MERKATARITZA
Praktikatu... KONTSUMO ARDURATSUA

Atzean istorio berezia duten opariak egiteko aukera !!



Arrasateko Hiper Eroskiko sarreran aurkituko gaituzu!

Kafea, kakaoa, bonboiak, zerealak, kosmetikoak, artisautza...

Elena Lete | Juanje Alberdiren ordezkoa alkatetzan

"Erantzukizun ariketa bat izan da, ez zegoen ezetz esaterik"

Dedikazio osoa eskainiko dio Udalari, Hirigintza batzordeko buru jarraituko du, eta egungo alkatearen zenbait ardura banatu egingo dituzte taldean

JULEN IRIONDO | BERGARA

Urtarril hasierarako egongo da "buru-belarri" alkate gisa lanean. **Eskualdatzea gauzatzen ariko zarete dagoeneko.**

Udal Gobernuako parte naiz; beraz, neurri handi batean ezagupena badut. Baina Juanjek eramaten dituen gaien eguneko jarraipena berarekin zuzenean tratatzen ari gara, jarraipena ahalik eta errazena izan dadin gero, eta bidean ez galtzeko ez informazioa, ez tramiteak, ezta denbora ere.

Zein da lehen inpresioa izango duzun zeregin berriari buruzkoa?

Ni udal batetik nator [22 urtez izan zen langile Arrasatekoan], nahiz eta ez erantzukizun honekin. Gaur egun ere Jaurlaritzan nago, erantzukizun berdintsuarekin edo kargu batekin; beraz, ezagupena badut. Baina egia da herri mailako lana oso gertuko delako, arlo oso desberdinak eta arlo guztiak ukitzen direla. Erantzukizun handi bat da; ohore bat da, zalantzarik ez, baina erantzukizun handi bat. Baina taldea oso ona da, langileen korpua oso osatuta dago, eta aurrera egingo dugu, eta ondo. Eta, horrez gain, Juanjek lan itzela egin du hilabete hauetan. Bidea markatu du, neurri batean, hainbat gauzatan, eta horrek erraztu egingo du geratzen den bidea.

Ezuste hartu zintuen proposamenak? Hasieratik egon da garbi zu izango zinela ordezkoa?



Elena Lete, eguaztenean, udaletxe aurrean. | JULEN IRIONDO

Hori ezin dizut nik esan. Niri proposatu zidatenean, ulertu nuen proposamena landuta zegoela, borobilduta, eta erantzukizun ariketa bat izan da, ez zegoen ezetz esaterik, nahiz eta jakin honek aldaketa handia ekarriko duela nire bizitzan, lanean... Ez hori bakarrik, ni Oregi sailburuaren sailean nago, eta konpromiso bat nuen berarekin lau urterako. Egin beharreko kontsultak egin nituen, baietza jaso nuen, eta aurrera.

Ze bertute jar ditzake Elena Letek Udalaren zerbitzura, alkate bezala? Udala ezagutu egingen dut. Ez naiz aurretik zinegotzi izan, baina Udaleko esparruak zeintzuk diren eta nola jorratzen diren badakit. Funtzio publikoaren

esparrua ezagutzen dut, itsu-itsu sinisten dut funtzio publikoan eta pentsatzen dut udala dela, funtzio publiko arloan, gehien ematen duena, gertuen dagoena eta gehien igartzen dituen herriaren eta jendearen nahiak. Pentsatzen dut nire ekarpena hortik etorriko dela; pentsatzen dut, gainera, gobernantzaren ikuspuntua landu egin behar dugula denok, bai gizarteak eta bai erakundeek, kasu honetan udal erakundeak. Eta horretan jardun nahi nuke, gure programa betez, baina ikuspuntu horretatik. Gizartearekin lan egin behar dugu, eta harreman hori ez dago hain landuta. Eta gus-tatuko litzaidake bi mundu horiek uztartzea.

EH Bilduk Agorrosingo igoeragatik jarritako alegazioek ez dute aurrera egingo gaurko osoko bilkuran

%20ko igoerak Errenta teknikariaren bermea du, eta 2016ko tasan aplikatu egingo da

J.I. | BERGARA

Udal Gobernuaren botoekin, urriaren 26ko osoko bilkuran onartu zituzten 2016ko ordenantza fiskalak. Kirol tasei, baina, zenbait alegazio jarri zizkieten. Agorrosingo zerbitzuaren garesitzeagatik EH Bilduk jarritako alegazioek, dena den, ez dute gehiengoaren babesik jasoko gaurko (18:00) ezohiko osoko bilkuran.

EH Bilduk, batetik, bere alegazioetan zioen Agorrosingo prezioen "igoera justifikatzeko ez dela azterketa ekonomikorik egin"; bazioen, baita ere, %20ko igoera "gehiegizkoa" dela; igoera herrian erroldatutako soilik ezartzea "ez dela zuzena eta zilegi" ere bazioen koalizioak.

Alegazio hauen aurrean, Udaleko Errenta teknikariak, kon-

tuhartzailearen txostenean oinarrituz, dio zerbitzua "defizitarioa" dela, eta, ondorioz, "justifikatuta" dagoela "igoerak onartzea".

Bestalde, teknikariak ere badio %20ko igoerarekin "zerbitzuaren kostua berdintzera" jotzen dela, baina "kostuaren gainetik" jarri gabe, eta, beraz, %20ko igoerak ez duela "tasak arautzen dituen arautegian" jasotakoa urratzen.

Mankomunitateak ere aurkeztu zien alegazioa kirol tasei, prezioen artean agertzen zen bailarako kirol txartelarena kentzeko eskatuz -2016an ez da egongo-; onartu egingo dute.

Bilketa sistema aldaketa

Mankomunitateari herrian bosgarren edukiontzia jartzeko eskaria egitea ere gaurko osoko bilkuran onartuko dute.

NIRE USTEZ

MIGUEL LAZPIUR



Herri mailako eraldaketa beharra

Garrantzi handiagoa edo txikiagoa izan dezaketen eztabaidekin entretenituta gauden bitartean -hauteskunde aurreko garaian gaude-, nire ustez askoz ere garrantzitsuagoak diren eta herri osoarentzat gako diren gaiak azaltu egingen ditugu. Krisi osteko egoera honetan, aldaketa garrantzitsuak gertatu dira zentzu askotan; 2015. urtean gaude, ahaleginak batuz lanean hasia beharrezkoa da.

Herriak aldaketa garrantzitsuak behar ditu, eskatzen ditu; memoria ariketa txiki bat egingen badugu, oroitu gara aurrez ere egindakoak garela; 1980an, adibi-

dez: herria birbideratu eta egoerara egokitzeko gai izan ginen; ez ziren urte onak izan, baina ondo ateratu zen, eta hor daude Estatutua, Kontzertua, Lurralde Historikoen Legea... Herri eredia zehaztu eta egituratu zen.

Lehentasunak finkatu eta adosteko garaia da, ideia garbiekin, behar errealei aurre egingo dietenak. Herria eraldatzeko apustu garbia egin behar da. Gastu publikoaren aurrean, aktibitatea handitzea lehenesteko pentsatutako aurrekontuak. Zalantzarik gabeko babesa industria sektoreari eta hazkundeari: lanpostu gehiago; gazteria lan merkatura bideratzea; egungo lanpostuak birziklatzea.

Diru-bilketa handiagoa lekerke honek, eta gizarte zerbitzuak mantentzea. Gure Kontzertu Ekonomikoaren defentsa lerrotatua eta koordinatua, denon ardura litzatekeena, politikariena, erakundeena, hedabideena eta gizartearena, oro har.

FORD TRANSIT COURIER

Arrazoi askorengatik da Ford Transit Courier zure negozioaren oinarri: dituen emisio baxuengatik (99 g/km) eta erregai-kontsumo txikiagatik (3,8 l/100 km). Urrun eramango zaitu. **5.900** eurotik aurrera

MUGARRI AUTOAK

Arrasate
Araba etorbidea z/g
tel.: 943790744

Bergara
Amillaga 5
tel.: 670827186

Ford Transit Courier gama, batez besteko kontsumo konbinatua: 3,8-5,3 l/100 km. CO2 emisioak: 99-120 g/km. EcoBoost motorrak %20 hobetzen ditu kontsumoak motor konbentzional batekin alderatuta. Ford Transit Courier Ambiente 1.0 EcoBoost 100 ZP autoarendako da prezioa. Hauek ez daude barne: BEZA, LEDMT (garraio bide mota batzuei ezarritako zerga berezia, autonomia erkidego bakoitzaren arabera) eta garraioa. Eskaintzak barne hartzen du deskontua FCE Bank PLC S/Rekin finantzatzearren "Vente a Ford Credit" kanpainaren bidez, 36 hilabeteko gutxieneko iraupen-konpromisoarekin. Gobernuaren Pive planaren ekarpenaren menpe dago eskaintza. Penintsulan eta Balear uharteetan baliagarria hilabetea bukatu arte. Ez da bateragarria beste deskontu batzuekin. Iragarkian agertzen diren modeloez ez dute zertan eskaintza izan. Ford.es.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Bihar frontoian laranja nahi du nagusi Librekin

Pilotalekua bete nahi dute 04/08ko auzipetuei eta Arrano eta Artatseri babesa eskaintzeko ekitaldian

JULEN IRIONDO | BERGARA

"Atsegina, sakona, ikusgarria..."; halako ekitaldia iragarri du Librekin bihar –zapatua– arratsalderako. 35/02 eta 04/08 auziak salatzen dira ekitaldia izango da; Arrano tabernari eta Artatse elkarteari eta Aitor Arantzabal, Mikel Zubimendi, Mikel Garaiondo eta Ino Galparsoro –arrasatearra hau– auzipetuei babesa eskaintzeko. Bergararrak ez ezik, debagoien-darrak deitu dituzte Udal Pilotalekura: "Garrantzitsua da denon parte-hartzea".

"Halako epaiketa eta sententzia politikorik" onartzen ez dutela adierazteko, 18:00etan izango da hitzordua. "Publiko mota guztientzako" egitaraua izango da, "festa eta aldarrikapena uztartuz" egingo dena. Musiraka dantza taldearen saioa izango da, adibidez, biolin, gitarra eta bertsoz lagunduta. "Hitz musikatuak" ere iragarri dituzte, eta auzipetuek zein Arranoko eta Artatseko eta Libreko ordezkariak hitza hartuko dute. Mosaikoa egingo dute



Azaroaren 13an ekitaldia iragartzeko egindako mosaikoa. | IMANOL SORIANO

amaitzeko, Kopla Barik bertso eskolako bertsoa lagun. Ekitaldirako sarrerak Pol-Polen, Ariznoan, Arranon eta Kortazarren eskura daitezke –Arrasaten, Iratin–, eta bihar 17:00etatik aurrera frontoiko leihatilan.

Pilota partiduak ondoren

Ekitaldiaren lehen zatia ostean, pilota partiduak jokatu dira frontoian: Arranoko txapelketako finala, *Biritxi* eta Igartua aurrez

aurre; nesken partidua, Atorrasagasti-Ruiz Arizabaleta-Madariagaren kontra; eta Mikel Goñi jokoan ikusteko aukera ondoren, Beñat Iñarra lagun, Eneko Mugarutza eta Aritz Rezustaren kontra.

Partiduen ostean, kalejira egingo dute erraldoi, buruhandi, trikitilari, hankapalo, batukada, eta abarrekin –amaiera Arranon–. 22:30ean, berriz, kontzertuak egingo dira gaztetxean: Anger, Montauk eta DJ Naken Selektor.

Gabonetarako giroten joateko kontuan hartzeko moduko ugari

J.I. | BERGARA

Gabonetako argiak ere atzo piztu eta dagoeneko sumatzen da urte amaiera badatorrela, bai herriko bazterretan bai antolatutakoetan. Erakusleihen lehiaketan parte hartuko duten komertzioek ere atzoko behar zituzten apainduta –sariak, hilaren 23an: 300, 250, 150 eta 50 euro, hurrenez hurren, lehen hiru sailkatuentzat eta herri-tarren saria jasotzen duenarentzat, bonuetan–.

Eskulan tailerra gaur

Bestalde, gaur –egubakoitza– 18:00etan hasita hurrenez hurrenez eskulan tailerra egingo dute Zabalotegin. Bertan, Gabone-

tako apaingarriak egingo dituzte, gero etxera eramateko. Arte-kaleko eskulan tailerrekoek gidatuko dute saioa.

Postalen XI. lehiaketa

Gabonetako postalen Serafin Esnaolaren oroimenezkoa ere martxan dago dagoeneko, 3 eta 12 urte arteko hurrenez hurrenez. Orri laurdeneko neurriko kartulinan egin beharko da postala, eta atzean izen-abizenak eta adina jarri. Gabonei buruzko postalak izango dira, eta aurkezten beharko dira abenduaren 18an, 19:00ak eta 21:00ak artean, Gure Ametsa elkartearen Sari Banaketa hurrengo egunean izango da, Napar ferian, 12:30ean.

30 postu izango dira plazan oraingo Domeka Azokan

Bi hilean behin egiten den azoka izan arren, azarokoaren ostean abenduan ere egingo da oraingoan, Gabonak gertu daudela eta. 11:00etatik 14:00etara izango da, San Martin plazan, eta 30 postu jarriko dituzte. Elkartrukea, bererabilera eta artisautza sustatzeko azoka da.

Mugikorrarekin argazki ikastaroa datorren astean

Mugikorrarekin argazkiak ateratzeko oinarriko ikastaroa egingo dute hilaren 15ean eta 16an Arizondo Argazkilarik Elkartearen egoitzan. Lau orduko ikastaroa izango da, 19:00etatik 21:00era bi egunez. Hamalau lagunentzako lekua dago ikastaroan. Izena, Udako Kultura zerbitzuan.



Gabon zoriontsuak guztioi!

Mirari

Ibargarai hiribidea 14 • BERGARA
Tel.: 943 76 23 93

Neurriak 36tik 68ra

Euskal ekoizpenen aldeko apustua egin du Udalak abenduko zinekluberako

Un otoño sin Berlín, Sanctuaire eta *Gure sor lekuaren bila* filmak emango dituzte Zabalotegin

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA
Hilaren 16an emango dute abenduko zinema zikloko lehen filma: Lara Izagirreren *Un otoño sin Berlín*. Drama erromantikoa da, eta atzerrian bizi izan ostean jaioterrira itzuli den June da protagonista. Itzulera gogorra izango da; dena aldatu dela ikusiko du, baita bera ere.

Abenduaren 23an, berriz, Olivier Masset-Depassen *Sanctuaire* izango da ikusgai. Drama da pelikula horren

generoa, eta benetako gertakari batean oinarrituta dago. 1984. urtean kokatzen da istorioa; Mitterrand dago agintean Frantzian, eta Felipe Gonzalez Espainian. Pelikulak ETako Domingo Iturbe "Txomin"-en eta Frantziako Errepublikako Konstituzioaren Kontseiluko kide Gregoire Fortinen arteko gatazka erakusten du.

Bukatzeko, hilaren 30ean *Gure sor lekuaren bila* dokumentala proiektu

tatuko dute, Josu Martinezek zuzendua. 1956an, ikusmira handiaren erdian, Euskal Herriari buruz euskaraz egindako dokumental bat estreinatu da Hazparnako zineman. Hurrengo hilabeteetan Iparraldeko herrietan, Parisen, San Frantziskon edo eta Dakarren proiektatu arren, haren arrastoa misteriozki desagertu eta denek ahaztu egingo dute laster.

Emanaldi guztiak 20:00an hasiko dira, eta sarrerak 3 eurotan izango dira salgai leihatilan.

Amamaren arrakasta

Asier Altunaren Amama filmaren emanaldiak izandako arrakastaren ostean erabaki du Udaleko Kultura Zerbitzuak Euskal Zinemaren aldeko apustua egitea. Hiru filmak aurtengo Donostiako Zinemaldiko Zinemira sailean aurkeztutakoak dira.

Daniel Laskurain liburu berria sinatzen izango da gaur Elkarren

M.T. | BERGARA

Daniel Laskurain bergararren liburu-sinadura izango da gaur, Ibargarai kaleko Elkar liburu-dendan, arratsaldeko seietatik zortzietara bitartean.

Simón, dibujante callejero da lanaren izena. Autoeditatutako lana da, eta joan den astean atera zuen. Bergararrak ateratzen duen lehenengo liburua da. 20 urteko artista eta marrazkilari bat da protagonista, bere familiarekin batera zirku batean bizi dena. Zirkurako kartela egiteko enkargua jasoko du, eta horrek bizitza aldatuko dio.

40 marrazki baino gehiago dituen nobela grafikoa da *Simón, dibujante callejero* lana. Gainera, gaur sinadura-ekitaldira joaten direnei berak egindako marrazki original bat oparituko die autoreak.

'Barbantxo' 3D antzerki multimedia taularatuko dute bihar

Logela multimedia taldeak 3-10 urte bitarteko umeendako antzezlan taularatuko du bihar, zapatua, arratsaldeko zortzietatik aurrera: *Barbantxo*. Hiru dimentsioko irudiekin lagunduko dute ikusizuna. Sarrerak lau eurotan izango dira salgai Zabalotegi aretoko leihatilan bertan.

36. Gabon kontzertua hilaren 19an eta musika eskolakoena 18an

18an, Musika Eskolako kontzertua (18:30, Udal Pilotalekuan). Sarrerak leihatilan 4 eurotan (2 euro umeek). 19an, Udal Bandarena, Aritzetarena, Orkestra Sinfonikoarena, Orfeoiarena eta Musika Eskolarena. Sarrerak hilaren 11tik aurrera *bergara.eusen* eta liburutegian, zortzi eurotan.

Bertso txapelketako bigarren finalerdia gaur Kortazarren

M.T. | BERGARA

Gaueko hamaiketean hasita, Bergarako bertso txapelketa nagusiko bigarren eta azkenengo finalerdia egingo dute gaur Kortazar tabernan. Bertan, Eñaut Uriarte, Gari Lopez de Munain, Jon Patxi Aiausti, Iñigo Artzelus eta Unai Arantzabal bertsolariak arituko dira nor baino nor gehiago. Gai-jartzaile lanetan, berriz, Ibon Leibar *Txinbo* arituko da.

Lehen finalurrekoa azaroaren 27an jokatu zen Arrano tabernan, eta bertan *Etxie* izan zen onena; finalerako pasea lortu zuen hark. Gaur jakingo du norekin egingo duen topo finalean.

Galarraga eta Murgiondo faborito etziko txapelketan

M.T. | BERGARA

Abenduaren 13an, eguerdiko 12:00etan, Euskal Herriko Bikote Gazteen 38. Dantza Solte Txapelketa egingo da Udal Pilotalekuan, Musika eta Dantza eskolak Udalaren laguntzarekin antolatuta. Sarrera doan izango da.

17 bikotek hartuko dute parte guztira; tartean, Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo bergararrek osatutakoak. Bikote horrek pasa den domekan Orion ospatutako txapelketa irabazi zuen; beraz, domekan faboritoen artean izango dira.

Informazio gehiago gaurko *Puntua* aldizkarian.

Saskibaloiak ez du etenik Gabonetan


KOMUNITATEA GOIENA
BERGARAKO SASKIBALOI TALDEA

Abenduaren 26an eta 27an, gattetxoendako Gabonetako VII. hiruko txapelketa egingo dugu Udal Pilotalekuan. 26an, arratsalde, alebinak arituko dira, eta 27an, goizez zein arratsalde, infantil eta benjamin mailetakoa. Jada banatu ditugu inskribatzeko paperak ikastetxetan, eta horiek aurkezteko azken eguna hilaren 18a da; animatu zaitezte!

Bestalde, urtarrilaren 2an eta 3an, Bolintxo torneo egingo dugu, lehen egunean neskena eta bigarren egunetan mutilena. Inguruko infantil talderik onenak arituko dira.

Pol-Poleko gazte taldearen irteeran izena emateko azken eguna

Domeka honetan egun osoko irteera egingo dute, 7 ordu inguruko ibilbidea osatuz: Zumarraga-Isazpi-Samiño-Aizpurutxo-Gorla-Bergara. 08:00an autobus geltoki nagusian elkartuko dira. Gaur izango da izena emateko azken aukera, Pol-Polen bulegoan 19:00tik 20:00ra bitartean.



Aitor Eraña. | JULEN IRIONDO

Aitor Eraña | Korrikalaria "Umeen ilusio hori izan bitartean jarraituko dut korrikan"

M.T. | BERGARA

Azaroaren 29an egin zen Donostiako Maratoiko 60 urteko gorakoen proban Gipuzkoako txapelduna izan zen 62 urteko bergararra. 3 ordu eta 12 minutuko marka egin zuen. Gasteizko maratoi erdian ere hartuko du parte.

Ze asmorekin zoaz Gasteizera? Beste maila bat da. Gasteizera *deskantsatzera* joaten naiz, nolabait esateko. Erritmo txoarekin bai, baina disfrutatzen. Maratoia oso gogorra izaten da, eta burua ez dago horrelako beste lasterketa potolo bat egiteko.

Donostian oso emaitza ona lortu zuen. Gustura?

Denbora baino gehiago, garrantzitsuena bukatzea zen. Azken lau kilometroak oso gogorrak egin zitzaizkidan, baina buru gogorra daukadanez, iritsi nintzen helmugara. Pozik.

24 maratoi egin dituzu. Esperientziak laguntzen du horrelako une gogorretan?

Bai. Azkenengo kilometroetan beti sufritzen da, eta, gorputza gaizki egon arren, buruak "segi" dio. Esperientzia izan ezean, agian, geratu egingo nintzen.

Jarraitzeko asmorik baduzu?

Bai. Umeen ilusio hori izan bitartean jarraituko dut. Gainera, bizitzan edozein erronka hartzeko ere laguntzen du.

DRAGON ORIENTAL

Janaria ere etxera eramaten dugu

Plater gustukoena:

- Xia-Jiao (ganba-enpanadillak)
- Curry triangeluak okelaz beteta
- Langostino frijituak almendrekin

Etor zaitez!

☎ 943 25 06 77 • Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean) • BERGARA

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

MIZPILDI

OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

BEHEKO
TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

GABONAK 2015



**Gabonetan, etxera bisita
Ohituren argazkiak eta historia
Herrimina etorkinen bihotzetan
Olentzeroren eta Erregeen zain-zain**

TORANGE



gelatzo

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

***Gabon
zoriontsuak!***

Gabonetan, denok bueltan etxera!

Turroia bezalaxe, debagoiendar asko itzuliko dira aurten ere euren etxeetako epelera

ANDER LARRAÑAGA | DEBAGOIENA
Gabonak bertan daude, eta, horiekin batera, lurrinen iragarkiak, bazkari amaigabeak, loteria, Gabon kanta, Olentzero eta opariak datoz. Gabonetako argiak piztu eta dendetako erakusleihoak apaindu dituzte dagoeneko; kontsumoz betetako egunak dira, duda barik, baina baita familian elkartzekoak ere. Batez ere, urte osoan elkarrengandik urrun bizi diren familiendako oso garrantzitsuak izaten dira egun horiek, ikasketak edo lan kontuak direla-eta euren senitarteko bat kanpoan bizi delako. Eta Debagoieneko etxe askotan ere gertatzen da hori, beste leku askotako etxeetan bezala. Kontuak kontu, senideen pozerako, debagoiendar asko bueltatuko dira Gabonetan.

Hiritzarretatik herritxoetara
Gehienak Londres, Madril, Bartzelona eta halako hiri handietan

bizi dira eta Gabonak desberdin samarrak dira eskualdeko herrikoekin alderatuta: kaleko giroa, Gabonetako argi ikusgarriak, erosketa masiboak, Gabonetako merkatuak, kaleko ikuskizunak, turismoa, ohiturak... horiek guztiak beste maila batean bizi dira Debagoienean.

Lagunak eta senideak ikusteko
Bestalde, argi dago kanpoan bizi direnek zer egingo duten Gabonetan etxera bueltatzen direnean: ederto jateko, aspaldiko lagunak ikusteko eta familiaratean igartzeko aprobetxatuko dituzte egun horiek, gehienbat. Motzean, urtean zehar faltan igartzen duten guztiak egingo dute.

Horren harira, horietako debagoiendar batzuekin izan da GOIENA, euren bizitokietan Gabonak nola bizi diren eta hemen opor horiek zertan aprobetxatuko dituzten jakiteko.



OIHANE IRURETA

OIHANE IRURETA
MADRIL

"Familia eta kuadrillakoak ikusteko irrikan egoten naiz urtero"

18 urterekin iritsi zen Madrilera Oihane Irureta: han Kazetaritza ikasi, eta gaur egun Atresmedian dihardu lanean. Ordutik hona, urtero Bergarara bueltatzen da egun berezi horietan familiaz eta kuadrillakoez gozatzeko.

Madrilgo Gabonak handitasunean desberdintzen dira. Hango kaleak Gabonetako argiz betetzen dira eta Puerta del Sol-eko zuhaitza oso famatua da. Plaza Mayor eta Plaza de Españako merkatuak ere nahitaezko geldione bilakatzen dira Gabonetan. Hala ere, Iturbek ez ditu bere herriko Gabonak aldatzen Madrilgoengatik.

HILDEGARD COLINO
SEVILLA

"Duela urte batzuk kanpoan bizi naiz, baina urtero nator Gabonetarako"

Hildegard Colino ez da etxean gelditzen den horietakoa. Duela sei urte Aretxabaleta utzi eta hainbat tokitan bizi izan da; duela bi urte joan zen Sevillara Biomedikuntza ikastera, baina Gabonetan, urtero, herrira etortzen da. Lagunak eta senideak ikusteko aprobetxatzen ditu egunok, batik bat.

Kontuak kontu, aurten ere etorriko da, eta Gabon zahar gauean eskiatzera joango da familiarekin: "Plan desberdina egin gura genuen; elkarrekin ondo pasatzeko aukera paregabea da, eta denoi gustatzen zaigu eskiatzea", azaldu du Colinok.



HILDEGARD COLINO



ANDER ERRARTE

ANDER ERRARTE
VALENTZIA

"Heldu eta egingo dudan gauzetako bat izango da Reala ikustera joatea"

Valentzian masterra egiten dabil Ander Errarte, baina Londresen ere bizi izandakoa da eskoriatzarra. Bidaia azken ordurako utziko badu ere, aurten ere itzuliko da herrira.

"Egia esan, ez naiz oso Gabonzalea, baina oporrak beti dira opor eta gogo handiarekin hartuko dut herria, batez ere, horrenbeste denbora kanpoan egon ostean. Familia eta lagunak faltan igartzen dira eta argi daukat heldu eta egingo dudan gauzetako bat, kuadrillarekin bazkari bat egiteaz aparte, Anoetara joatea dela, Reala ikustera", esan du, ilusioz, Eskoriatzako gazteak.

Markiegi
75 URTE

Eskerrik asko danoi eta Gabon zoriontsuak!



JON BARRENETXEA
ALEMANIA

"Europa mailan indar eta ilusio handieneko Gabonak dira Alemaniakoak"

Salamancan, Suedian eta Israelen bizi izandakoa da 24 urteko Jon Barrenetxea aretxabaletarra; orain, Alemanian dago masterreko proiektua egiten. Gabonetako oporrak etxera bueltatzeko baliatzen ditu beti. "Ez dut inoiz kalerik egiten, urtero bueltatzen naiz familia eta lagunak ikusteko. Gogotsu hartzen ditut Gabonak", esan du Barrenetxea.

"Europa mailan indar eta ilusio handienarekin ospatzen diren Gabonak dira Alemaniakoak". Bestetik, familiarekin bakarrik barik, lagunekin eta lankideekin afari gehiago ospatzen dituztela onartu du.



JON BARRENETXEA



GARAZI BEDATSE BARBERAN

GARAZI BEDATSE BARBERAN
ALMERIA

"Arrasaten Gabonak biziagoak eta herrikoiagoak dira"

Almerian dabil Fisioterapia ikasten Garazi Bedatse Barberan. Edozein oporraldi Arrasatera bueltatzeko aprobetxatzen baditu ere, Gabonak bereziak dira harendako: familia eta lagunak ikusi, parranda bat edo beste... horregatik, ilusioz hartuko ditu aurten ere oporrak.

Almeriako Gabonak beste herri edo hiri batekoak bezalakoak direla argitu du Barberanek. "Arrasaten, Gabonak biziagoak eta herrikoiagoak direla iruditzen zait: santamasak, Txoronpio eta Txoronpia, Olentzeroren etorrera... garai polita da", azaldu du arrasatearrak.

IBAI AGIRREURRETA
BARTZELONA

"Gabonetako egunak elurra zapaltzeko aprobetxatzen ditut"

Aurtengoa laugarren urtea da Ibai Agirreurretarendako Bartzelonan; Leintz Gatzagatik hiri handi batera joan zen Fisioterapia ikastera.

Gabonak etxean pasatzen ditu urtero: lagunak eta familia ikusi, kirol apur bat egin eta elurra zapaltzeko aprobetxatzen ditu egun horiek. Izan ere, aurten lagunekin Pirinioetara joango da egun batzuk.

Bartzelonan Gabonetako argi ikusgarriak eta kontsumismoa dira protagonista, baina Katalunian ere askotariko ohiturak dituzte; esaterako, *Tió de Nadal* delakoa.



IBAI AGIRREURRETA



ANTTON PEÑA

ANTTON PEÑA
LONDRES

"Londresko Gabonei, herrietakoen erromantizismo hori falta zaie"

Aramaioiko Antton Peña Londresen dago lanean duela bi urte: testamentua *on line* kudeatzeko enpresa batean eta drone batzuk gidatzeko softwarea egiten.

Ez du inoiz kalerik egiten Gabonetan eta etxera bueltatzen da familiakoekin eta lagunekin egoteko. Eskiatzeko ere hartzen ditu egun batzuk.

Bestalde, herriko Gabonetako gertutasun hori Londresen ez dagoela azaldu du Peñak: "Londresko Gabonei, herrikoen erromantizismo hori falta zaie; etnia askotako jendea dago eta ez dira ohiturak ospatzen".

GORKA GALDOS
SUITZA

"Aurtengo oporretako egunen %75 antolatuta ditut dagoeneko"

2002a ezkerro bizi da Gorka Galdos oñatiarra Suitzan bere familiarekin, lan kontuak direla eta. Gabonetan beti dator Euskal Herrira, eta egun horiek familiarekin eta lagunekin igarotzen ditu; "aurtengo oporretako egunen %75 antolatuta ditut dagoeneko", onartu du Galdosek.

Bestalde, Suitzan lankide, familia eta lagunarteko Gabonetako afariak egiten azaroan hasten direla esan du oñatiarrak; izan ere, horrela, egun seinalatueta familia murriztuarekin baino ez dira egoten eta aldi berean gertuko guztiak ikusten dituzte.



GORKA GALDOS

OLGETA

GABONETAN,
OPARITU
JOLAS MAITAGARRIAK!

GOZATU - HEZI - MAITATU

JOLAS ETA JOSTAILUEN AHOLKULARITZA,
MAILEGUTZA ETA SALMENTA ZERBITZUA



Tradizioa argazkietan itsatsita

Gabonetako lehengo erretratuei erreparatuta ikusten da ohitura asko aspaldikoak direla

ANDER LARRAÑAGA | DEBAGOIENA

Gabonak ohituraz jositako egunak dira; Euskal Herrian, behintzat: baserri kantuan joan, jaiotza ipini, gaztaina erreak jan... eta horiek urte askoan zehar errotutakoak dira. Izan ere, gizarteak eta Gabonek izan duten eboluzioak ez du eraginik izan tradizio batzuetan; jai erlijioso eta xumeak izatetik, kontsumismoan eta handikerian oinarritutako garai bilakatu da, baina betiko ohiturek bizirik dira. Askok izango dute gogoan duela hamarkada batzuk Gabonak nola ospatzen zituzten.

Hiru argazkiren testuingurua

Oroitzapen horiek berreskuratzeko asmoz, urte askoan antzinako argazkiak biltzen eta dokumentazio lana egiten ibili diren hiru debagoiendarrek Gabonetako ohiturak erakusten dituzten hiru erretratu ekarri dituzte.

Jerardo Elortza filologo oñatiarra, Jose Mari Velez de Mendizabal idazle aramaioarrak eta Miguel Angel Elkoroberezibar ikerlari bergararrak, Oñatiko, Arrasateko eta Bergarako argazki bana ekarri eta horien testuingurua azaldu dute, hurrenez hurren.



Oñatin duela 80 urte inguru egindako jaiotza biziduna. | TERE ARREGI

Aspaldixoko belen biziduna



JERARDO ELORTZA

Oñatin jaiotzak jartzeko ohitura oso errotuta egon da betidanik. Elizetan eta eskoletan ez ezik, etxeetan era jartzen genituen Gabonetako figuratxo horiek: Jesus jaio berria, amabirjina, San Jose, astoa, idia, aingerua, artzainak, hiru erregeak... Eta oraindik ere ohitura horrek jarraitzen duela bistakoa da.

Gure ume-garaian jaiotzarik deigarriena ospitale zaharreko parbularioan jartzen zuten

karitateko mojek. R. M. Zuazola institutua dago bertan, 60ko hamarkada bukaera ezker. Beti jaiotza handia eta dotorea egoten zen bertan, baina urte batzuetan are ederragoa muntatu zuen Bitoriano Beitia Kortakogain oñatiarrak. Ohiko irudiaz gain, ikusgarriak izaten ziren Bitoriano artetsuak asmatutako errota, ur-salto, erreka eta guzti, edota bueltaka ibiltzen zen idi pareak.

Baina argazki horretan ikusten duguna ere berezia da. Laurogei urte-pasa izango ditu erretratuak, eta, ikusten denez,

belen bizidun bat da. Argazkian agertzen direnetako pare bat identifikatu ditut: Mari Tere Arregi eta Andina Arrazola, Kale Barriko Trini Mendizabal, Atzeko kaleko korkostegitar bat... Pentsa zenbat denbora izan dezakeen erretratuak!

Duela ia urtebete erakutsi genuen Oñatiko *Kontzejupetik* aldizkarian argazki hori. Hala ere, Gabonetako antzinako ohiturak berreskuratzeko asmoz, berriro ere gogora ekarri gura izan dut argazkia, Oñatira soilik barik, Debagoien osora zabaltzeko.

Bihotzez maite duzulako...

Gabonetan opari iezaiozu edertasuna



Aurpegi tratamendu pertsonalizatua
(despigmentazioa, hialuronikoa, oxigenazioa...)

2 saioko packa, % **15**eko deskontua

Gorputz tratamendua (hidratazioa, masajea...)

2 saioko packa, % **15**eko deskontua

AG
AMAGARA

Erdiko kalea 54 behea

20500 ARRASATE

Tel.: 943 79 09 09

www.amagaraestetikazentroa.es

Gabon zoriontsuak guztioi!





1965ko Gabon egunean haur arrasatearrak plazan. | J. M. VELEZ DE MENDIZABAL

Mezuak bakea aldarrikatzeko



JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL

Estanpa polita. Gabon usaina du argazki horrek, duda barik; bada, berrogeita hamar urte pasatu dira argazkia atera zenetik. 1965eko Gabon eguneko da; Arrasateko haurrak daude bilduta herriko plazan baserritar jantzita hainbat pankarta eskuetan dituztela.

Egun hartan, arrasalde osoan zehar ibili ziren argazkiko protagonistak, kalez

kale, eskuetan zeramatzen karteletako mezuak aldarrikatuz. Ariketa ederra da erretratuko protagonistak identifikatzea. Hala ere, ikusten denez, ez da Olentzeroren arrastorik ageri.

Aurtengo Gabon iluntzean, berri, argazkiko asko bilobekin aterako dira, Olentzerori itxarotera, ikazkin zaharrak zer ekarriko irrikan. Ea denontzako bakea eta ongia den oparia! Izan ere, mende erdi pasa ostean, aldarrikatzen dituzten balioek ez dute iraungitze-datarik.



1976an San Antonioko jaiotzen lehiaketan. | SERAFIN ESNAOLA

Orain dela 100 urte jaiotako apaizaren arrastoa



MIGUEL ANGEL ELKOROBerezibar

Etxeko betiko txokoa, elizetan edota hainbat dendetako erakuslehoetan ohikoak dira Gabonetan jaiotzak. 70eko hamarkadan makina bat gaztetxo jarri gintuen On Serafin Esnaola apaizak jaiotza eramangarriak egiten. Arbolen enborren azala, harri zein kortxo, ogi lehorra edo plastilina. Oinarrian goroldioa, orbela edo zerrautsa. Ezin ahaztu zilar-paperekin egindako

errekastoa. Denak ziren balekoak. Ondo pozik karriatzen genituen Gabon egunean San Antonioko ermitara. Lehiaketa antolatu ohi zuen apaizak eta katekesira zapatuetan joaten ginenok eta auzoko neska-mutikoez hartzen genuen parte. Epaimahaia On Serafinek berak eta Javier Enak osatzen zuten, besteak beste. Errege Egunean sari banaketa. Ermita aurreko pinuan opariak paper dotorean bilduta. Hiru sari nagusi –txintzarriekin egindakoak irabazi zueneko gogoan dut– eta opariak denontzat. Oso

xumeak ei ziren, baina geneukan ilusioak zoragarri bihurtzen zituen. On Serafin 2002an hil zenean auzoko Gure Ametsa elkartekoek ohiturari eutsi eta auzoko apaiza izan zenaren omenez jaiotza eramangarrien lehiaketa antolatu zuten. Handik hiru urtera Gabonetako postalen lehiaketa ere bai. Gaur egun postalen lehiaketak irauten du eta abenduaren 19ko Napar Ferian egingo dute sari banaketa. Urteak pasatu dira, baina orain dela ehun urte justu jaio zen apaiz haren auzotarren ekimenez eta ilusioek tinko diraute.

Zenbaki osatzen dugunok Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu Eskerrik asko gugan jarritako konfidantzagatik



LAN ZERBITZUAK

ZERBITZU FISKALAK

KONTABILITATE ZERBITZUAK

ABOKATUAK

zenbaki 
aholkulariak-abokatuak

Basabe Industrialdea FO-10
20550 Aretxabaleta
943 71 21 12
www.zenbaki.eus



Gabonetako opariak geurean!



Oparitu barruko arropa familia guztiari: pijama, batak, barruko kamisetak, aterkiak, bainu-batak...

SIKOL.

Olarte kalea 7, ARRASATE. Tel.: 943 79 89 32



kapikua

Aholkularitza eta gertuko arreta



Irakurri kodea eta egin zaitez gure jarraitzaile facebooken.



kapikua.dendari.com
facebook.com/kapikua

Opariak, osagarriak, oinetakoak, txanoak, ilerako osagarriak, bitxiak, erlojuak... Neska eta mutilentzat. Orduetgia: egunero: 09:30-13:00 / 16:30-20:00
Ostiraletan: ordutegi jarraia: 09:30-20:00
Larunbatetan: 10:00-13:00 / 17:00-20:00
KAPIKUA Opariak eta osagarriak.
Bañez doktorea, 4 ARRASATE. TEL.: 943 79 19 94



Neska eta mutilentzat arropa. Gabonetan ondo pasa!

AMUA

Ibargarai, 2 - Bergara - Tel.: 943 54 00 68



amuabergara

amua_bergara



tutto piccolo

babyface®

absorba

paz

Timberland

QUIKSILVER

3pommes®



2 eta 16 urte arteko umeentzako. / Denetarikoz jantziak eta gustu guztientzako. Bergara erdialdean gaude. Zatoz!

SUBIJAI.

Irizar Pasealekua 1. BERGARA. Tel.: 943 764241



Gabonetan, oparitu etxekoei negu honetarako behar dutena: Barruko arropa, pijamak, batak, osagarriak... Ondo pasa gabon jaietan!

IGARZA LENTZERIA.

Domingo Irala 5 - Bergara - Tel.: 943 76 24 88



Euskaraz eta maitasunez bizi nahi dugulako; segi sua pizten! Jaio berri, haur, gazte eta nagusientzako arropa organikoa.
MAITIA.

Erdiko kalea 46, Arrasate. 690 32 23 93. www.maitia.net



Gabon jai hauetan eta 2016an eraman ezazu zure estiloa aldean. Mujika jantzi dendak jai zoriontsuak opa dizkizue!

MUJIKA JANTZI DENDA.

Barrenkale 1 - BERGARA - Tel.: 943 76 29 91



Moda frantsesa eta Londreskoa. Gazteak eta emakumeak.
Ondo pasau Gabon jaiak!
JO'KA.

Irala 5, BERGARA. 943 53 46 16

Jolas

Aukera zabala: Poltsak, fularrak,
arropak eta osagarriak...

Jolas didaktikoak



Begarako Jolas-en poltsak, fularrak eta era guztietako osagarriak ditugu. Jolas didaktikoak ere baditugu, ez bakarrik umeentzat, izan ere, 0 eta 100 urte arteko pertsonentzat baditugu jolasak. Ondo pasa Gabonetan!
JOLAS - Barrenkale 27 - BERGARA - Tel.: 943 76 46 48

**Eguberri
Zoriontsuak!**



Jaio berriak

Ume arropak

Emakume
arropak

UME www.umearrasate.es



Umetxoentzako, haurrentzako, gazteentzako eta emakumezkoentzako arropa.
Gabon zoriontsuak!

UME.

Garibai 6, ARRASATE - Tel.: 943 79 97 86



UmeArrasate

Iratxo
Mertzeria
Lentzeria

PASSIONATA®



Etor zaitez, lentzerian azkena dena ezagutzera. Iratxo-ren partez,
Gabon jai zoriontsuak izan!

IRATXO.

Telesforo Aranzadi kalea 2 - BERGARA - Tel.: 943 76 00 79

Herriminarekin Gabonak gogoratzen

Debagoieneko etorkinek desberdin bizi dituzte Gabonak; kulturak eta erlijioak eragin handia dute

ANDER LARRAÑAGA | DEBAGOIENA
Munduko leku askotako etorkinak daude Debagoiengan; gizartearen atal garrantzitsu bat dira. Horiendako ere Gabonak garrantzitsuak dira, noski: euren etxeetatik urrun daude familian igarotzeko egun garrantzitsu horietan, eta, gainera, hori gutxi balitz, sarritan, hemengo Gabonekin alderatuta, desberdin samarrak dira euren ohiturak.

Erljioaren eskutik

Gabonak, gaur egun, politikoki onartutako jaiegun bihurtu dira, eta, kontsumismoaren isla bilakatu badira ere –Bizarzuri eta bere jantzi gorria ikustea besterik ez dago–, jakina da erlijioan oinarritutakoak direla. Hala ere, askok diote oinarri paganoak dituzten jaiak direla, urtaro aldaketa ospatzen omen da eta; eztabaida amaigabea da hori. Jainko batekiko edo bestearekiko izan,

fedea Gabon gaua, Eguberri eguna eta Errege eguna ekarritzen Euskal Herrira. XXI. mendeko Gabonetan, erlijioaren presentzia ez da hain nabarmena; hala ere, sustraiak eta ohiturak mantentzen direla bistakoa da: jaiotza jartzen da etxeetan, erlijioak bustitako Gabon kantak abesten dira...

Debagoiengan –eta orokorrean mendebaldeko gizarteetan– bizi diren etorkinek kristautasunean errotutako Gabonekin bizi behar izaten dute, baina euren erlijioetatik jaiotako tradizioak mantentzen saiatzen dira: gehienek, kristautasunarekin lotutako egun horiek ospatu barik, Gabon zahar gaua eta urte berria ospatzen dituzte.

Kontuak kontu, etorkin horietako batzuekin izan da GOIENA, kulturen arteko talka hori ikusteko eta Gabonetako euren ohiturak ezagutzeko.



Alla Gheorghievaren alaba elur-malutaz jantzita, Bulgariako Gabonetan. | ALLA GHEORGHIEVA



ALLA GHEORGHIEVA | ARETXABALETAN BIZI DEN MOLDAVIARRA

"Bulgarian elur-malutaz jantzen dira neskak"

Alla Gheorghieva moldaviarra da izatez, baina Bulgariako gizon batekin maitemindu zen eta bi alaba ditu gaur egun bikoteak. Duela 12 urte etorri zen Aretxabaletara, eta, nahiz eta Gabonetako ohiturak moldatu dituen, ez ditu bere sustraiak alde batera uzten.

Moldaviarra zara, baina familia bulgariarra duzu. Nongo ohiturak mantentzen dituzue Gabonetan?
Egia esan, bi herrialdeek antzeko ohiturak dituzte, gauza txikietan baino ez dira desberdintzen.

Eta zeintzuk dira ohitura horiek?
Herrialde gehienetan bezalaxe, askotariko ohiturak ditugu; esaterako, hara ez doa Olentzero, baina bai Bizarzuri. Bizarzurik erregina-laguntzailea du, *Elur-maluta* delakoa. Eta elur-malutaz, hain justu, janz-

ten dira neskak. Euren zeregina da Bizarzuriri laguntzea eta Bizarzuriren beldur diren haur txikiak lasaitzea.

Jan ere bapo jango duzue.

Bai, noski. Etxera datozen gonbidatuei asko gustatzen zaien plater bulgariar bat, esaterako, *banitsa* da. Bistara tortilla bat ematen du, baina ez du zerikusirik: hostopil bat da, gazta zuriarekin eta arrautzarekin beteta. *Banitsa*-ren azpian, datorren urtean izan dezakezun zortea iragarriko duten papertxoak sartzen dira. Gurean, broma bezala, etxeko lanak jartzen ditugu; esaterako, mahaia jaso, platerak garbitu... eta halakoak.

Zein esango zenuke dela Bulgariako edo Moldaviako Gabonen eta Euskal Herrikoen arteko desberdintasun nagusia?

Datak. Gabon zahar gaua egun berean ospatzen da, baina Eguberria abenduaren 25ean izan barik urtarrilaren 14an izaten da. Eta hori gaur egun, demokrazian. Komunismo garaian erlijioa ez zegoen horren garatuta bertan eta azken hori ez zen ospatu ere egiten.

Faltan igarriko dituzu zure herrialdeko Gabonak.

Bai, asko. Hala ere, aspaldian ez gara joaten. Han, garai horretan elur mordo egi-ten du; metro pasa beti, eta, askotan,

hegazkinak ezin dira aieratu. Lanean jaiegunak kontatuta ditugu eta ezin gara hegaldiak galtzen edo atzeratzen ibili, inoiz ez dakizulako zer gerta daitekeen. Horregatik, hara joateko, oporrak lasaitasunez hartu behar dira.

"Komunismoan erlijioa ez zegoen garatuta han eta Eguberria ez zen ospatzen"



HOTEL JATETXEA SANTA ANA ★★★

Uribarri 37 (Udala bidean) Arrasate
Erreserbak: **943 79 49 39**
www.santaanamondragon.com

Santamas bezperan afariak emango dira.



GABONETAKO MENUAK

MENU 1

Entsalada epela gulekin

•
Perrebixko eta tipulinen nahaskia
•
Bakailaoa plantxan pistoarekin eta panaxearrekin edo
•
Ahate-konfita panadera-patatekin
•
Gazta-tarta andere-mahats eta mugurdi marmeladarekin edo
•
Xixona turroi izozkia
•
Eredun urteko ardoa

22 €
(BEZa barne)

MENU 2

Iberikoak

•
Entsalada epela gulekin eta ganbekin
•
Bieira betea
•
Legatz eta langostino broxeta
•
Azpizuna plantxan piperrekin eta patatekin (1/2)
•
Aingeru-torrada intxaur-saltsarekin edo mango-sorbetea
•
Sonsierra ardo ondua
•
Kafea

33 €
(BEZa barne)

Eguneko menua: 18,50 € (kafea eta BEZa barne).

Gabonetako opor bezperan eta Errege egunerako menu bereziak.

Karta

Enpresentzako catering-a (kafea, etxeko pastak, pintxoak, arrazioak...)

Etxera eramateko janaria prestatzen dugu.

Neguan, jangelan zerbitzatuko da: Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

Meriendak – Txokolatea + txurroak – 3 € BERRIA!



Swejan eta bere lagunak Gabonak ospatzen. | SWEJAN ADHIKARI



SWEJAN ADHIKARI | OÑATIN BIZI DEN NEPALDARRA

"Nepalera ez da Olentzero joaten, ezta Bizarzuri ere"

2012a ezkerro bizi da Swejan Adhikari Oñatin, eta ordutik ez da Nepalera joan. Nahiz eta bere herrialdeko Gabonak oso desberdinak ez izan, familiaren eta lagunaren epeltasuna faltan igarriko duela onartu du.

Azaldu nolakoak diren Nepalgo Gabonak.

Ba, egia esan, ez dira hemengoe-kin alderatuta oso desberdinak: mendebaldeko gizarteak horretan eragin nabarmena izan duela bistakoa da. Gabonetako zuhaitza jartzen dugu etxeetan, opariak egiten dira, dendetako erakusleihoak Gabonetako apaingarriz josita daude, kalean dagoen giro alai nabarmena da...

Antzerakoak bai, baina Olentzero ez da, ba, haraino joango...

Ez, noski, urrun samar dago Nepal. Ez da ez Olentzero ez Bizarzuri joaten.

Zer egiten da, ba?

Abenduaren 24a eta 31 ospatzen dira; 25a eta urtarrilaren 1a, ez. Familian biltzen gara, guztiok batera afaria egiten dugu, xanpaina edan... eta gauean kalera irteten gara lagunak, parrandan. Kontzertu eta jaialdi berezietara joaten gara, normalean. Egun bereziak izaten dira guretako. Bestetik, esan dudan moduan, urtarrilaren 1ean ez da bestelako ospakizunik egiten, baina jaieguna da: dendak itxita daude, baita ikastetxeak ere. Horretaz gainera, aipatzekoa da abenduaren 30ean dendek deskontu bereziak egiten dituztela, Gabonetako erosketei begira.



Gabonetan Chenen familiak egindako plater batzuk. | DING CHEN



DING CHEN | ARRASATEN BIZI DEN TXINATARRA

"Guretako, familian biltzea da garrantzitsuen"

Ding Chenen familia txinatarra da, baina bera Arrasaten jaiotakoa da. Noizean behin izan da Txinan, baina inoiz ez Gabonetan. Hala ere, onartu du bere familiak garai horietan ospatzen dituzten ohitura batzuk mantentzen dituela.

Txina ohituraz jositako herrialdea da; Gabonak ere garrantzitsuak izango dira, ziurrenik.

Bai, askotariko ohiturak ditugu, baina Gabonak ez dira ospatzen, urte berria baizik. Mendebaldeko ohitura bat da Gabonetakoa, eta, nahiz eta gaur egun oso hedatuta dagoen jaia den, ez dugu berezko ohituratzat. Urte berria, udaberriko jai izenez ezaguna ere, egutegi txinatarra kontuan izanda urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra bitartean ospatzen da urtearen arabera, ilar-

giaren egutegiarekin lotuta baitago: aurten, otsailaren 8an izango da.

Urte berria aipatu duzu...

Bai. Hamabi animalia ditu egutegi txinatarrek: hamabi urtean behin animalia desberdin baten urtea da eta hori bera ospatzen dugu, hain justu. Orain, 2015ean, ahuntzaren urtean gaude eta tximua-renean sartuko gara 2016an. Animalien kontu hori horosko-poarekin lotuta dago: urte horretan jaioko direnen izaera baldintzatzen duela esaten da.

Eta nola ospatzen duzue?

Esan bezala, nik ez dut inoiz nire haragitan hori bizi izan, baina, etxean entzun dudana gatik, Txinan izuga-

rrizko giroa egoten da ospakizun horretan; txinatarrendakojai garrantzitsuen da. Petardo, etxafuego eta su artifizial mordo botatzen dira kaleetan, eta pelikuletan ikusten den moduan, dragoi erraldoi baten moztorrean jende mordo ibiltzen da kalean giroa alaitzen: jai-giro itzela egoten da, ikuskizun hutsa. Arte martzialetan oinarritutako dantza batzuk ere egiten dituzte. Bestalde, guretako, familian biltzea da garrantzitsuen:

"Ahuntzaren urtean gaude eta tximua-renean sartuko gara 2016an"

mahaia- ren bueltan senide guztiak esertzen gara eta tripa-festa eder- rra egiten dugu. Fun- tsean, guztiok bil- tzeko aitzakia da; nik, behintzat, horrela sentitzen ditut Gabonak.

Eta, gainera, gastronomia bereizgarria duzue Txinan. Zer jaten da egun horietan?

Itsaskiak eta arraina, batik bat. Bes- tela, tallarinak, enpanadillak... jana- ri txinatarra, orokorrean.



Janira



IMPETUS



felina

Urtaza

Lentzeria • Mertzeria • Kortsetegia
Gabon zoriontsuak!

Kale barria 14. Oñati • Tel.: 943 78 01 89


TRIKITX

PAPER ETA JOSTAILU DENDA

Eguberri on!

Kale Barria, 44 -20560 Oñati • T. 943 08 82 28
egin@trikitx.eus • www.trikitx.eus





Gallo eta bere lagunak Gabonetan mozorrotuta. | MARCELO GALLO



MARCELO GALLO | GATZAGAN BIZI DEN EKUADORTARRA

"Nobenan, Jesusen figura herritarren etxeetan dago"

Lehenengo urteak Angiozarren pasa zituen eta duela 11 Leintz Gatzagan bizi da Marcelo Gallo. Aspalditxo ez da Gabonetan bere herrira bueltatu; Chanchalo Ekua-dorko herri txiki-txiki bat da eta bertan fedea oso hedatuta dago. **Gabon erlijiosoak izango dira Chanchalokoak.**

Bai, oso. Abenduaren 25erako bederatzi egun falta direla, nobena hasten da. Eta bederatzi egun horietako bakoitzean, elizako Jesusen figura herritar baten etxean egoten da. Orduan, figura dagoen etxera joaten da jendea Gabon-kantak abestera festa-giroan. **Eta Eguberri egunean meza.** Mezara joaten da herri osoa eta haurrak mozorrotu egiten dira. Ostean, bazkaria egiten da.

Gabon zahar gaua ere ospatzen duzue?

Bai, jai handi bat egiten dugu herriko plazan. *Los años viejos* (urte zaharrek) deitzen diogu jaiari. Las-tozko panpina egiten da bi egun lehenago eta herriko aitona bat aukeratzen da bere arropa zaharrak panpinari janzteko. Urte berria iristen denean, panpina hori erretzen da urte zaharra agurtzeko.

Zer edo zer berezia jango duzue. Gabonetan, postrerako oso tipikoak dira kauserak, eta horiek jaten ditugu; baina, bestela, ez dago plater bereizgarririk.

Eta Olentzeroren arrastorik? Ez Olentzero, ez Bizarzuri, lekutan dago-eta galduta Chanchalo. Gaur egun, agian, opariren bat eroriko da, baina nire haurtzaroran ez,



Saharako ospitale batean arkumearen eguna ospatzen. | SALEH SALEK



SALEH SALEK | ARRASATEN BIZI DEN SAHARRA

"Gabonetan turismoak gorakada izan du Saharan"

Duela 26 urte utzi zuen Saleh Salek sahararrak bere herrirako eta ordu-tik ez da bueltatu. Gaur egun, Arrasaten bizi da eta Debagoieneko sahararren elkarteko ordezkaria da. **Saharako Gabonez pare bat hitz.** Ez dira askorik ospatzen. Urte berria baino ez da ospatzen, gainontzeko egunak kristautasunarekin lotuta baitaude, eta gu islamekoak gara.

Bestalde, azkenaldian, turismoak gorakada garrantzitsua izan du Saharan eta jende asko joaten da Gabonak igarotzera: hori horrela, turistek *mendebaldeko Gabonak* ospatzen dituzte bertan.

Hala ere, zuk urte mordoxka daramatzazu etxetik kanpo.

Bai, egia da. Gabonak hemengo jaiak direnez, hemen bizi naizenetik lagunak gonbidatu naute euren

etxeetara afaltzera; erlijioari garrantzia kenduta, eurekin ederto pasatzeko une bikaina da.

Baina islamarekin lotutako antzeko jairen bat baduzue?

Bai, baina ez da derrigor Gabon garaian ospatzen. Aurten, esaterako, nire alabaren urtebetetze egunean izan da, irailaren 24an. Urtero hamar egun aurreratzen da, ramadana bezala. Gutxi gorabehera, ramadana baino bi hilabete geroago ospatzen dugu hori. Jai horretan, islamak agintzen duen Mekarako peleginazioa ospatzen da. Gure-tako, Gabonen baliokidea dela esango nuke.

Eta zer egiten duzue?

Oso leku txiroa da eta ez pentsa ospakizun bereziegirik egiten denik. Abesti tipikoak eta gure iraultza abestia abesten ditugu. Azken hori ospakizun guztietan kantatzen dugu; oso emotiboa da guretako. Bestela, arropa tradizionala jantzi -*Darâa* gizonezkoek eta *Malhfa* emakumeek-, hennarekin eskuak apaindu, lohi-etxe batean bildu, tea hartu eta elkarrekin egoten gara gau osoan abesten eta berriketan.

Nola bizi duzu hori hemen?

"Oso leku txiroa da eta ez pentsa ospakizun bereziegirik egiten denik"

Lagunek Gabonetan euren etxeetara gonbidatzen nautenez, nahiz eta nire erlijioarekin zerikusia ez duen jai bat den, nik gauza bera egiten dut. Baz-

karia egiten dugu etxean, Saharako janaria jaten dugu, abestu...

Zer jaten duzue? Plater berezirik baduzue?

Edozer gauza; halako egun bereziagoetan okela jaten da, normalean arkumea, kuskusarekin edo.

Gabonetan erabili Goiena Klubeko txartela!



Deskontuak eta abantailak honako komertzio hauetan:

ADATS ILE-APAINDEGIA - Bergara
AKER TATTOO&PIERCING ESTUDIOA - Arrasate
ALDAPE JATETXEA - Arrasate
ALZU, S.L - Oñati
AMUEBLADORA MONDRAGONESA - Arrasate
ARKAUZ OPTIKA - Oñati
ARRASATE HOTELA - Arrasate
ARRIKRUTZ KOBAK - Oñati
AQUARIUM - Donostia
AZPEITXI JATETXEA - Bergara
AVENIDA TABERNA - Arrasate
AZUL ILE APAINDEGIA - Arrasate
BUENUENA JATETXEA - Arrasate
CARAVANAS OÑATE - Oñati

COT ILE APAINDEGIA - Antzuola
dOr ESTETIKA - Oñati
EGAZKA TABERNA - Arrasate
ESKO SPORT - Eskoriatza
ESTACION SERVICIO ARRASATE - Arrasate
ETXEBERRIA - Bergara
GAES - Arrasate / Bergara
GAHIR FISIOTERAPIA/OSTEOPATIA - Eskoriatza
GIARTZU GIMNASIOA - Bergara
GORKA ILE APAINDEGIA - Arrasate
GRACIAN MERTZERIA - Bergara
GUZTIZ EDER - Oñati
HAURTZOXA - Arrasate
HILARION - Arrasate

IMPRESPAL - Bergara
INSTITUTO OPTIKOA - Arrasate/Bergara
IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA - Bergara
IZADI BELARDENDA - Arrasate
JAUJA KIROLAK - Bergara
JUANITOSA - Oñati
KUTTUNA - Eskoriatza
LASTAI - Gasteiz
LILURA - Bergara
LONBIDE - Bergara
MARKIEGI - Arrasate
MIREN GARAI - Arrasate
ML ILEAPAINDEGIA - Arrasate
MULTIOPTICAS - Arrasate/Bergara

MUJIKI SASTRERIA - Bergara
NAREN - Aretxabaleta
NEBRASKA - Arrasate
NINIKA - Bergara
OÑATI GARAJEA - Oñati
PARLANCE - Arrasate
PORTALOI OPTIKA - Arrasate
P. MANSO OPTIKA - Bergara
RESUSTA- KARRIKIRI - Arrasate
SARA MERENDERUA - Arrasate
SESIÑENA - Oñati
ZABALA JATETXEA - Bergara
ZURICH ASEGURUAK - Oñati

ESKAINZA EGUNERATUAK IKUSTEKO: <http://goienakluba.com>

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Opariak eskatzen: zer eta nori?

Olentzero eta Erregeak etortzeko geratzen diren egunak zenbatzen dabilta haurrak

IRAIA GUTIERREZ
ESKORIATZA



"Aurten ondo baino hobeto portatu naiz eta jostailutxo batzuk eskatuko dizkiot Olentzerori: bi panpina, gezurretako tatuajeak-eta egiteko makinatxo bat, besteak beste. Errege Magoei, egia esan, oraindik ez dut pentsatu zer eskatuko didan. Eurek gura dutena ekartzeko eta ongiatorria izango da".

MANEX JUARISTI
OÑATI



"Aurten Olentzerori zezenak eskatu behar dizkiot. Jostailuzko zezenak, sokamuturretan jolasteko lagunekin. Eta hesiak ere bai. Erregeei, berriz, ezer berezirik ez, oraingoz. Ekar dezatela eurek gura dutena. Sorpresa. Baina Olentzerori, zezenak, hori seguru".

AINHIZE SAEZ DE BITERI
LEINTZ GATZAGA



"Gabonetan patinetan ibiltzeko ikastaroa dugu Gatzagan eta nireak txikiegi gelditu zaizkit. Beraz, Olentzerok nire zenbakiko patin berriak ekarri beharko dizkit. Eta Erregeek ea trialeko bizikleta ekartzen didaten: bizikletan eskailerak jaisten badakit dagoeneko".

DANEL BALANTZATEGI
BERGARA



"Aurtengo Gabonetarako, Real Sociadadeko jokalaria Imanol Agirretxek sinatutako ekipamendua gurako nuke; bestetik, Euskal Herriko eskumuturrekoa; eta azkenik, *Wii* kontsola, lagunekin-eta jolasteko. Gainera, opari horiek guztiak Olentzerori eskatuko dizkiot".

UXUE URZELAI
ARETXABALETA



"Tabletako kargadorea hondatuta daukagu, eta berri bat eskatuko diot Olentzerori. Amamaren eta izebaren etxeetan hainbat jolas uztea espero dut: eskulanak egiteko materiala, mikroskopioa eta halakoak. Errege Magoek... ez dakit; hortaz, zerbait ekartzen badidate, ni neu pozik".

ARITZ GONZALEZ
ELGETA



"Urtero idazten diot gutuna Olentzerori eta nik neuk eskura ematen diot Elgetara jaisten denean Intxortatik. Urtero etortzen da herrira. Jostailuak eskatzen dizkiot, normalean; hiru. Eta eskatutako guztia ekartzen dit. Aurten oso ondo portatzen saiatu naiz, gainera".



Gabon zoriontsuak guztioi!

EROSKI
ARRASATE



Musakola auzoa z/g • ARRASATE • Tel.: 943 71 10 30
www.eroski.es

Gabon jai zoriontsuak



Mima ezazu zeure burua
Aurpegi hidratazioa + masaje erlaxagarria
80€

"Pindas" masajea
Ekialdeko masajea, nekearen
eta estresaren aurkakoa
70 €

Aurpegiko hidratazioa
Azal hidratatua, bizia eta leuna;
zetazko ukipena
55 €

Ion Bao masajea: 5 sentimenez gozatzuz
Masaje erlaxagarria olio esentzialekin
50 €

Eskaintza zabala poltsa eta osagarrietan.
Sartu gure webgunean

www.lirainestetika.com

Laser plataforma

Diodo Lightsheer
Alejandrita
IPL-Arri Pulsatua



Hanka osoak 100 €
Izterrondoak 50 €
Besapeak 45 €

Hanka osoak+izterrondoak+
besapeak 150 €

LIRAIN
ESTETIKA ZENTROA



RPS: 48/14

Ez da osasun zentroa

Bixente Ferrer, 1 ARRASATE
Tel.: 943 79 52 17

Gabon usaina darie kale eta denda inguruei

Aretxarte merkatarien elkarteak eta Udalak hainbat kanpaina jarriko dituzte abian gaurtik

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkarteak kideak Gabonak girotzeko gertu daude Udalaren laguntzarekin. Gaztaina saltzailea dagoeneko gonbidatu dute, eta hurrengo bi eguaztenetan, hilaren 16an eta 23an, ere etorriko da. Orduan txartelak banatuko dituzte bezeroen artean gaztainak debalde jasotzeko.

Zigiluen kanpaina

"Hirugarren urtez egingo dugu zigiluen kanpaina eta dagoeneko banatzen hasita gaude txartelak", jakinarazi du Idoia Elexpuruk, Aretxarte presidentea. Aurrekoetan legez, tabernetan eta komertzioetan banatuko dituzte txartelak eta sei zigilu ezberdin jarri beharko dira horietan abenduaren 31 bitartean, gero zozketan parte hartu ahal izateko. Sariak izango dira bost bidaia eta 50 euroko hoge bonu.

Bestalde, aurten ere gertatu dituzte egutegiak Aretxarte kideek. Datorren astean banatuko dituzte horiek, eta oraingoan ere "harrituta" utziko dituztela herritarrek jakinarazi dute.

'Herrixe dantzan' bideoa

Herrixe dantzan! 166 ilusio, 166 opari ekimena ere jarriko dute abian Udalarekin batera. Oraingoan ere hamar euroko 166 bonu izango dituzte banatzeko merkatariak eta tabernariak. "Astelehenean, abenduaren 14an, hasiko gara banatzen bezeroen artean agortu arte", dio Elexpuruk. Ekimen horri lagun egiteko bideoa egin izan dute azken urteotan, eta aurten ere ez dute hutsik egingo Ibai Zangituk eta Mikel Alberdik.

Erakusleho lehiaketa

Bestetik, erakusleho lehiaketa deitu du gaurtik hilaren 23a bitartean Udalak. Ez dago izenik eman



Gaztaina saltzailea eguaztenean, Mitarte kalean. | MIRARI ALTUBE

beharririk eta ohiko produktuekin apainduta egon beharko du denak epe horren barruan. Epaimahaia osatuko du aditu batek eta kontuan hartuko ditu beste batzuen artean erakuslehoaren

kalitatea, originaltasuna, eragin-kortasuna eta argien erabilera.

Saria banatuko dute hilaren 23an: plaka eta ezustekoa. Eta euskarazko mezu politenak ere izango du saria.

Neguko azoka lehenengoz herrian

Abenduaren 18tik 20ko eguerdia bitartean aretxabaletarrek aretxabaletarrendako egindako azoka izango da Herriko Plazan. Berogailua duen karpa handia jarriko dute han eta herriko ekoizleak, artisauak eta merkatariak elkartuko dira, 23 postu guztira. Ekoizleak izango dira honako hauek: Mendibitsu, Etxezuri, Jose Lonbide, Jakion eta Gatzagako Gatz Museoa. Artisauak: Miriam Carretero, Izaro Sanchez, Ane Gonzalez, Mikel Unanue eta Julen Landaluze. Aretxarte merkatariak: Belar Meta, Amaia haur denda, Atai, Tinta Beltza, L-10 ile-apaindegia, Txilarra, Brasileña eta Orly eta Txakoli tabernak. Eta herriko taldeak: Hiruatx, UDA, Zaria, Leizarra musika eskola eta Okila.

Abenduaren 18an zabalduko dute azoka, 18:00etan, musika eskolako ikasleen Gabonetako kontzertuarekin; zapatuan goiz eta arratsalde egongo da zabalik eta domekan goizez.

Errolda ikusgai hondakin en galdeketarako

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaletako Udalak jakinarazi gura die herritarrei hiri hondakinak biltzeko sistemaren gainean egingo den kontsultan erabiliko den hautesleen errolda jendaurrean jarri dutela ikusteko abenduaren 15a bitartean. Hala, erroldako datuak zuzenak diren egiaztatu ahal izango da. Datu horiek zuzenak ez badira, erreklamazioa aurkezteko epea egongo da.

Kontsulta egunean egongo diren mahai, hautesleku eta sekzioen zerrenda ere jendaurrean izango dute abenduaren 15a arte.

Posta bidez botoa ematen laguntzeko gertu daude batzokian

Aretxabaletako EAJko Uri Buru Batzarreko kideek jakinarazi dute posta bidez botoa eman gura dutenek laguntza jasoko dutela batzokian. Astelehenetik egubakoitzera bitartean egongo dira han, 11:00etatik 13:00etara. Botoa bidaltzeko azken eguna abenduaren 17a da, eguna.

AZKENEKO ERAIKINA
ARRASATE / URIBARRI

Baldintza berriak
943 31 68 68
www.sukia.com

2x
3x



Logelak



Garaje itxiak



Espazio osagarri
batekin



Bista irekiak



Hornitutako sukaldeak



Armairuak

sukia GEDI

FINANTZAKETA:



90 urteko bazkideak omenduko dituzte Basotxon domekan

Santa Luzia egunez urtero egiten duten ospakizuna da eta dantzariak, Basotxoko kantu taldea eta trikitaliak elkartuko dira omenduen inguruan

MIRARI ALTUBE | ARETXABAETA

Urtean 90 urte bete dituzten bazkideak omentzeko ohitura dute Basotxo erretiratuen elkarteak Santa Luzia egunez, eta domekan ere halaxe egingo dute. Zortzi dira aurten, eta 17:00etan izango da ospakizuna elkarteak.

Ohorezko aurrekuarekin egingo diete harrera omenduei, sei emakume eta bi gizon, eta ondoren, Basotxoko katu taldearen ekitaldixoa izango da. Opariak jasoko dituzte gero zuzen-

daritza batzordekoen eskuetatik, eta ospakizuna bukatzeko txokolatea banatuko diete elkartutako guztiei trikiti doinuek girotuta.

Santo Tomas eguna

Abenduaren 21ean, ostera, Santo Tomas eguna ospatuko dute. 11:00etan, Gabonetako 40 otarre zozketatuko dituzte. Eta 17:00etan txistor-jana izango dute. Hori aprobetxatuta, Demetrio Iriarte, elkarteko lehenengo lehendakaria, omenduko dute.

OMENDUAK

Maria Rosario Alberdi Barrena

Antonia Arana Etxabe

Apolonia Gartzia-Etxabe Ugarte

Benito Domaica Sagastui

Isabel Bengoa Ezkibel

Gregoria Iñurrategi Etxebarria

Carmen Urrutia Ibabe

Carmelo Igartua Barrutia

Txaro Gallego | Aktorea

"Amets bat izan ostean egindako ikerketa lana da antzezlan"

Abenduaren 18an *Suerte* bakarrizketa estreinatuko du Arkupe kultura etxean

M.A. | ARETXABAETA

Nafarroako antzerki eskolan hasi zuen aktore ibilbidea Txaro Gallego (Aretxabaleta, 1976) eta ia hamahiru urte Madrilan egin ondoren bueltan da. Abenduaren 18an, berak idatzi eta ekoiztutako lana aurkeztuko du Arkupe. **Etxean estreinatua gura zenuen zure lehen lana eta lortu duzu.**

Zerbait argi banuen zen Aretxabaletan, etxean, estreinatzea. Eta oso pozik nago, babes handia jaso dudalako, bai lagunengandik, bai Kultura Saileko kideengandik, eta orokorrean herritarrengandik. **Zeuk bakarrik sortu duzu lana.**

Bai; testu guztiak, kantuak... Egia esan, kantuak konposatzen Esteban Mulas eta Iñigo Zubizarreta musikariek lagundu didate. **Hortaz, oso lan pertsonala da?**

Bai; ikerketa baten ondorioa da. Amets bat izan nuen behin eta *zorte* berba etorri zitzaidan burura. Madrilgo kaleetara atera nintzen eta zer zen zortea galdetu nien hiritarrei: eskaleei, loteria erosteko zain zeudenei, prostitutei... Erantzunetatik abiatuta idatzi nituen testuak, eta horiek osatu neuri zein lagunei gertatutako kontuekin.

Eta guztiak elkartu dituzu...

Bai; poesiak, ipuinak, kantuak... elkartu ditut. Testu solteak direla iruditu arren hasieran, poliki-poliki dena osatzen joango da eta guztiak zentzu hartuko du. **Oholtza gainean bakar-bakarrik egongo zara; ez zaitu izutzen?**

Hasi aurretik bai, ihes egingo nuke takarradan, baina behin jendaurrean jarritakoan ez. Orduan, lan hori ikusleekin partekatu gura dut.

Lagunen eta herrikideen aurrean biluzteak dizu erparorikematen? Ez, neuri gertatu izan balitzait



Txaro Gallego, *Suerte* laneko une batean. | MIKEL ZAMORA

"Iraileko entsegu saio irekiaren ostean besarkadak jaso nituen kalean"

moduan kontatu arren, guztiok bizi izan ditugulako halako egoerak. Guztiok topatu gura izan dugu geure bizitzako amodioa, guztiok galdu dugu norbait... Hortaz, betiko gaiak dira. Eta baliteke ikusleak identifikatuta sentitzea harekin edo horrekin. **Work in progres edo herritarrei zabalik dagoen entsegu saioa egin zenuen irailan. Zelako harrera egin zizuten?** Ikaragarrikoa. Hurrengo egunetan besarkadak jaso nituen kalean eta nik uste dut horrekin esan gura zidatela: "Eskerrik asko, barruraino iritsi zait...". **Zein gonbidatuko zenuke *Suerte* ikustera?**

Edonor, bai gaztetxoak, bai nagusiak. Gai asko lantzen ditut: amodioa bilatu nahia, desioa, bakardadea, heriotza... Eta zortea, bizitza bera delako zortea. Oinarrian etengabeko bilaketa bat dago.

Gustura geratu zara lanarekin?

Bai, oso gustura. Baina lana ez dago itxita; beti dago aukera beste gai bat, beste kantu bat... sartzeko, eta ikusleen iritziei ere zabalik nago.

Ikerketa-antzerkiaren aldekoa zara...

Bai, zalantza barik; antzerki klasiko hori dago, baina nik nahia dut ikerketa-antzerkia; norberak sortu, ikertu, probatu... Ikusteko ere klasiko baina lehenago hautatuko nuke halako bat. **Aretxabaletarrek antzerki mota hori ulertuko dute?**

Bai. Antzerki heziketa falta da gurean, ez dago ohiturarik, baina publikoak inteligentia da eta ulertuko du. Triste da gero jendea gehiago ez joatea antzerkia ikustera...

NIRE USTEZ

NURIA FERNANDEZ DE ARROIABE



Erabagixaren arua hasi da!

Zueittako gehixentxuenok honezkero badakituzue Euskal Herrixen badaue-la herrixen sortutako inddar bat, gure herrixarendako zelako etorkizuna gura dogun erabagitteko eskubidiaren alde lanien dabilena. Jakin badaikituzue, gairera, Gure Esku Dago daukela izena eta, soseguz baiña moldez, biherrezko pausuak emuten dabilrela, herritar danon arteko kohesiñua, elkarlanerako esparrua eta sinergia topau guran.

Igezko giza katai zarragarrixaren eta aurtengo haute-

tsontzi erraldioen ostien, noiz eta zela erabagi definituteko sasoi ailegau jako Gure Esku Dago. Eta horrexetan jardun dau azkenaldixen. Zemendixen 21ien, bi hilleko hausnarketa-prozesuaren ostien, ezohiko batzarra egin auen Gasteizen, eta erabagi auen tokixen tokiko erabagitteko adierazpenak bultzatu biherko diela lehengo, gero Euskal Herriko ituna egitteko.

Hortan, ekittia toketan jaku oin. Goixerriko 22 herrixetan, Diman eta Ispasterren adibidez erabagi daue, ja, datorren urtien galdeketa egittia, eta hasitta ekin dotsie bidiari, Etxarri-Aranatzekuen eta abarren ereduari jarraituta.

Debagoixenien be hortxe gabitx, alkartu eta pausuak emun guran. Horretarako, baiña, zure laguntasuna ezinbestekua da. Emuiguzu zeure esku, zeure esku be badau eta!

Ane Etxabek irabazi du irakur punturako marrazki lehiaketa

M.A. | ARETXABAETA

Aretxabaletako Udal Liburutegiak 2016an banatuko duen irakur puntuan agertuko den marrazkia Ane Etxabek egindakoa izango da. Hark irabazi du lehiaketa, eta 150 euro jaso ditu.

208 lan, guztira

Lehenengoz 12 eta 16 urte arteko gazteei egindako deialdira 208 lan aurkeztu dituzte, eta epaimahaiko kideek jakinarazi dute marrazkiaren originaltasuna baloratu dutela Etxaberen hautatzerakoan: "Marrazkia ezberdina da alde batetik edo bestetik begiratu". Gazte aretxabaletarra Kurtzebarri institutuko DBHko hirugarren mailako ikaslea da.

Marrazki guztiak ikusgai jarriko dituzte datozen egunotan Arkupe kultura etxean.



Marrazki saritua.

OHARRAK

BANDAREN EMANALDIA

Leizarra musika eskolako bandak kontzertua emango du gaur, egubakoitza, 19:00etan, Arkupe.

IPUIN KONTALARIA BIHAR

Pantzar Teatro taldeak *Amilami* ipuin kontaketa saioa eskainiko du bihar, zapatua, 11:00etan, Arkupe.

8 APELLIDOS CATALANES

Datozen bi aste bukaeratan emango dute *8 apellidos catalanes* filma Arkupe. Umeek, ostera, *Hotel Transilvania* dute.

DANTZA INPROBISAZIO EMANALDIA

Jaiki elkarrekin dantza inprobisazio saioa egingo du eguaztenean, hilaren 16an, 19:00etan, Arkupe.

Tonbola jarriko du musika eskolak abenduaren 18an

Ez dadila instrumentu faltagatik izan! izenarekin musika instrumentuak eskuratzekeo ekimena jarriko du abian Leizarra musika eskolako. Helburua da erosteko aukerarik ez dutenei laguntzea, eta, horretarako tonbola jarriko dute abenduaren 18an, 18:00etan, Herriko Plazan egingo duten Neguko Azokan.

Tonbolarako zenbakiak lortzeko bi bide egongo dira: bi eurotan txartelak erostea; eta dagoeneko erabiltzen ez den etxeko instrumenturen bat ematea eta trukean txartela jasotzea. Egunean bertan eraman daitezke instrumentuak tonbolara. Jasotako dirua izango da instrumentuak konpontzeko eta berriak erosteko.



Iaz, Aretxabaletako ez ohiko plenoan batutakoak talde argazkian. | GOIENA

ESKORIATZA

Bailarako bertso eskola Gazteen Topaketa egingo da gaur, Zaldibarren

Prestatutako bertsoak, jolasak, eta bat-batekoak egingo dituzte gaztetxoek oholtza gainean

I.B | ESKORIATZA

Urteari amaiera emateko, Hantkamotx bertso eskolak, bailarako bertso eskoletako gazteak elkartuko ditu gaur, Zaldibar antzokian. Aretxabaletako Lekaiokoa bertso eskolako gazteak, Aramaiokoa, Arrasatekoak, Bergarakoak eta Oñatikoak batu dira, eta bertsoez jositako arratsalde pasako dute lagun artean.

Urtero egiten duten hitzordua izan arren, lehen aldiz antolatuta da Bertso Eskola Gazteen Topaketa Eskoriatzan, eta gutxi gora-behera 25 lagun elkartuko dira Zaldibar antzokian, 18:00etan.

Bertso-joko ezberdinak

Bertsoei hasiera eman aurretik, batzen diren guztiak merienda bat egingo dute antzokiaren kanpoan, oholtzara igo aurretik.



Iaz, Lekaiokoa bertso eskolak antolatu zuten topaketa. | IMANOL SORIANO

Bapo jan ondoren, bertso eskola bakoitzak aurrez prestatutako bertsoak abestuko dituzte. Gero, hainbat jolas dira, eta horretarako bertso eskoletako gazte guztiak elkarren artean nahastuko dira. Amaitzeko

berri, bat-bateko bertsoak egingo dituzte, bakoitzak bere abileziak erakusteko. Dibertsioa, umorea, Sarrera doan izango da, eta bertsoekin gozatu nahi duenak aukera dauka bertara joateko.

ESKORIATZA

Zerendepya taldearen rock instrumentala bihar

I.B | ESKORIATZA

Zerendepya taldeak kontzertua eskainiko du bihar, Hotela tabernan, 19:30ean. Txus Gutierrez eta Iban Peñacobak osatzen dute taldea, eta musika instrumentala egingo dute, hainbat gitarrak jole ezagunen bertsoak zuzenean eskainiz. Joe Satriani, Eric Johnson, Andy Timmons... bezalako gitarrak jole ezagunen

bertsoak eskainiko dituzte. Bestalde, beraien lau kantu instrumental ere joko dituzte, eta Thin Lizzy talde irlandarraren abestiren bat ere joko dute besteak beste.

Emanaldi berezia

Oholtzan, Txus-ek gitarra joko du, eta Ibanek berri, bateria, baina beste hainbat instrumen-

tu ere entzun ahal izango dira. Txus Gutierrez aretxabaletarrak adierazi duenez: "Oholtzan bi izango gara, nik gitarra joko dut, eta Ibanek bateria. Baina aurrez beste hainbat instrumentu grabatu ditugu baxua, pianoa... esaterako, eta grabatuta ditugun instrumentuak jotzen ari garenekin bat entzungo dira".

ESKORIATZA

Toberaren harira, ez ohiko osoko bilkura txantxa eran

Alkate eta zinegotzi faltsuek Aretxabaletatik etorritako akusazioa izango dute hizpide

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Aretxabaletak Eskoriatza akusatu du, Eskoriatza legearen aurrean gezurretan ibili dela esanez. Izan ere, iazko Toberan, "testigu faltsua" eraman zuela adierazi du Aretxabaletak. Eskoriatzako Udalak honi kontra eginez, ez ohiko osoko bilkura deitu du abenduaren 14, astelehenerako, akusazio horiei aurre egiteko.

Ez ohiko horretan, pregoilariak epaiketaren arrazoiak azalduko du, esanez: "Aretxabaletak ez duela epaia bete", eta akusazioari aurre egin, edo ez erabakitzeke batuko dira alkate eta zinegotziak. Osoko bilkurari 19:00etan emango zaio hasiera, eta bertan, Eskoriatza defenda-

tuko duen abokatua izendatuko da. Elkartasuna adierazteko herri eragile eta herritar guztiak osoko bilkurara gerturatzeko gonbidapena luzatu dute.

Iñuxente egunerako, Tobera

Tobera antzerki satirikoa abenduaren 28an, iñuxente egunean egin izan da azken urteotan. Aurtun, Eskoriatzan egingo da Manuel Muñoz kiroldegian, 19:30ean. Bosgarren aldiz egingo da, eta aldaketa ugari egongo dira ikuskizunean, ezusteko ugari, eta umorez beteta egongo da.

Aurtun, Aretxabaletak, Eskoriatza eroango du auzitara, eta hainbat trapezu zahar aterako dira mahai gainera.

ESKORIATZA

'Zuk zeuk sortu' tailerrean Gabonetako apaingarriak egingo dituzte Tortolis ludoteka apaintzeko

Hiru urte daramatza Tortolis Ludotekak *Zuk zeuk sortu* ekimenarekin. Umeen sormena, eta autonomia lantzeko hilean, bi aldiz egiten duten ekintza da. Gai ezberdinak izaten dira, baina oraingoan Gabonetako apaingarriak egingo dituzte ludoteka apaintzeko. Eguaztenean, hasi ziren, eta gaur, egubakoitzean, 17:30etan elkartuko dira apaingarriak egiten jarraitu eta amaitzeko. Material ezberdinekin nahi dutena egingo dute haurrek, pixka bat gidatuta.

LEINTZ GATZAGA

Bigarren eskuko azoka egingo dute abenduaren 20an, pilotalekuan

Gura duen edozeinek parte har dezake eta ez dago alde zuzenik izena eman beharrik

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Abenduaren 20a, domeka, 12:00etatik 14:30era udal pilotalekuan ez ohiko hitzordua antolatu dute herri ekimenetik: bigarren eskuko azoka. *Hustu ganbara!* izenburuarekin bataiatu dute eta emateko daukazun gauzak beste batek erosiko dituelako esaldiarekin, azokan parte hartzeko gonbita egin dute.

Horrela egin gura duenak egunean bertan 11:00etarako eraman beharko du azokan saldu gura duen materiala pilotalekura. Baina izango da material jakin bat ez dutena onartuko azokan: abereak, landareak, jatekoak eta edariak. Antolatzaileek abisatu dute, era berean, matxuratutako gauzak ere ez dituztela onartuko "salbuespenak salbuespen".

Prezioak

Parte-hartzaileek eramango dituzten gauzak gaika sailkatuko dituzte 12:00etatik aurrera salgai jartzeko. Eta dagoeneko pentsatuta dute materialari erreferentziatzeko ze prezio jarriko dioten: 1 eta 5 euroren artekoa jarriko dizkiete jostailuei, erremintei, koadroei, osagarriei zein apaingarriei (bisuteria); euro batekoa, berriz, liburuak; euro batetik hasi eta 10 eurora arte kostako dute jantziak eta bost eta 15 euro bitartean, berriz, etxeko tresna elektrikoak zein altzariek. Bukatzeko, gailu elektrikoak, DVDek, CDek, biniloak, kaseteak eta antzerakoak, produktuaren arabera prezioa izango dute.

14:30ak arte izango da azokan salerosketarako aukera; behin bukatuta, saldu ez duten mate-

rialak azokara eraman duenak erretiratu beharko ditu.

Dirua batzeko

Birziklapena eta berrerabilpena bultzatzeaz gainera, bigarren eskuko azoka honen bitartez dirua batu gura dute abenduaren 29an udalerrian egingo den beste ez ohiko ekimen batean laguntzeko: bi filmaren proiektzioa. Horietako bat da Asier Altuna *Kixi* bergararraren *Amama* filma, baserriaren eta kalearen arteko gatazka, tradizioaren eta bizimodu berriaren arteko talka, gurasoen eta seme-alaben arteko ezin ulertua irudikatzen duen filma. Bestea, berriz, da *Apodaka* izenburua duena. Gatzagar batek eta asteburuetan Gatzagan bizi den eibartar baten artean landu duten ikus-entzunezko laburra.

LEINTZ GATZAGA

Aparkalekuak, Dorletako obrak eta beste, osoko bilkuran

Eguenean, abenduaren 17an, 08:30ean egingo du Leintz Gatzagako udalbatzak urteko azkeneko osoko bilkura. Aurreikusitako gaien artean, herrigunean aparkalekuak sortzeko obraren bigarren fasea onartzea proposatuko zaio udalbatzari; aztergai izango dute, baita ere, Debagoieneko Mankomunitateak idatzi duen Harrera Protokoloa; baita ere joan den astean ospatutako Euskararen Egunaren bueltako adierazpen instituzionala; eta beste gai bat aipatze aldera, Dorletako santutegian egingo dituzten obrak hizpide izango dira.

Udalak eta Osakidetzak elkarlanean jardungo dute aurrerantzean

Protokolo sozio-sanitarioaren hitzarmena sinatu dute koordinazioa eta azkartasuna bermatzeko

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Iraileko osoko bilkuran onartu zen protokolo sozio-sanitarioa Antzuolan. Eta atzo, abenduak 10, hitzarmena sinatu zuten Antzuolako Udalak eta Debagoieneko Ospitaleak. Protokoloaren helburua elkarrekin lanean jardutea dela azaldu zuen Beñardo Kortabarria alkateak: "Hitzarmenean, eskualdeko osasun publikoko gaietan Udalak eta osasun erakundeak bat eginda, elkarrekin lanean jardutea jasotzen da. Adibidez, herriko jaietan *botilioia*-ren aurrean alternatiba bat bilatzea; edo tabakismoaren menpekotasunaren aurrean nola jokatu lantzea; eta noski, edozein larrialdi egoeratan elkarrekin jardutea Debagoieneko Ospitaleak eta Udalak".

Protokoloa

Bilakaera demografikoagatik, aldaketa sozial eta kulturalengatik eta, baita ere, gertatzen ari diren garrantzia handiko aurrerapen sozial arauemaiengatik garatu dute protokolo sozio-sanitarioa. "Pertsonen behar sozio-sanitarioak handitzen ari dira eta osasun sistemaren administrazioaren eta gainerako gizarte eragileen arteko lan koordinatua eta zeharkakoa garatzea ezinbestekoa da", azaldu du protokoloaren Debagoieneko Ospitaleko arduradunak, Andoni Alzelaik.

Hala, adostasun honi esker, osasunari eta gizarteari dagozkien beharrezkoak osotasunez



Protokolo sozio-sanitarioa sinatu dute Udalak eta Ospitaleak. | MAIDER ARREGI

erantzuteko koordinazio eremu bat garatzeko hitzarmena egin gura izan dutela diote Debagoieneko Ospitaleko ordezkariak. Betiere, era bizkor eta koordinatua eta asistentzian zehar egin daitezkeen hutsuneak ekiditeko asmoz.

Helburu nagusiak

Horregatik, protokoloak, urgentziazko arreta behar dutenen kasuetan, koordinazioa bermatu gura du. Baita erkidego mailako koordinaziorako beharrezkoak diren egiturak garatzea ere. Arre-

ta sustatzea ezinbestekotzat jotzen du hitzarmenak eta koordinazio sozio-sanitarioaren funtsezko elementua arreta bilakatzen du. "Osasuneko profesionalen eta udaletako gizarte langileen arteko harremana eta koordinazioa bultzatzea gura dugu hitzarmenarekin", gaineratu du Alzelaik.

Honi guztiari, gainera, jarraipena egin gura zaio eta ezarritako protokoloak betetzen ote diren aztertzea. Protokolo horietatik sortutako jardunbideei jarraipena eta ebaluazioa ere egingo zaie hau hobetzeko.



Kirol zinegotzi Garazi Larrea krosetako dortsala eskutan duela. | MAIDER ARREGI

Kirolez blai: urtea bukatzeko eta hasteko

Gabonetako krosetan eta 24 orduko areto futbol txapelketan parte hartzeko izena eman daiteke

M.A. | ANTZUOLA

Atzo, eguna, aurkeztu zuen Udaleko Kirol Sailak Gabonetarako prestatu duten kirol eskaintza. Izan ere, abenduan eta urtarrilean herrian kirolaz gozatzeko aukera izango da.

Gabonetako krosa

Antzuolan ez da inoiz Gabonetan ere kirola bultzatu gura genuen herritarren artean; abenduaren 26an, San Esteban eguna, herrian mugimendu handia egoten dela aprobetxatuta, krosa antolatu dugu", azaldu du Kirol zinegotzi Garazi Larreak. Adinaren arabera, hiru txandatako irteera eta ibilbidea izango du krosak: 5 eta 8 urte artekoak, 17:00etan; benjaminak, alebinak eta infantilak, 17:15ean; eta kadeteak eta helduak, 17:45ean.

Irteera gimnasiotik izango dute. "Izena abenduaren 20a baino lehen ematen dutenek izena dortsalean eramateko aukera izango dute. Egunean bertan ere eman ahalko da izena". Festa polita izango dela dio Larreak. "Parte-hartzaileen artean Ternua etxeko kirol materiala zozketatuko da", gaineratu du.

Areto futbol

Berriro berreskuratu da 24 orduko areto futbol txapelketa. "Urte pila batean galduta egon da 24 orduko areto futbol txapelketa; eta gazte batzuen ideia hartuta AKEk antolatzen erabakia hartu du, Udalaren laguntzarekin". Urtarrilaren 2an, zapatua, egingo da pilotalekuan. Izena liburutegian, udaletxean, gaztetxean eta gazte txokoan eman daiteke. Prezioa: 10 euro.

Aiherran ospatuko den senidetza festara joateko autobuserako izen-ematea zabalik

Aiherra-Antzuola senidetze eguna Aiherran ospatuko da aurten abenduaren 19an, domeka. Autobusa 16:00etan irtengo da. Izena eman gura duenak udaletxeko harreraren edo liburutegian eman dezake. Bestetak beste, ospakizunean Aiherra eta Antzuola herrien senidetzearen gaineko dokumentalaren azken zatia grabatu eta ondoren, aurkeztu egingo dute.

Autodefentsa ikastaroa antolatu du Gizarte Zerbitzuak urtarrileko bi zapatutan egiteko

Urtarrilean autodefentsa ikastaroko bi saio izango dira, Bidebarri Mankumunitateko Gizarte Zerbitzuak antolatuta. Urtarrilaren 9an eta 16an -biak zapatua- egingo dira ikastaroak. Izena emateko epea zabalik egongo da abenduaren 14tik 30era bitartean. Udaletxean edo Gizarte Zerbitzuaren Torresoroako bulegoan eman dezakete interesa dutenek. Ondorengo helbidera ere mezu bat idatzi daiteke izena emateko: gizarte@antzuola.com.



Baditugu karta txapelketako irabazleak!

Landatxopeko aurtengo karta txapelketak baditu irabazleak: musean, Jon Lizundia eta Gerardo Muñoz; tutean, Migel Montori eta Jose Mari Lezeta; briskan, Karmen Egaña eta Sabina Agirre; eta punttuan, Kontxi Mendizabal eta Migel Jaurgi.

KOMUNITATEA GOIENA | LANDATXOPE | ANTZUOLA

OHARRAK

TXISTOR-JANA

Landatxopen txistor-jana egingo dute abenduaren 22an, 17:00etan. Izena abenduaren 15ean eman daiteke 16:00etatik 18:00etara bitartean.

GABONETAKO KONTZERTUA

Abenduaren 21ean, musika eskolako ikasleen urteroko Gabonetako kontzertuaz gozatzeko aukera izango da 18:30ean hasita Torresoroan.



Eider Eibar ilustratzailea eta Miren Amuriza bertsolaria | ANBOTO.ORG

Mozambiken bizitakoak ekarriko ditu Amurizak

Bertso eta ipuin emanaldia eskainiko du berriztarrak Kultura etxean

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Kapulana bat zintzilik emanaldi berezia eskainiko du Miren Amuriza bertsolariak bihar, zapatua, 19:00etan, kultura etxean. Mundukide Fundazioa eta Lanku Bertsozale Elkarte dira antolatzaileak, Udalaren laguntzarekin.

Mozambikeri buruzko argazki erakusketa ibiltariaren harira sortutako emanaldia da *Kapulana bat zintzilik*. Argazki erakusketa kooperatibaz kooperatiba eraman du Mundukidek, eta orain herrietan erakusten dabilta. Erakusketa janzten du Amurizak bertso eta ipuinekin.

Oihal koloretsuak

Kapulanak Mozambikeko emakumeen oihal koloretsuak dira; soineko moduan, haurrei lepoan eusteko, jana biltzeko edota etxeak

apaintzeko erabiltzen dituztenak. Modu askotan erabil daitezke eta edozer aurki daiteke zapi handion estalpean.

Emanaldian, kapulana bat zabalduko du Amurizak eta bertan gordetako kantu, kontu eta irudiak aterako ditu. Amuriza Mozambiken izan da aurtengo udan, eta han bizitakoak ekarriko ditu kultura etxeko taula gainera. Mozambikeko lurrazalaren historiari hasita, emakumeen eskuetako azal zimurrak irakurtzeraino egingo dute bidaia. "Kooperazioaz, nekazaritzaz, haurtzaroz edota hizkuntzaz arituko naiz", azaldu du Amurizak. Topikoetan ez jaustea izan da Amurizaren ardura handiena emanaldi hau prestatzerakoan. Ordu bete eta laurden inguru iraungo du emanaldiak. Bertsolariak

istorioak kontatzen dituen bitartean Eider Eibarrek ilustrazioekin lagunduko du emanaldia.

Hausnarketa txikiak

Biharko emanaldia ez da abentura baten kronika izango, ezta gobernu kanpoko erakunde baten hitzaldia ere; hausnarketa txikiz eta galdera handiz jositako kontakizuna baizik. "Mozambiken bizitakoaren harira egindako gogoetak", dio Amurizak. Mundukidek Mozambiken duen proiektua bertatik bertara ezagutzeko aukera izan du berriztarrak.

Mundukidek 15 urte

15. urteurrena bete du Mundukidek, eta hori ospatzeko Fundazioaren lanaren inguruko argazki eta testu erakusketa egin dute.

Betiko Gabon kantak ezagutzeko topaketa izango da

A.E. | ARAMAIO

Gabon Kantak Topaketa abenduaren 19an izango da, aurten, Aramaion. Topaketa horretan parte hartu nahi duten herritarrak animatu gura dituzte gaur, barikua, eta abenduaren 18an egingo duten entseguetan parte hartuzera -19:00etan Sastiñan-. Egun horretarako talde herrikoia sortu gura dute: ume, gazte, guraso, aitona-amonak... kantatzea gustuko dutenak gonbidatu dituzte.

lehenengo Gabon kantak", dio Larraitz Arriolabengoak. Abestiak ezagunak ez direnez, entseguak egitea beharrezkoa da. Emanaldian Aramaioko haur abesbatzak, jubilatuen taldeak eta Bizente Goikoetxea abesbatzak ere parte hartuko dute.

Emanaldiak ordubete inguru iraungo du eta amaieran luntx bat izango dute.

ABESTI BATZUK

- Gaur Belenen.
- Gabon gabian uso dugunok.
- Bedinka gerta dadila (Oletako abestia).
- Zer egin eta zer jaso

Beste herri batzuk

Topaketan parte hartuko dute Otxandioko eta Legutioko herritarrek. Iaz Otxandion egin zuten Topaketa eta orain dela bi urte Legution. Horiez gainera, Arrasateko Portaloia taldea ere izango da emanaldian. "Hain ezagunak ez diren Gabon abestiak berreskuratu gura ditugu; gure herrietan kantatzen direnak,

Euskal ginkanako sari nagusia zozketa bidez erabaki dute nori eman

A.E. | ARAMAIO

200 bat parte hartzaile izan ditu Euskararen Egunaren harira antolatutako euskal ginkanak. Gaztetxoaren sailean bost pertsonaren arteko berdinketa egon da: Ane Arrizabalaga, Leire Arrizabalaga, Aitor Ugarte, Karlos Ugarte eta Uxue Arana. Erabaki dute hiru bonu banatzea, bakoitza 30 eurokoa: Arrizabalaga ahizpentzat bat, Ugar-

te anaientzat bestea eta hiru garrena Uxue Aranarentzat.

Nagusietan ere berdinketa

Helduen kategorian berdinketa egon da Markel Arriolabengoaren eta Bittor Kortabarriaren artean. Zozketa egin ondoren, Kortabarriak irabazi du bi pertsonarentzat afaria eta Arriolabengoak herriko produktuen otarra.



Euskal ginkanako sarituak. | ROSA MONDRAGON

Lanak amaituta, autoa ohiko bidetik

Santakurtz Abadearen plazaxoko biribilguneko lanok astean amaitu dituzte; dagoeneko autobusa ohiko geltokian geratzen da. Biribilguneko galtzada-harria egoera txarrean zegoen, eta beharrezkoa zen lanok egitea hori konpontzeko. Udalak zazpi mila euroko aurrekontua bideratu du obrak egiteko.



ARANTZAZU EZKIBEL

Ibarratik pasatzen den erreka zati batzuetako flora auzolanean garbituko dute bihar, 9:00etan hasita

Errekako flora garbituko dute; besteak beste, narrak eta zuhaitz adarrak kenduko dituzte. Lan horiek egiteko beharra dago, eta Ur Agentziak, aurrekontu faltagatik, lanen erdia egiteko konpromisoa hartu du; beste erdia Aramaioko Udalak egitea adostu dute. Udalak proposatu du lan horiek auzolanean egitea. Hala, deialdia egin dute: bihar, 9:00etan, plazan elkartuko dira. Udaletik gogoratu dute ez dela umeek egiteko lana izango. Lanen ostean luntx txiki bat egingo dute.

Agintaldi osoa baldintzatuko du aparejadorearen auziak

- ▶ Elgetako Udalak 769.172,59 euroko isunari egin beharko dio aurre
- ▶ Egoera kontuan hartuta sailkatu ditu Udalak herritarren proposamenak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Atzo egindako batzar irekian, Udal Gobernuako kideek *Danon artian, danon herrixa* parte hartze prozesutik eratorritako proposamenen sailkapena aurkeztu zuten. Batzar berean, Udalaren egoera ekonomikoaren berri eman zuten, garrantzia berezia emanez Udalak Alberto Olalderekin duen auzia dela-eta ezarritako isunaren ondorio ekonomikoari.

Iraitz Lazkano alkateak azaldu duenez, Elgetako Udalak

439.342,45 euroko zigorra zuen ezarrita auzi hori dela eta. Azaroan ebatzi den epai berri baten ondorioz, 329.830,14 euro handitu da zigor hori. "Aurreko agintaldietatik datorren gaia da hau, baina guri dagokigun agintaldia goitik behera baldintzatuko du", adierazi du alkateak. Argitu du Udal Gobernuaren erabakia dela zorrei aurre egitea Udala gehiago zorpetu barik. "Jakin badakigu ez dugula aukerarik izango datozen lau urteetan proiektu

handirik garatzeko", esan du. "Lau urteko ikuspegiarekin Olalderekin auzia dela-eta egin beharreko ordainketak ia bukatzea espero dugu, eta lehenagotik Udalak dituen maileguengatik zorrak asko murriztea", jakinarazi du Lazkanok. "Zorra handitzearekin arazoa handitu besterik ez dugu egingo", esan du. "Agintaldi honetan aukerarik izango ez badugu ere, etorkizunean Udalak dituen baliabideak zertan erabili nahi dituen herri-

tarrekin erabakitzea ezinbestekoa dela uste dugu".

Alkateak argi utzi du Udalak eskaintzen dituen zerbitzuetan ez dela murrizketarik egingo. "Udalaren eskaintza zabaldu egin dugu orain artean —kirol zerbitzuaren edo mintzalaguna proiektuaren kasuetan, adibidez—, eta horrela jarraitzea da gure asmoa", adierazi du.

Herritarren proposamenak

Parte hartze prozesutik eratorritako proposamenei dagokienez, hiru multzotan sailkatu ditu Udalak: 2016ra begirakoak, epe luzeago batera begirakoak, eta egin ezin direnak edo egingo ez direnak.

Arrazoi ekonomikoak eta demografikoak direla-eta baztertuta gelditzen dira estalitako igerilekuak eta kantxa egitea eta ludoteka zerbitzua merkatzea.

Aldiz, epe laburrean egiteko moduko artean aurkeztu ditu Udal Gobernuak Elgetako kultura eredu adostea, euskara normalizatzeko ekintzak egitea, turismo jasangarria bultzatzea, herritarrei zuzendutako turismo ekintzak egitea, Udalak dituen lokal hutsak berrerrabiltzea, hondakinen bilketaren inguruko ikastaroak berriz antolatzea, dauden kirol instalazioak ondo jartzea eta mantenua hobetzea... Hala, mantenu lanen planifikazioari garrantzia berezia emango dio Udalak.

Horrekin batera lehentasunez jotzen dira alokatzaileen eta bezeroen artean zubi lanak egitea, herriko langabeen poltsa egitea eta Udalak industrialdeko enprekin hartu-eman izatea enpresa horien beharrak ezagutzeko eta herriko langabeendako lan aukerarik dagoen aztertzeke.

Montse Valerio

Soran Etxeko jabea

"Gabonetako menu bereziak ditugu eta Urtezahar gauean kotilioia egongo da"

Gatzagako Soran Etxea zabalik egongo da aurtengo Gabonetan. Jai ahaztezinak igarotzeko leku aproposa da: menu berezietan gozatzeko, jauregi ederra da.

Montse Valerioren gidaritzapean Soran Etxeko lantaldea Gabonetan ere guztion eskura jarriko da.

Nolatan Gabonetan zabalik?

Jende askok galdetu izan digu urtero ea Gabonetan zabalitzen dugun. Jendeak gero eta gutxiago gura du etxea hankaz gora jarri, eta familia handiek ere arazoa dute lekuarekin etxe batean guztiak biltzeko. Gainera, herriko jendea herrian parrandan geratzeko aitzakia ere bada.

Zein berritasunekin zatozte?

Gabonetako egun berezi horietan irekiko dugula, alegia: hilaren 24rako eta



Soran Etxeko lantaldea, jauregiko jangeletako batean.

"Hiru jangela elegante ditu jatetxeak, eta giro epelean bertako produktuekin egindako menuz gozatzeko aukera paregabea eskaintzen dugu; apustu bikaina egin dugu."

25erako menu batzuk prestatu ditugu, eta, Urtezahar gaueko afariak gain, mahatsa eta cava izango dugu. Eta ostean, kotilioi-txo bat: musika eta jai-giroa egongo da tabernan. Horrekin batera, urtarri-laren lean, energiak berreskuratzeke menua eskainiko dugu. Otordu

borobilak izango dira. Edozelan ere, Gabonetan ospatu gura dituztenen esku ere bagaude, enkar-guz eramateko janaria prestatuko dugu—eta. Bestalde, Gabonen bueltan, enpresak bazkariak egiten dabilta, eta horiendako ere menu bereziak eskaintzen ditugu.

Gainera, bertan lo egiteko aukera dago... Bai. Hotelerako ere eskaintza bereziak egingo ditugu: afaldu eta lo egitea-gatik prezio merkeagoak jarriko ditugu; izan ere, jendeak ez du autorik hartu gura halako egunetan, eta leku zoragarria da hau gaua pasatzeko.

Soran Etxea Hotela Jatetxea

Gabonetan afari bereziak izango ditugu.

Eta Urtezahar egunean, **KOTILIOIA!**

Informa zaitez!

Santiago kalea 3 • 20530 LEINTZ GATZAGA • Tel.: 943 71 53 98
info@soranetxea.com • www.soranetxea.com

PILOTA TXAPELKETA

SAILKAPENAK FINALURREKOEN ATARIAN

BETERANOAK

	1	6
01	Iban Retolaza-Enrike Elkoro	2 1
02	Mikel Elkoro-Jose Mari Zubiaurre	2 1
03	Alberto Telleria-Angel Ibarluzea	2 1
04	Iñaki Ugarteburu-Koldo Goenaga	0 3

GAZTEAK - A TALDEA

01	Ibon Unzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga	4 0
02	Mikel Ormaetxea-Koldo Erostarbe	3 1
03	Josu Mañarikua-Berñat Arabalaza	2 2
04	Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta	1 3
05	Asier Unzetabarrenetxea-Iker Zabaleta	0 4

GAZTEAK - B TALDEA

01	Oskar Sarasua-Andoni Elorza	4 0
02	Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar	3 1
03	Etor Garate-Eneko Maguregi	2 2
04	Diego Cantabrana-Txomin de Vega	1 3
05	Enaitz Ezpeleta-Jon Irazabal	0 4

Hemeretzi neska-mutikok jokatu dute aurten Gabonetako pilota txapelketa hilaren 20an hasita

Hamalau umek eman dute izena eskuz aritzeko, eta bostek palaz aritzeko. Gurasoen parte hartzearekin antolatuko du txapelketa Udalak, eta hilaren 17rako, eguna, pilota entrenamendu saioa iragarri dute. Saio hori 18:30ean hasiko da, eta ordubeteko iraupena izango du. Txapelketako partiduak, berriz, abenduaren 20an eta 27an eta urtarrilaren 3an jokatuko dituzte, 11:30ean. Finalak urtarrilaren 6rako iragarri dituzte.

OHARRAK

ATE IREKIAK LUDOTEKAN

Gaur, barikua, sarrera irekia ludoteka zerbitzuan. Hiru urtetik bigarren mailara arteko umeendako, 17:00etatik 18:00etara. Hirugarren mailatik seigarren mailara arteko umeendako, 18:00etatik 19:00etara.

IPIUNEN ORDUA

Gaur, 17:25ean, ipuin kontalari saioa liburutegian 3 urtetik gorakoendako.

ERRETIRATUEK LUNTXA

Xalbadorpe erretiratuen elkarteak antolatuta, Gabonetako luntxa, gaur, 18:00etan, Ozkarbi elkartearen.

AFARI TEMATIKOA

Gaur, barikua, dantza afari tematikoa Espaloia kafe antzokian, 21:00etan. Errusiako jakiekin egindako afaria lehenengo eta dantza saioa ondoren. Erre-serba egitea beharrezkoa da.

SORMENING TAILERRA

Familiendako sormen tailerra, domekan, 17:00etan, Espaloian. Hiru lagunendako sarrera 15 euro da, eta lau lagunendako, berriz, 20 euro.

JAKOBA ERREKONDO

Martitzenean, hilak 15, agromonomo ezagunak hitzaldia egingo du kultura etxean, 19:00etan.

BERGARAKO CHEF ONENAREN BILA



GOIENA TELEBISTA | 'BERGARA CHEF'

EGUAZTENA, ABENDUAK 16 | 22:00

BERGARA CHEF 3. SAIOKO PARTE-HARTZAILEAK:

- Fernando Carasatorre eta Marisa Carasatorre
- Juan Manuel Agirrezabal 'Pepelu' eta Ana Maria Pascual

Publikoaren saria: zein da sukaldean bikote onena?

Bidali WhatsApp-a 688 69 00 17 telefonora eta egin zure aukera:

1. aukera: *BergaraChef Fernando*
2. aukera: *BergaraChef Pepelu*



ANTOLATZAILEAK:



Bergara
Bizi

LAGUNTZAILEAK:

Azoka:

- Lamitxo arraindegia
- Bixain harategia
- Arantxa berdura denda

- Jon Andoni Olabarria "Budy"
- Sagarpe elkartea
- Maritxu Barrena
- Jose Mari Perez



scenarro

E elay

INDUSTRIAS FERRAR S.A.

SELEO SITI

Lacor

Embalan3

CAUCHO(S) MUJICA

Industria Azkein

LAZPIUR

LASA

URBIETA

Suga

BELMEK

M.H

AZPEITXI

Basque culinary center

Pol - Pol

goiena

Mango



HERRITELEBISTAGINTZAN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

Bietako bat aukeratu behar

- ▶ Santamas Krosak eta ziklo-kros lasterketak bat egingo dute etzi Arrasaten, ordu berean
- ▶ Herritarrez gain, antolatzaileak eurak dira kaltetu handienak, euren lana dago-eta atzean

XABIER URZELAI | ARRASATE

Hau da marka hau! Ohiko kirol taldeen partiduetatik harago, urtean Arrasaten ez dira kirol ikuskizun mordoak egoten, eta domekan bi hitzordu erakargarriren artean aukeratu beharko dute herritarrek: Santamas Krosa (12:30) eta Arrasateko ziklo-krosa (eliteak, 13:00etan). Hori gutxi balitz, Bergaran ere ordu berean egingo dute Gorlako Mushing Txapelketa (ikus 27. orria), baina aurreko bi kasuak deigarriagoak dira, biak herri berean izango dira eta.

Antolatzaileak jarri dira elkarrekin harremanetan, gertatu behar dena saihesten ahalegintzeko, baina batzuek Euskadiko Federazioak ezarritako egutegi itxia dutelako eta besteek egun aproposagorik aurkitu ez dutelako, bere horretan utzi dituzte lasterketak. Pena da; izan ere, antolatzaileak eurak dira kaltetu handienak, musu-truk eta ilusio handiz egiten den lana dago-eta atzean. Eurak eta herritarrak, noski, bi kirol hitzordu horiekin gozatu beharrean bakarria aukeratu beharko dute eta.

Ziklo-krosa, Markuleten

"Aspaldiko proba berreskuratu gura izan dugu, eta lan handia



Korrikalariak plazara iristen. | GOIENA

eman badigu ere lasterketa gertatzeak, pozik gaude lortutakoarekin eta gogotsu domekako proba bar begira", adierazi zuen Iñigo Azkaratek, Dorletako Amako lehendakariak, aurkezpenean.

Markulete eta Ikutixo baserri inguruetan jokatu dute ziklo-krosa, eta bi zati izango ditu zirkuituak: "Arrasate aldera dauden zelaiak bizkorrak izango dira eta Ikutixo aldera daudenak gogoragoak", jakinarazi zuen Zigor Urainek, eta gaineratu zuen lokatzik ez bada sortzen oztopo batzuk jarriko dituztela zirkuitua motelagoa izan dadin. Arrasatekoa euskal zirkuituko hamabosgarren lasterketa izango da.

Dorletako Amako bost ziklista

Debagoienetik ziklista kuadrilla polita etorriko da lasterketara; adibidez, Oñatiko Arrikruz Kobako ordezkariak. Baina, antolaketan lanetan jardunda, Dorletako Amak ere izango du lasterketan ordezkariarik, bost txirrindu-

lari izango dira-eta irteera puntuan: Iñigo Aranburu, Andoni Azkarate, Asier Azkarate, Liher Unzueta (zalantzan) eta Zigor Urain dira ziklista horiek. "Bestalde, Iker Ezkibel eskoriatzarra gurean hazitakoa da eta orain gurekin ez egon arren lasterketan parte hartzera etorriko dela esan digu. Eta 23 urtez azpikoetan jardungo du". Antolatzaileek aurreikusten dute 150 ziklista inguru batuko direla etzi egingo duten hitzorduan: "Elite mailako hiru onenak ez dira egongo [Aitor Hernandez, Ismael Esteban eta Javier Ruiz de Larrinaga], Valentzia Espainiako Kopa egongo delako jokoan, baina oso maila oneko ziklistak egongo dira".

Santamas Krosak, 38 urte

Kuadrillen Arteko Santamas Krosak -Enrike Kabiketa memoria- 38 urte beteko ditu domekan (12:30), ibilbide berriarekin: "Oraingoak 5,9 kilometro ditu, baina lehen baino itzuli bat gutxia-



Ziklo-kroseko antolatzaileak eta Udaleko ordezkariak aurkezpenean. | GOIENA



Ziklista bat, lokatz artean. | GOIENA

nendako ez da gozoa ikustea azkarago doazenek behin eta berriz zelan aurreratzen dituzten", azaldu du Jose Ramos Petreñas antolatzaileak: "Hori horrela, uste dugu zirkuitu berriarekin lasterketa erakargarriagoa izango dela".

Iazko errekorra ontzera

Iaz parte-hartzeari dagokionez espero ez zuten gorakada izan zuten -270 lagun izan ziren irteeran-, eta domekarako zenbateko hori errepikatzea gura dute: "Iazkoak sorpresaz harrapatu gintuen, baina gurako genduke jende kopuru berbera etortzea, edo gehiago, asko dira-eta korrika dabilzan herritarrak. Gainera, ahalegina egin dugu korrikalari guztiendako sariak lortzen". Urtero moduan, kuadrilla bakoitzeko lehen bost atleten denborak hartuko dira kontuan.

Nagusien krosaren aurretik, 11:00etatik 12:00etara gaztetxoendako lasterketak izango dira plaza bertan.

ZIKLO-KROS ORDUTEGIA

10:00 Kadeteak.

10:50 Emakumezkoak eta juniorrak

12:00 Master kategoriakoak.

13:00 Elite eta 23 urtez azpikoak.

ereindajan
Ereindajan eta konsumitzaileak ereindajan



Erein Da Jan elkartearen eskutik:

Bost saskiren zozketa

Goiena Klubeko bazkide bazara, animatu eta parte hartu zozketan!

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Ereindajan] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

WhatsApp: KLUBA [Ereindajan] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketan honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioitzeko.

Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, harrak zuzentzeko edo ezteztatzeko, helbide honetara idatziz: klub@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

MUSHING

Atletak eta txakurrak batera, Gorlako III. Txapelketan

Antolatzaileek 70-80 parte-hartzaile espero dituzte domekarako; haurrendako zirkuitua ere prestatu dute

XABIER URZELAI | BERGARA

Gorlako Mushing Txapelketaren hirugarren edizioa egingo dute domekan Bergaran, eta atletek hainbat modalitate izango dituzte aukeran: txakurren laguntzaz patinekin lehiatzea, bizikletekin lehiatzea edo txakurren ondoan korrika egitea (txakur-krosa), hain zuzen ere.

10:00etan hasiko da ikuskizuna, patinekin, eta 5,1 kilometro-tako zirkuitua osatu beharko dute. Jarraian irtengo dira *bike-yoring* modalitatekoak, distantzia bera osatzeko, eta 11:30ean egingo dute txakur-krosa, 7,4 kilometroko zirkuituan: "Txakur-krosean ez dira denak batera irtengo. Bosnaka emango dugu irteera, bestela, hasierako metroetan arazoak sor daitezke; halakoetan, txakur guztiak batera irteten badira estresatu egiten dira, eta erraza da euren artean tratatzea. Atleta bakoitzak denbora neur-



Atletak eta txakurrak, aurreko edizio bateko lehenengo metrotan. | GOIENA

tzeko txip bat eramango du, horregatik erabaki dugu irteera talde txikietan egitea", azaldu du antolatzaile lanetan dabilen Maribi Berraondok.

Pol-Pol taldeko ordezkariak
Txapelketa antolatzen jarduteaz batera, taldeko hainbat ordezkari

ri lehiari ibiliko dira domekan: Fernando Cobosek eta Iñigo Etxanizek txakur-krosean hartuko dute parte, eta Imanol Cidek *bike-yoring*-ean: "Horrekin batera, sari banaketa egin aurretik gazte-txoendako zirkuitu txiki bat ere jarriko dugu, kirol honetara gerturatzeko joan daitezkeen".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA
Getxo-Aretxabaleta
Zapatua, 17:00. Getxo.

OHOREZKO ERREGIONALA
Aloña Mendi-Ostadar
Domeka, 16:30. Azkoagain.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Usurbil-Mondra
Zapatua, 15:30. Usurbil.
Bergara-Aretxabaleta
Domeka, 15:30. Agorrosin.
Antzuola-Urkomendi
Zapatua, 16:00. Estala.

LEHEN ERREGIONALA
Soraluze-Arizmendi
Zapatua, 16:30. Ezozia.
Aloña Mendi-Armagiñak
Zapatua, 18:00. Azkoagain.
Eibartarrak-Mondra
Zapatua, 18:00. Unbe.

OHOREZKO GAZTEAK
Amaiak Bat-Aloña Mendi
Zapatua, 17:30. Deba.
Aretxabaleta-Bergara
Domeka, 16:30. Ibarra.
Mondra-Elgoibar
Domeka, 12:00. Mojaitegi.

LEHEN MAILAKO GAZTEAK.
Aizmendi-Antzuola
Domeka, 18:30. Ibarra.
Bergara-Mondra
Zapatua, 17:30. Ipintza.
Aloña Mendi-Urki
Zapatua, 15:45. Azkoagain.

ARETO FÚTBOLA

EUSKAL LIGA
Eskoriatza-Muskiz
Zapatua, 17:50. Manuel Muñoz.
Elorrioko-Aretxabaleta UDA
Gaur, 20:00. Elorrio.

GIPUZKOAKO LIGA
Iurre-Pizza Per Tutti Mondrate
Gaur, 20:45. Tolosa.

SENIOR NESKAK
Eskoriatza-Legorreta
Domeka, 12:00. Manuel Muñoz.

SASKIBALOA

EBA
Universidad de Valladolid-MU
Zapatua, 18:30. Valladolid.

BIGARREN MAILA
Berrio Otxoa-Natra Oñati
Domekan, 18:00. Bilbao.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA
MU-Fundacion 5+11
Zapatua, 12:00. Iturripe.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Soraluze BKE-MU
Domekan, 16:30. Labegaraieta.

HIRUGARREN SENIOR MAILA
Cafes Aitona-Aloña Mendi
Zapatua, 20:00. Donostia.

ESKUBALOA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Izarraitz Aloña-Siglo XX
Zehaztu gabe.

Ford Mugarri-Urduliz
Zapatua, 18:00. Iturripe.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Leizaran-Bergara
Domeka, 11:30. Andoain.

PILOTA

OÑATI

Gaur, 19:15ean hasita:
Aloña Mendi-Arrasate (infantilak)
Aloña Mendi-Lapke (infantilak)

BERGARA

Gaur, 19:30ean hasita:
Bergara-Su-Berri (emakum. palan).
Bergara-Arrasate (kadeateak)

ARETXABAETA

Zapatua, 17:30ean:
Aretxabaleta-Arrasate (alebinak).

ATLETISMOA

SANTAMASETAKO KROSA
Domekan, 12:30ean hasita,
Arrasaten.

ZIKLO-KROSA

ARRASATEKO LASTERKETA
Domekan, 10:00etan hasita
Markuleteko industria gunean.

MUSHING-A

GORLAKO III. MUSHING TXA.
Domekan, 10:00etan hasit
Bergaran.

ZIKLO-KROSS

Garazi Erostarbe eta Zigor Urain, Gipuzkoako txapeldunak

Martitzenean Beasainen egin zuten ziklo-kros lasterketan Gipuzkoako txapelketa egon zen jokoan, eta bailarako bi ziklistak jantzi zuten txapela. Master 40 kategorian Zigor Urain arrasatearra izan zen gizonik azkarrena, eta Gipuzkoako txapelduna (Dorletako Ama, Vibike). Eta kadete mailan Oñatiko Garazi Erostarbe (Arrikruz Kobak) sailkapenean laugarren izan zen, eta horrekin batera, gipuzkoar onena.

FUTBOLA

Bergarak eta Aretxabaletak derbia jokatu dute domekan

Erregional preferente mailan sailkapenean erdian dauden Bergara eta Aretxabaleta aurrez aurre izango dira bihar (domekan, Agorrosin, 15:30). Antzuola ligako bigarren garai-penaren bila zelairatuko da bihar Estalan, Urkomendiren kontra (16:00etan). Eta, sailkapenean hirugarren postuan dagoen Mondrak, berriz, Usurbilen jokatu du zapatu arratsaldean (15:30).

MENDIA

Otsailen egingo duten Altitoy Ternuarako izen-ematea zabalik

Otsailaren 27ko eta 28ko asteburuan egingo dute Barege eta Luz Ardidenen Altitoy-Ternua mendi eski lasterketa, eta dagoeneko zabalik dago izen-ematea. Betiko moduan, antolatzaileen helburua ibilbide ahalik eta erakargarri eta teknikoak eskaintzea izango da. A ibilbiderako izen-ematea Grandecourse.com bitartez egingo da. B ibilbiderako, berriz, Kirolprobak.com bidez.

ESKUBALOA

Domekan Soraluze BKE eta MUREN arteko derbia, senior mailan

Gipuzkoako Txapelketako senior mailan lehiari dabilen Soraluze BKEren eta MUREN arteko lehia izango da domekan Agorrosinen (16:30, Labegaraieta). EBA mailan, berriz, MUK Valladolideko Unibertsitatearen kontra jokatu du domekan (18:30), Berrio Otxoaren kontra.

PILOTA

Martinez de Irujok eta Rezustak bihar jokatu dute, Iruñean

Eskuz Binakako Txapelketan bikotea osatzen dute Juan Martinez de Irujok eta Beñat Rezusta bergararrak, eta martitzenean lehen puntua eskuratu ostean, bihar, zapatua, jokatu dute bigarren norgehiagoka, Labriten. Hain zuzen, iazko txapeldunak izango dituzte aurrean, Bengoetxea VI.a eta Untoria: "Gogotsu etorriko dira, lehen partidua galdu ostean", esan du Irujok.



Astore etxearen eskutik:

Euskal Selekzioaren hiru ekipamendu ditugu zozketatzeko, umeentzako

8, 10 eta 12 urteko umeentzako ekipamenduak ditugu aukeran!
Goiena Klubeko bazkide bazara, animatu eta parte hartu zozketan!

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Euskalselekzioa] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA Euskalselekzioa [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu biltzaile honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.
Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, haxe zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Martxan da Bergarako Amodiozko Gutunen lehiaketaren 24. edizioa

KOMUNITATEA GOIENA
JARDUN EUSKARA ELKARTEA

Azken urteotan bezalaxe, aurtenera ere Amodiozko Gutunen Lehiaketa antolatu du Jardun euskara elkarteak. Aurtengoan, amodiozko gutunen XXIV. edizioa ospatuko da. Gutunak aurkezteko epea zabalik dago dagoeneko. Animatu, sari ederrak daude eta!

Oinarriak

Lehiaketara 2001. urtean edo lehenago jaiotakoak aurkeztu daitezke. Lanek jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatzitakoak izan behar dute, gutun forman eta DIN A-4 orrietan (eskuz edo ordenagailuz idatzita). Gutun bakoitzak gehienez bi orriko luzera izan dezake.

Lanen bat aurkeztu nahi dutenek posta arruntez edo posta elektronikoz egin ahal izango dute. Posta arruntez bidaltzeko,

egilearen izen-abizenak, adina, telefonoa eta helbidea kartazal txiki batean sartu behar dira, ondoren kartazal txiki hori eta gutuna kartazal handiago batean sartu eta Jardunen bulegora bidali. Posta elektronikoz bidaltzeko, gutuna fitxategi batean bidali beharko da, *Gutuna* izenarekin, eta egilearen datuak, *Egilea* izeneko beste fitxategi batean.

Sariak

Lehiaketako irabazle nagusiak 500 euroko saria jasoko du, eta bigarrenak, 250 eurokoa. Bergarar onenarendako saria ere izango da, 150 eurokoa, baita 26 urtez azpiko onenarendako ere, irakurle gazteek emandako saria, hain zuzen; azken hori ere 150 eurokoa da. Sari banaketa ekitaldia otsailaren 13an izango da Bergarako Irizar jauregian, eguerdiko hamabietan.

LANAK NORA BIDALI

POSTA ARRUNTEZ

Amodiozko Gutunen XXIV. Lehiaketa
Jardun Elkarte, Errotalde Jauregia z/g
20570 Bergara - Gipuzkoa

E-POSTAZ

amodiozkogutunak@gmail.com

"Borobila" izan da Durangoko Azokaren aurtengo edizioa, antolatzaileen esanetan

Hurrengo urterako gazteenganako transmisioa lantzea jarri dute helburu

M.T. | DEBAGOIENA

Antolatzaileen esanetan, "borobila" izan da Durangoko Azokaren 50. edizioa, sortzaileen eskaintza aldetik ugaria, "ekoizpenean aberatsa" eta "mamitsua gogoeta arloan". Astelehenean egin zuten balorazio prentsaurrekoa, eta, egun baten faltan, azaldu zuten 120.000 bisita izan direla Landako gunean.

Besteak beste, aurtengo nobedadea izan diren 75 boluntarioen lana goraiatu zuten prentsaurrekoan.

Nabarmendu dute aurtengo edizioko 250 ekitaldiko eskaintzari esker "egitarau oso bati begira" etorri dela bisitaria.

Azoka telebista

Aurten, beste urte batez, Azoka TB egin dute, eta Landakogunean egon den platotik zuzenean ekoiztutako tartekak gehitu dira. Horrek azokari "bizitasuna" eman diola nabarmendu dute Gerediaga elkarteko antolatzaileek, eta aurrerantzean elkarlanean jarraitzeko asmoa erakutsi dute. Goiena (Tokikom), EITB, Hamaika TB, Kanaldude eta Berria aritu dira lan horretan. Aurten gazteei zuzenduta-



Landako gunea, zapatuan. | OIHANA ELORTZA

ko saioek izan duten erantzuna azpimarratu dute: bai bideoklipak eta musikariaren elkarrizketak eta *youtuber* gazteekin egindako saioa.

Mende erdi

Aurtengo edizioaz harago, baina, Azokaren mende erdi honetako ibilbidea ere modu positiboan baloratu zuten: "Gutxitan izan dugu haizea alde, baina 50 urteotan bide arrakastatsua egin dugu". Azoka euskal kulturarentzat "estrategikoa" dela nabarmendu dute. "Hobetzen jarraitzea da gure nahia, asmoa, konpro-

misoa", nabarmendu du Gerediaga elkarteko Nerea Mujikak.

Etorkizunera begira

Mujikak nabarmendu zuen azokaren helburuak betikoa izaten jarraitzen duela, "euskal kultura geroratzea". Horren harira, hurrengo edizioak "jauzi bat izan behar du transmisioan", haren hitzetan. "Belaunaldi berrietako euskaldunak zaletasunaren, sorkuntzaren eta eragiletzaren ardatzean ipintzea" da asmoa: "Zale berriak, sortzaile berriak eta eragile berriak behar ditugu".

EUSKAL KULTURAREN TRANSMISIOA

Euskal Kulturgintzaren Transmisioaren Aditu Tituluko gogoeta eta eztabaida-saioak egin ditu Mondragon Unibertsitateak. Hauxe da saioetako baten laburpena.

Egin arte (ez gara izango)

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Kontua da ekitea, **#hautua**. Berdin da garen ala ez, garen euskaldun ala zer, "izateko modua dela **#praktika**", alegia, "egiten badugu bagara eta ez badugu egiten ez gara". Lorea Agirrek esandakoak bil lezake saio sorta osoa. **#Eskubideak** egin behar bilakatzen dira Joseba Sarrionandiaren esaldietan: "gure esku ez dagoelako", hain zuzen, dugu **#obligazioa**, "dago gure esku".

Dena da politikoa

"Eraiki dezagun", dio Agirrek, kulturarekin mundu hobea egin daitekeelako, **#KapitalLinguistikoa** non den azalduz eta euskara borroka sozialetara lotuaz, "kultura besteari leku egitea" delako. Aurrerantzean, euskarazkoa beste hainbat hizkuntza-

ren arteko aukeretako bat izango dela dio Kike Amonarrizek eta horri eusten gizarte aktibo eta sortzailea baizik ez ei da egongo, ezer egotekotan. Euskal gizarte aktiboa, sortzailea eta elkarren **#errekonozimendua** egiten dakiena, Larraitz Ariznabarreta irakasleak aitortzen duenez. Argi baitio Sarrionandiak: "ez abertzaleena, ez autoritate politikoen", "euskararen erabilera, batez ere, komunitate horren **#ardura** da". Eta ardura politikoa da, "ze, politikaren bahitzaileek sinestarazi digutenaren kontra, dena da **#politikoa**".

Konfiantza

Politikariaren mahai-inguruan, Juan Jose Ibarretzek, Xabier Zubizarretak eta Jesus Egigurenek elkarrizketarako lehen urra-

tsa **#konfiantza** dela, bat datoz. Akordioetan, demokratikoak ala kontsentsuzkoak behar duen da eztabaida. Horren erantzuna badu Lorea Agirrek: "subalternitatetik hegemoniarako jauzian, kontsentsua desiragarria da, baina ez ezinbestekoa".

Eraldaketa

"Zer egin behar dugu?" galderari erantzuna **#ProzesuSoziala** da Agirrerentzat eta "zelan" galderari, erakarriz, dio Amonarrizek. Gizarteko minoria baina aktibo eta langilea mugitu duena hizkuntzarekiko **#maitasuna** izan dela dio Amonarrizek. Hori da motiboa, ekiteko **#arrazoia**.

HITZALDI OSOA IKUSTEKO:

Goiena telebista | Eguena, abenduak 17, 22:00.



Ezkerretik eskumara eta goitik behera: Jesus Egiguren, Jon Sarasua, Juan Jose Ibarretxe, Joseba Sarrionandia, Kike Amonarriz, Larraitz Ariznabarreta, Lorea Agirre, Xabier Zubizarreta eta Xabier Irujo. | ARGAZKIAK: GOIENA

Telebistako saioaren babeslea



LABORAL KUTXAREN GAZTENPRESA EKINTZAIETZA PLANA

25.000 €-rainoko finantzaketa, abalik gabe



Finantzaketa honek Europar Batasunaren laguntza du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1296/2013 zenbakidun Araudian (EB). Enplegu eta Gizarte Berrikuntzarako Europar Batasunaren Programari ("EaSI") buruzkoan, jasotakoaren arabera ezarritako berme-tresnaren esparruan. Berme hau Europar Batasunak finantzatuta dago, Enplegu eta Gizarte Berrikuntzarako Programaren ("EaSI") esparruan.



Aldundiaren bonuak kultura merkeago kontsumitzeko

10.000 txartel erosketarako eta 7.000 askotariko ikuskizunetan erabiltzeko

J. B. / A. A. | ARRASATE

Debagoienean ere badago bonuen abantailekin gozatzeko aukera. Erosketarako txartelak Bergarako eta Arrasateko Elkar liburu-dendetan eta Oñatiko Haritza liburu-dendan eta Altuna estancoan eskura daitezke hogeiturotan, eta 30 euroko erosketa egin ahal izango da horiekin.

Ikuskizunetarako, berriz, Amaia antzokian salduko dituzte 25 eurotan, eta horren truke onuradunak nahi dituen sarrerak

erosi ahal izango ditu, 40 euroko baliora iritsi arte.

Amaian eskaintza berezia

Arrasateko Udalak 250 bonu jarri ditu salgai Amaia antzokiko leihatilan. Gipuzkoako Diputazioak kaleratutako bonuari bost euroko deskontua gehituko dio Udalak prestatu dituen lau sortetako bat aukeratzuz gero.

Antzerkiarekin lotutakoa da lehenengoa: *Zergatik Jamil; Heroiak; Etxekoak eta Florido*

Pensil (neskak) lanak ikusteko aukera ematen du txartelak. Musika da, berriz, bigarrena: Jabier Muguruzaren eta Ken Zazpiren kontzertuak eta Albert Plak, Fermin Muguruzak eta Raul Fernandezek egindako *Guerra* musikalak osatzen dute honako hau. Publiko familiarrentzako da, ostera, hirugarrena: *Pintto, Pintto; Barbantxo; Amour eta Pinocchio* antzezlanak; *Aureo* dantza ikuskizuna eta Ken Zazpiren kontzertua jasotzen ditu. Azkenak, berriz,



Mendieta, Ubarretxena, Alberdi eta Garai eguazteneko aurkezpenean. | J.B.

denetik apurtxo bat badu: *Aureo* dantza saioa; Golden Apple Quartet taldearen *Mundo Intrépido* ikuskizuna, Jabier Muguruzaren kontzertua eta *Heroiak* lana.

Iraungitze-datarekin

Apirilaren 15era arte izango dira bonuak erabilgarri, eta erositako saltoki eta antzokietan bakarrik erabil daitezke.

Amaia Antzokiko 'hall'-a txiki geratu da Arce raperoaren Debagoieneko zaleak hartzeko

Galiziako rapa eta Euskal Herriko hip-hop gaur, egubakoitza, 20:00tan

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Ikusmin handia sortu du Arce Galiziako raperoak gaur Arrasaten egingo duen emanaldiak; horren erakusle da astean agortu direla sarrera guztiak.

Udalarekin elkarlanean, Foru Aldundiaren Gaztemaniak ekimenaren barruan antolatutako kontzertua da. Musikari ezagunaren aurretik, Ni Naiz Hip-Hop taldea izango da taularen gainean.

Azkenarekin markak hausten

2008. urtean ekin zion Arcek bere ibilbideari; harrezkero sei dira argitaratu dituen lanak, eta asko bereganatu dituen jarraitzaileak.

Aurten kaleratu duen *Luciffer* lanarekin markak hautsi ditu. Adituen esanetan, haren diskorik osoena da alderdi askotatik begiratuta. Askotariko gaiak jorratzen ditu eta nabarmentzekoak dira orain arte egin duenetik aldentzen diren zati instrumentalak. Musika-zaleen gustukoa izan dela erakusten du abestietako batzuek lau milioi bisitatik gora izan dutela Interneten. Itunes-en eta Spotify-n entzun daitezke lana osatzen duten hamalau kantuak. Kantu



Arce raperoak *Luciffer* diskoa aurkeztuko du Arrasaten. | ARRASATEKO UDALA

berriekin eta zaharrek osatutako zerrenda dakar gaur Arcek, lepo beteta egongo den antzokiko hall-era.

Zumarragako teloneroak

Gaztemaniak ekimenak ohi duen moduan, euskal talde batek zabal-

duko du kontzertua. Agresion Verbal, Artilleria Pesada eta Throw rap taldeek osatzen dute gonbidatu duten Ni Naiz Hip-Hop crew-a. Zuzeneko indartsua eta ikusgarria dute. Zazpi lagun igoko dira oholtzaren gainera –bost MC eta 2 DJ–.

Gasteizko Klub Nautikoaren historia, liburu batean jasota

KOMUNITATEA GOIENA | J. M. VELEZ DE MENDIZABAL | ARRASATE

Plazara nator ostera nire azken liburuaren aurkezpenarekin. *Club Náutico Vitoria. 1963-2013* izenburuarekin argitaratu dut. Elkartearen mende erdiko ibilbidearen nondik norako garrantzitsuenak islatzen ditut; hain zuzen ere, nazio eta nazioarteko testuinguruan Kluba erreferente bilakatu dutenak.

CNVren sortzaileetarikoa izan nintzen, eta lehendakari ohia ere bai; beraz, Kluba barrutik ongi ezagutzen dudalako eskatu zidaten haren historia idaztea. Argazkiz ongi apain-

dutako 120 orrialdetan zehar, Arabari eta, oro har, Euskal Herriari Europako eta Munduko txapeldunak eman dizkion kirol elkartearen deskribapen historikoa da.

CNVk lotura handia izan du Debagoienarekin, ehunka lagun izan dira –eta gaur egun ere badira– bertako bazkideak. Eguaztenean aurkeztu nuen jendaurrean liburua Euskadiko Bela Federazioko hainbat ordezkariarekin, Gasteizko Vital Kutxa Fundazioaren areto nagusian. Eskuratu gura duenak Klubaren egoitzan (Uribarri Ganboan) izango du 20 eurotan.

ETS, Ze Esatek! eta Ixilik taldeen kontzertua hurrengo zapatuan Oñatiko Gaztelekuan

A. A. | OÑATI

Ska doinuak ditu oinarri Arabako Errioxako En Tol Sarmientok taldeak, argitaratu berri duen *Beldurrik ez* diskoa rockeroagoa bada ere. Euskaraz kantatutako zazpi kantuak aurkeztuko ditu bihar Oñatin.

Ze Esatek! rock, reggae eta ska taldea ere labetik atera

berri duen bosgarrena –*Inoiz egin dugun diskorik onena*– aurkeztera dator. Herriko Ixilik taldeak zabalduko du emanaldia.

Klubekoentzako zozketa

Egunean leihatilan salduko dituzte bost eurotan. Bestalde, Goiena Klubak bazkideentzako sarrerak zozkatuko ditu.

Parekidetasunean hezteko 'Futbolariak eta printzesak' haurrentzako antzezlan Oñatin

A. A. / M. B. |

Jon Zubiaga arrasatearra eta Olatz Pagaldai eskoriatzarra dira Eidabe Ekimenaren lan berriaren protagonistak. Lehen Hezkuntzako azken urteetan dagoen Odei izeneko neskatoaren azalean sartu da Pagaldai; abenturazale amorratua da, eta super-heroi izatearekin amesten du. Lur mutikoak, berriz, bere lagunek

ez moduan, ez du futbolearen jokatzea gustuko; aukeran, nahiago du ipuinak kontatu eta musikarekin gozatu.

7 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako lana da. Estereotipo sexistetatik eta generoaren etiketa guztietatik ihes egiteko beharra duten bi gazteren bizipenak kontatzen dituzte esketx laburren bitartez. "Modu josta-

garrian kontatuta daude; ez da antzezlan moralista. Komedia da eta kantuak eta dantzak ere batzen ditu. Beste pertsonaia batzuk ere badaude, eta txotxongiloen bitartez irudikatzen ditugu horiek", diote aktoreek.

Etzi, Oñatiko Gaztelekuan

Azaroaren 21ean estreinatu zuten, Bilbon, eta etzi, domeka, Oñatin ikusteko aukera izango da, 12:30ean hasita. Sarrerak leihatilan eskura daitezke egunean bertan, bi eurotan.

Lewis Carroll-en obrarik ezagunena eta munduko literaturako ospetsuena, *Alizia herrialde miresgarrian*, edizio berritu eguneratu aurkeztu da, jatorrizko idazlanaren lehen argitalpenaren 150. urteurrena ospatzeko.

www.pamiela.com

Indiak: JOHN TENNIEL
Itzulpena: MANU LOPEZ GASENI

PAMIELA

ZORION AGURRAK



OÑATI
Ekain Azpiazu Urtzelai
Abenduaren 15ean, urtebete. Zorionak, potxolo. Ondo-ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzian. Etxeko danon partetik.



OÑATI
Leire Guridi Agirre
Abenduaren 15ean, 8 urte. Zorionak, polit hori! Egun on-ona izan eta muxu asko danon partetik!



BERGARA
Paco Moreno
Abenduaren 12an, urtebetetzea. Zorionak, aitxitxa Paco! Egun politxa pasatzia opa dotzugu. Patxo eta besarkada erraldoi bat Alaineren eta Kenarren partetik.



ANTZUOLA
Eneritz Zubikarai Aguado
Abenduaren 12an, 4 urte. Zorionak, txiki! Ondo pasatu eguna! Muxu handi bat, aitaren eta amaren partetik!



ARAMAIO
Paule Avila Hernando
Abenduaren 12an, urtebete. Zorionak, Paule! Ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzean! Maddiren besarkada handi bat eta muxu pila, zure familia osoaren partetik!



BERGARA
Malen Aretxaga Arabolaza
Abenduaren 12an, 3 urte. Zorionak, Malentxo! Oso ondo ospatuko dogu zure eguna! Patxo handi bat danon partetik, potxola!



OÑATI
Enaitz Ugarte Elorza
Abenduaren 10ean, 12 urte. Zorionak eta urte askotarako. Ondo-ondo pasatu eguna.



ESKORIATZA
Aimar eta Maddi Osa
Abenduaren 9an, 4 urte. Zorionak, Aimar eta Maddi! Familia osoaren partetik, oso ondo pasatzea nahi dugu zuen egunean. Patxo handi bat biondako eta asko disfrutat!



BERGARA
Irati Elorza Azkarate
Abenduaren 8an, 18 urte. Bueno Elo azkena gabiz gu botatzen 'zorionak' batekin dogu guk amaitzen espeziala izango dala ez dogu dudatzen hemezortzi muxukin zaitugu agurtzen.



ARAMAIO
Eñaut Garai Gutierrez
Abenduaren 7an, 6 urte. Zorionak, Eñautxo! Ederto pasatuko dogu zure egunien. Patxo potolo bat etxeko danon partetik!




ESKORIATZA
Aner Ortiz Esnaola
Abenduaren 7an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Familia osoak opa dizugu, batez ere amatxoren, aita txoren eta, bereziki, Aimarren partetik. Lau muxu potolo. Mua!



BERGARA
Aimar Anakabe Iturbe
Abenduaren 6an, 6 urte. Zorionak, maittia! Muxu potolo pila bat zure lagunien eta familiaren partetik. Ondo pasatu zure urtebetetze egunian.



ARRASATE
Oxel Azurmendi Casas
Abenduaren 6an, 5 urte. Zorionak, bihotza! Zure urtebetetze eguna oso ongi pasa dezazula opa dizugu Ainhoak, amatxok eta aita txok. Muxu bero bat.



ARRASATE
Oihan Martinez Oruna
Abenduaren 5ean, 9 urte. Zorionak, txiki! Txapeldun bat zara. Askota maite zaitugu. Patxo handi-handi bat, etxeko guztion partetik. Ondo pasatu!



OÑATI
Olaia Urtzelai
Abenduaren 4an, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako, guapisimo! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna familia eta lagunekin! Muxu asko eta zazpi belarri tirakada!



OÑATI
Maren Arenaza Altube
Abenduaren 3an, 6 urte. Zorionak, potxola! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi bat etxeko partetik.



OÑATI
Yokin Hernandez Barrena
Abenduaren 3an, 5 urte. Zorionak, txapeldun. Ondo-ondo pasatu zure eguna, etxeko partetik eta batez ere Kepa, Jexux eta Isa.



ARETXABALETA
Oier Kortazar
Abenduaren 3an, 6 urte. Zorionak zure seigarren urtebetetzean, txapeldun! Etxeko danon partetik, patxo handi bat!



ARRASATE
Lurdes Bergara Alzuri
Abenduaren 3an, urtebetetzea. Zorionak, tia Lurdes! Muxu handi bat Marenen, Oihanen eta Ekainen partetik!



ARRASATE
Benja Ramos
Abenduaren 2an, 33 urte. Zorionak, aita txi! Oso ondo pasatu zure eguna eta urte askotarako. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu! Patxo potolo bat!

ZORION AGURRAK TELEBISTAN



GOIENA TELEBISTA | KORAPILO

ZAPATUETAN ETA DOMEKETAN | 10:00 ETA 17:00 | MADDIK AURKEZTUA



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

URTEURRENA



Juanito Osinaga Arabaolaza



2013ko abenduaren 16an hil zen.

Bigarren urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 13an, 11:00etan, Uribarriko Itxaropenaren amaren elizan.

Erraza izan zen zu maitatzea ezinezkoa, ordea, zu ahaztea. Betirako gurekin izango zara.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, etxekoan izenean. Arrasaten, 2015eko abenduaren 11n.

URTEURRENA



Jose Mari Gonzalez Imaz



Bergaran hil zen 2014ko abenduaren 22an, 69 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 13an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik, ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2015eko abenduaren 11n.

URTEURRENA

Juanita Zugasti Okina



2014ko abenduaren 5ean hil zen, 100 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 13an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Urtebete gure ondotik joan zinela, baina beti izango zara gure artean.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2015eko abenduaren 11n.

URTEURRENA



Ines Urzelai Elorza



2014ko abenduaren 17an hil zen.

Gure ondotik joan zara, baina betiko izango zaitugu gure bihotzean.

Urteurreneko meza larunbatean izango da, abenduaren 12an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren Parroki Elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2015eko abenduaren 11n.

ESKER ONA



Alberto Larrañaga Igartua



2015eko abenduaren 1ean hil zen, 76 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zineten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2015eko abenduaren 11n.

ESKER ONA

Gregoria Alberdi Garitano



Francisco Javier Mujikaren alarguna

2015eko abenduaren 4an hil zen, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2015eko abenduaren 11n.

HILDAKOAK

- Alberto Zabaleta Albistegi.** Arrasaten, abenduaren 2an. 92 urte.
- Juanito Arriaran Aranburu.** Arrasaten, abenduaren 2an. 81 urte.
- Visitacion Altzola Murua.** Arrasaten, abenduaren 3an. 94 urte.
- M. Inmaculada Cordovilla Morifiño.** Arrasaten, abenduaren 3an. 44 urte.
- Gregoria Alberdi Garitano.** Bergaran, abenduaren 4an. 84 urte.
- Jabi Gonzalez San Pedro.** Bermeon, abenduaren 4an. 62 urte.
- Fructuosa Camuesco Carrasco.** Arrasaten, abenduaren 5ean. 91 urte.
- Fermina Aiaztui Oñate.** Arrasaten, abenduaren 6an. 88 urte.
- Mari Carmen Tirapu Remondegi.** Elgetan, abenduaren 8an. 66 urte.
- Asuncion Etxebarria Garai.** Gasteizen, abenduaren 9an. 96 urte.

OROIGARRIA

Jabi Gonzalez San Pedro



2015eko abenduaren 4an hil zen, Bermeon, 62 urte zituela.

Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.

Oñatiko zure kuadrilla. Oñatin, 2015eko abenduaren 11n.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

EZKONTZA



Maialen eta Lander

Maialen Guridi eta Lander Marco oñatiarrak abenduaren 4an ezkondu ziren. "Zorionak, bikote, eta oso ondo ibili Lanzaroten! Zoriontsuak izaten jarraitu. Patxo bana, kuadrillakuen partetik!".

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Goiena Klubeko bazkideendako 118 euro.
Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

- ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
- BERGARA** Jardun elkarte: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 36 61 605 71 24 69
- OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
- ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 78 80 80.
- ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.



MUSIKA

OÑATI San Martingo nagusien astea
Oñati Abesbatzaren kontzertua.
Gaur, egubakoitza, egoitzan, 19:00etan.

ARETXABALETA Musika Banda
Leizarra musika eskolako bandaren emanaldia, doan.
Gaur, egubakoitza, Arkupen, 19:00etan.

ARRASATE Arce raperoa
Luciffer diskoa aurkeztuko du artista galiziarrek, Gaztemaniak! ekimeneko kontzertuan.
Gaur, egubakoitza, Amaia antzokian, 20:00etan.

ARRASATE Goikobalu Abesbatza
Harreman GKEren aldeko kontzertua.
Gaur, egubakoitza, San Frantzisko elizan, 20:00etan.

OÑATI Mara bakarlarria
Muskizko kantariak emanaldia egingo du, doan.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

ARRASATE Mikel Uraken
Neguaren ostean diskoa aurkeztuko du. Doan.
Gaur, egubakoitza, Jai Zalen, 22:00etan.

BERGARA Anger, Montauk eta Naken Selektor DJa
Bergarako Libre Izan Arte! ekimenaren eskutik.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30etan.

OÑATI San Martingo nagusien astea
Udal Musika Bandaren saioa.
Etzi, domeka, egoitzan, 12:00etan.

OÑATI Gabonetako kontzertua
Udal Musika Bandak, Oñati Abesbatzak, Parrokiako koruak, Ganbara Abesbatzak, Ganbara Txiki Abesbatzak eta Txantxiku Ikastolako Abesbatzak parte hartuko

NON-ZER

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguzteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

dute, Inaxio Ibarrendoren gidaritzapean. Diru-bilketa Maliko proiektura bideratuko dute.
Etzi, domeka, parrokiaren, 19:00etan.

BERGARA Aitor Escobar
Flamenko doinuak izango dira protagonista Arrasateko artista-aren kontzertuan.
Etzi, domeka, gaztetxean, 19:00etan.

OÑATI Jorge Reboredo
Snobs, Why Not?, Los Padrones eta Gramones taldeetan ibili ostean, bakarkako emanaldi akustikoa egingo du.
Etzi, domeka, Pako tabernan, 19:30etan.

ARETXABALETA Piano emanaldia
Leizarra musika eskolako ikasleen saioa.
Abenduaren 15ean, Arkupen, 18:00etan.

ARRASATE Kooltur Ostegunak
Emanaldi berezia: Last Fair Deal musika taldearen emanaldi akustiko laburra eta, ostean, *Vinyland* pelikula ikusteko aukera. Zuzendaria eta aktoreak ekitaldian egingo dira. Sarrerak, bi euro.
Abenduaren 17an, Amaia antzokian, 22:00etan.

ANTZERKIA

ARETXABALETA 'Amilami'
Juan Kruz Igerabideren eleberrian oinarritutako antzezlan musikatua. Laminen istorioak kontakuko dituzte.
Bihar, zapatua, Arkupen, 11:30etan.

ABENDUA 11
ABENDUA 17

OSPAKIZUNAK

ARETXABALETA Santa Luzia eguna
90 urte bete dituzten bazkideak omenduko dituzte erretiratuen elkartean. Ohorezko aurreruarren eta Basotxoko abesti taldearen saioaren ostean, opariak emango dizkiete omenduei. Ostean, trikitilariaren emanaldia eta txokolate-jana.
Etzi, domeka, Basotxon, 17:00etan.

OÑATI Bi jostuni omenaldia
Bi jostun beterano omenduko dituzte. Ostean, moxal pintxoak.
Etzi, domeka, Lagun Lekun, 18:00etan.

GAZTELEKUAK

ANTZUOLA Ikus-entzunezkoa
Saharako errealitatea ezagutzeko ikus-entzunezkoa. Argazkiak erakutsiko dituzte eta solasaldia ere egingo da.
Bihar, zapatua, gazte txokoa, 17:00etan.

ARRASATE Fimo tailerra
Apaingarriak egingo dituzte.
Bihar, zapatua, erdiguneko gaztegunean, 17:30etan.

ARETXABALETA Palak egiteko tailerra
Ping-pongarekin jokatzeko palak egingo dituzte, eskuz.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 18:00etan.

ESKORIATZA Sukaldaritzaren tailerra
Txokolatea eta txurroak egingo dituzte.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 18:00etan.

ANTZUOLA Entseguak
Musika taldeen entseguak.
Etzi, domeka, gazte txokoa, 17:00etan.

ARETXABALETA Zinema
Pelikula bat emango dute.
Etzi, domeka, gaztelekuan, 17:30etan.

ARRASATE Bidaien kronikak
Joseba Gabilondok Thailandiara egin zueneko bidaia kontakuko die gazteei.
Etzi, domeka, erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.

DANTZA

ELGETA Dantza-afari tematikoa
Errusia eta Setomaa herrialdea oinarri hartuko dute. Aldez aurretik eman behar da izena: 675 94 46 09 telefonoan.
Gaur, egubakoitza, Espaloian, 21:00etan.

ARETXABALETA Dantza improbasazioa
Arantza Igleziasek eta Izaskun Lapazak erakustaldia egingo dute, Jaiki Elkartek gongoratuta.
Abenduaren 16an, Arkupen, 19:00etan.

JAIK

OÑATI Berezaio auzoan
Santa Luzia jaiak: gaur, egubakoitza, mus txapelketa (22:00); bihar, zapatua, umeendako txokolate-jana (16:00); eta etzi, domeka, meza (12:00) eta, ostean, luntxa eta trikitilariaren saioa.
Aste bukaeran, aipatutako egunetan eta orduetan.

ARRASATE Bedoña auzoan
Santa Eulalia jaiak. Askotariko ekintzak: patata-tortilla eta poste lehiaketa, umeendako jolasak, mus eta briska txapelketak, hildako auzotarren aldeko meza eta doke txapelketa, besteak beste.
Aste bukaeran, Bedoña auzoan.



Laboral Kutxa Baskonia
Cedevita Zagreb

Partidurako 4 sarrera bikoitz ditugu
Abenduaren 17an, 20:30ean Buesa Arenan jokatu den partidurako.

PARTE HARTZEKO (ABENDUAREN 14RA ARTE):
WhatsApp: [BASKONIA] [bazkidearen zenbakia]
688 69 00 07 zenbakira.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren bitartez automatikoki baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubideak izango dituzu datuak sartze, harratze, zuzentze edo ezarritzeko. Helbide honek hurrengo informazioa eskaintzen du: kluba@goiena.com



Elgetako Espaloia Kafe Antzokiari esker
Txintxaun kolektiboaren
'The Full Monty' antzezlanaren
ikusteko sarrerak ditugu
Abenduaren 18an, 22:30etan.

PARTE HARTZEKO (ABENDUAREN 15A BAINO LEHENAGO)
SMS: KLUBA [Fullmonty] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA Fullmonty [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren bitartez automatikoki baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubideak izango dituzu datuak sartze, harratze, zuzentze edo ezarritzeko. Helbide honek hurrengo informazioa eskaintzen du: kluba@goiena.com



ESKORIATZA Cricket partidua
Inglaterra sortutako kirola gertutik ezagutzeko aukera.
Etzi, domeka, gaztelekuan, 18:00etan.

ERAKUSKETAK

ELGETA Margolanak
Usoa Mendikute margolari bergararren lanik aipagarrienak ikusgai eta salgai.
Urtarrilaren 6ra arte, Espaloian, 17:00etan.

ARETXABALETA Demetrio Iriarteren omenezkoa
Txistulariaren jaiotzaren 100. urteurrena bete denean, askotariko materiala duen erakusketa ipiniko dute: argazkiak, partiturak, dominak, opariak, txistuak, danbolinak...
Abenduaren 30era arte, Arkupen.

BERGARA Simon Arrieta
Bergarako margolaria oinarri hartuta, erakusketa antologikoa osatu dute.
Abenduaren 20ra arte, Aroztegin.

ARRASATE 'Begotik'
Debagoienero, Debarreneko eta Durangaldeko hemeretzi margolarien eta eskultoreen lanak bildu dituzte erakusketa bateratuan. Eskarmentu handiko artistak dira.
Abenduaren 20ra arte, Kulturaten.

DONOSTIA Ramon Arantzabal
Margolari bergararrak hamazortzi lan ipini ditu: abstraktuak, pintura akrilikoeekin, eginda. Erakusketa ikusteko azken egunak.
Mirakontxa kaleko Resaka kafetegian, abenduaren 15era arte.

ARRASATE 'Dinbi, danba, mailukaren hotsa'
Bixente Barandiaranen lanak eta burdina hizpide.
Harresi aretoan ikusgai.

BERTSOLARITZA

ESKORIATZA Bailarako bertso eskolen topaketa
Bailarako bertso eskoletako gazteek, merienda elkarrekin jan eta, ostean, prestatutako bertsoak abestuko dituzte Hankamotx bertso eskolako eskutik. Sarrera, doan.
Gaur, egubakoitza, Zaldibarren, 18:00etan.

OÑATI 'Bertso Truk' ekimena
Saio berezia Oñatiko eta Sakanako bertso eskoletako kideekin.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 19:00etan.

UMEAK

ELGETA Ate irekiak, ludotekan
Zerbitzua ezagutzera emateko zabalik egingo da.
Gaur, egubakoitza, ludotekan, 17:00etan.

ELGETA Ipuinen ordua
3 urtetik gorako neska-mutikoei dako euskarazko ipuin kontaketa saioa egingo dute herriko boluntarioek.
Gaur, egubakoitza, liburutegian, 17:25ean.

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Mendiola jatetxeko sekretu iberikoa.



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba

goiena

2015-12-11

BUKATZEKO

'Brumm': irudimena da muga bakarra

- ▶ Oinarri batekin eta zazpi piezarekin hainbat auto egin daitezkeen jostailua diseinatu du Unai Rollanek
- ▶ Proiektuak aurrera egin dezan 10.000 euro batu gura ditu bergararrak Internetez abenduaren 29rako

MIRARI ALTUBE | BERGARA

"Brumm ez da auto bat, zure irudimenean dituzun auto guztiak baizik". Hala dio Unai Rollanek (Bergara, 1980) diseinuaren asmatzaileak, eta gaineratu du: "Oinarri bat, zazpi pieza eta mila-ka aukera. Zure irudimena da muga bakarra!". Autoak zituen gustuko Rollanek mutikotan, eta auto guztiak bakarrean bildu ditu orain: "Beti pentsatu izan dut: posible balitz neuk muntatzea gustuko autoa... Hortik etorri da diseinua".

Buruari eragin, sormena landu

Adinik ez duen jostailua da *Brumm*: "Irudimena eta sormena garatzeko ezin aproposagoa da. Baina ez bakarrik umeek, baita adinekoek ere, bizkortasuna eta trebetasuna lantzeko, esaterako", dio bergararrak. Jostailuek ia guztia egiten dakiten garaian, guztiz kontrako proposamena dakar Rollanek: "Sinplifikatzea garrantzitsua dela uste dut. Jolas-teko modua aldatu gura izan dut, mundu zibernetikotik urrundu eta buruari eraginez sormena landu".

Diseinua ez ezik, materialak ere asko zaintzen ditu, eta naturalak erabiltzearen aldekoa da:



Unai Rollan bergararra jostailuarekin. | UNAI BELLAMY

harria, egurra... Oraingoan, pago egurra erabili du: "Egur goxoa da, eta, gainera, egokia jostailuendako, ez da ezpaletan zatitzen". Ez dela artisaia dio, baina ez da fabrikazio industrialaren aldekoa: "Xehetasun guztiak eskuz lantzen dituen ez naiz, baina piezak banan-banan egiten ditut".

Dirua makinak erosteko

Diseinatzaile industrialak da Rollan, eta ingeniaria. Diseinu kontuetan sartu gura du burua eta *Brumm* jostailuaren bitartez

ezagutzera ematen dabil, nahiz eta beste diseinu batzuk ere izan: aulkiak, lanparak...

Finantzaketa kolektiboa edo *crowdfunding* bidea aukeratu du jostailuaren proiektua finantzatu ahal izateko, hau da, Internet bidezko diru-bilketa. Helburua da 10.000 euro batzea abenduaren 29rako; eguaztenerako, hilak 9, 2.000 euro pasatxo zituen batuta, 29 babesleri esker. Horretarako, honako helbide honetara jo behar da: www.kickstarter.com. Eta horrek duen bilatzailean *Brumm*



Brumm autoa. | U.B.

sartu. Hilaren 29rako diru guztia batuta izanez gero proiektuak aurrera egingo du: "Eta dirua jarritako laguntzaileek etxean jasoko dute jostailua apiril inguruan. Diru hori batzerik izan ezean, bertan behera geratuko da proiektua, eta ez dago gasturik inorendako", argitu du.

Diru horrekin erosiko ditu jostailua eta gainerako diseinuak egin ahal izateko behar dituen makinak. Baina bilketa horren atzean badago beste zerbait: "Lortuz gero, diseinatzaile independente legez lanean hasi ahal izango naiz, eta salto handia izango da niretako". Horren guztiaren berri eman du Rollanek diru-bilketarako zabaldutako atarian.

AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO



Gune libre frontoian

Pasa den astean hasi zen Auzitegi Nazionalean Segurako epaiketa bezala eza-gutu dugun hori. Beste askoren artean eskualdeko lau herritar ere epaitzen ari dira egun hauetan Madrilen: Aitor, Ino, Migelon eta Mikel.

Lerro hauek argitaratzen direnean Madrilen izango dira deklaratu ETako kide izan direlako akusaziopean. Hamarna urteko espetxe-zigorra eskatzen diote epaitu bakoitzari. Ezagutzen ditut. Gertukoak ditut oso. Badakit zein izan den beraien ibilbidea eta beraien delitua. Espainiari traba handia egin dion hautu politikoa egin zuten bere egunean eta oso garesti ordaintzeko zorian daude. Garesti ordaintzen ari dira jada. Laurak egon dira kartzelan beraien militantzia politikoa dela eta.

Gezurra dirudi 2015eko abendu horrelako epaiketarak egiten jarraitzea. Bihar arratsaldean Bergarako frontoia gune libre izango da. Epaiketa honen aurkako salaketa egiteko eta epaituei gure elkartasuna adierazteko gunea. Berotasuna eta maitasuna helaraziko diegu Madrilgo arrotasunaren eta hoztasunaren aurrean. Laurak merezi dute eta guk eman nahi diegu.

bildu
INDEPENDENTZIAra

ABENDUAK 15 ASTEARTEA ARRASATE
19:30 KULTURATEKO JOKIN ZAITEGI GELA
Ander Rodriguez, Amaia Larrañaga
eta Gotzon Elizburu

eman botoa
ehbildu

